


Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Iaun Zuria



Mendebalde Kultura Alkartea

Egilearen beste lan batzuk:

- Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak
- Bizkaialdeko Ipuin-Esaundak
- Gabonetako Ipuinak
- Gorbeiatarrak
- Zeberio Haraneko Euskeraren Azterketa Etno-Linguistikoa
- Gure Fabulak Bertsoz
- Txorien Zoria
- Bibliako Kontaera-Antologia
- Eguberri eta Gabon Ipuinak
- Zeberioko Kantak
- Biziak bizilan
- Euskitz
- Euskal Urtea, Ohituraz Betea
- Astoa: Historiako astorik ospetsuenak
- Perutxu eta Jentila

Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Iaun Zuria

Mendebalde Kultura Alkartea

© Juan Manuel Etxebarria Ayesta
© Mendebalde Kultura Alkartea

ISBN: 978-84-92413-71-3
Lege Gordailua:BI-0033-2011

Marrazkiak: Jesse

Diseinua, maketazioa eta argitalpena: Erroteta - www.erroteta.com



Inprimaketa: cuatroAs.
Printed in UE.

Debekatuta dago liburu eta CD honeen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara izanda bere, edizio honen Copyright-aren jabeen baimenik barik.

Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Iaun Zuria

Mendebalde Kultura Alkartea

Nork esanda eta zerk eraginda joan nintzen baino ez da, eta eskerrak joan nintzena, baina Mundaka, Bakio, Bermeo, Busturiako Altamira-Axpe, Arteaga, Kortezubi, Forua, Gernika-Lumo, Durango, Urduña, Zeberio eta jakina, Arrigorriagako ia-ia sitsak edo eta zedenak jan eginiko dokumentu zaharrak leidu ahala eta herriotako batzuegandiko entzute zaharrak adi eta zurt entzunik, bihotz barruan Bermeo eta Mundakaren aurrez aur dagoen Izaro isla arakatzeko geroago eta intzigu biziagoa sortzen zitzaidan.

Harrezkero, nik neuk baino ez dakit zenbat haronako egin nuen Izaro ikusten den ingurumarietatik, islara bertara joan nahian. Ni neu bakarrik ez nintzen ausartzen, egia esateko, txaluparik ere ez neukan, eta beste alde batetik ez nion inori esan gura nire neure bihotzeko bihozkada.

Baina, aurgora gabeko aurbeherarik ez dagoenez, baten bategana jo behar nuen eta Txomin arrantzaleagana egin nuen elkarren lagun ginen eta.

Txominek, bere ia lauorgeri urteokin, arrantzari eragoion baina ez itsaso luze-zabaletan, bere sasoi-sasoi bezala, ezpabere Izaro islaren oboan-oboan baino. Txipiroitan joatea zen oraingo bere beharleku edo denbora ematea.

Egun baten, Mundakako Santa Katalinatik nembilela, hara han non ikusten dudan Txomin bere motor txikidun txalupan porturako bidean. Heldu zen, neu ere bai beragaz nahaste, soka bota txalupari eta ni ikusikeran, plastikozko kantintxo berdea gorantz jasorik ziraustan: "gaur berrogeita hamazortzi! -txipiroi, jakina.

Portu beharrok egin ondoren, berbaldia egin genuen biok biotara eta gesu baten etxera joatekotzat geundenean esan nion ba ze:

-Aiko, Txomin, zer emango nukeen baino ez da gaineko egunen baten zeugaz joan eta txaluparik hara zu zeu arrantzan ikustearren!

-Hori baino ez bada, ez da asko eskatzea -erantzun zidan irribarrez ahoa askatuz.

Nik gau hartan ez nuen ia lorik ere egin. Bihotzak akordatzako edo ustekabeko taupada biziak ematen zizkidan eta buruak bueltak, edan

gabeko hordia zirudiela, estukurak eragindako izerdi larria ere ez zitzaidan falta nire gorputzean.

Etorri ere etorri zen hurrengo goiza eta geure barausiok egin eta gero, han gindoazen Txomin eta biok itsasorantz goiz erdiko eguzkipean. Itsasoa bare-bare zegoen, inoiz ez bezala, eta beldursartu eta guzti banengoen ere burua joango ete zitzaidan txalupa-dantzan, zorabiorik txikienik ere ez nuen izan.

Egun osorako joan ginen, janari eta guzti, maleta sikua, jakina. Txipi-roiak harrapatuz-harrapatuz, inon diren kontuak eta gehiago kontatu genituen, hobeto esanda, kontatu zizkidan berak, nik neuk ia galderak baino ez bainizkion egiten.

Izaro norena zen itandu nionean, buruko txapela kendu eta zutundu egin zitzaidan esanez:

–Aitu! Kontu hori antzina ere antzinakoa zaizu. Bermeotarrek eurena dela diote eta halaxe egin ere egiten da urtero-urtero Madalen egunean. Bermeotarrak, alkatea buru dela, Santa Eufemia zin-egintoki elizan meza entzunik Izarora hurbiltzen dira propietatea adierazten duen teila bota eta Bermeoko teilatua Izaroraino luzatzen dela baieztatuz. Ederra zer izaten da giro hura! Barku eta txalupa guztiak apainduta eta denak azul-marinoz jantzita ikusteak ez dauka parerik munduan. Ikurriña ere jartzen digute isla tontorrean. Gero Mundakakoekin batera Elantxobera joaten dira barku eta txalupa guztiak bozinotsean, festa giro ederrean. Behin Elantxobera ezkerrean, han, bazkaldu egiten dute, batzuk lurtean eta beste batzuk itsasontzian bertan. Eguerdiko hori egin ondoren, berriro Bermeora baino lehen, Mundakako portuan sartzen dira eta han beste hainbesteko jaia ospatu Elantxoben bezalako anaitasunean. Gaulendian, iluntzen hasi baino lehen, Bermeora bueltatzen dira, portuan sarreran Zizili lamina agurtuz.

Baina kontuz, txo! Nik besterantzako entzuteak dauzkat; Izaro estropadetara jokatu zutelazkoa Bermeo eta Mundakaren artean, lehenengo iristen zenarentzat izatekotan.

Huraxe egin ei zuten; urli egunetako egunsentiko oilarraren kukurru-kua entzunaz batera irten eta Izarorainokoa norgehiagoka jokatu.

Baina, antza, bermeotarrek, sua eginaz,aldi baten Dimakoek Otxandio-koei egin zieten bezala, oilarra itzartu omen zuten eta tertziozago irtenez estropada irabazi. Zer egingo zaio ba! Badakizu zer? Ba, munduan beti galtzen direla alferrik hiru gauza hauek: “itsasoko euria, urruneko egur iharra eta pobrearen arrazoa”.

Nik neuk, ahoa zabalik entzun nion kontu hori eta hala izan bazen arrazoia eman ere bai, egiak bide bakarra baino ez duelako izaten.

Eguna joan zihoan aurrera eta egurdartean ez genuen txipiroi gutxi baino harrapatu. Arrastian, ostera, alosoko txipiroialdia lortu genuen, nik neuk ere bai batzuk, posturarako lain.

Ilunabar aurretxoan, etxerako bidea hartu eta bagentozen porturantz, biderdian surfista bat edo beste zeharkatuz, ur onak eta egokiak baitira Mundakakoak surfista horientzat.

Behin portura iritsi, txipiroiok banatu eta etxerako geundela, berbartuaz ez baina askoz gutxiago barik esan nion Txomini:

-Txomin, asko eskatzea ez balitz, bihar ere eroango nauzu zeure txalupan eta Izaron laga zuk arrantza egiten duzun bitartean?

-Bai, baina, zu Izaron bakarrik utzi, pentsatu ere ez, badaezpada!

-Zer ba?

-Zuk ez duzu ezagutzen uharte hori. Hainbesteko intzigua baduzu, neuk lagunduko dizut, bermeotarren isilean, euren baimen barik ezin joan daitekeelako.

Zoratu ez nintzenean zoratu pozaren pozez! Ez zen gutxiagorako, izan ere, eta beste barik, zoli-zoli ekin nion etxerako bideari Mundakako harlanduzko kale bitarteetatik.

Hurrengo egunean, niretzat ia egun berbera, ze gau hartan ez nuen begirik itxi ere egin, hartu txalupa eta bagindoazen Txomin eta biok. Nik, zakuto baten tresna batzuk neramatzan eta horretara esan zidan Txominek:

-Zer daroazun baino ez da zakuto horretan?

-Tresna batzuk -erantzun nion-, jorraia, mailua, zintzela...

-Zertarako edo?

-Han ikusiko duzu eta tirauzu, jo aurrera Izaro aldera!

Bagindoazen biok biotara itsasbehera hasi berria zen tertzioan eta Ogoño aldetik zeharkatzeko asmoz, ezkerretara geneukan gure Izaro, guri geuri itxaroten.

Mundakaz bestaldeko Izaroren aurpegia ikusi nuenean, adi-adi lotu nintzaion. Txominek, ni txundituta ikustean, geratu ere egin zuen txaluparen motorra. Handik gero, Txominek, hartu bere ostikopetan erabiltzen zuen zurezko arraun txikia eta astiro-astiro Izaroren ertzeko haitz bitarte baten hankan ipintzea lortu genuen.

Behin Izarora ezkerro, nik behintzat, aitearen eta guztiak egin nituen eta gero jarrialdi bat ere bai ezertan hasi baino lehen.

Jarrita bai, baina nire begiak ez zeuden ez lotan, zuhur baino. Ogoño hazduiari ere ez nion begirik kentzen eta hartara badiost Txominek:

–Ikusten al duk hori, gu eta Ogoño bitartean daukagun haitz agiri hori?

–Bai, ez dirudi handiak baina bai.

Ba, nire neure zaharren esateetatik, hor, haitz horretan, itsasbeheretan, laminak egoten ei ziren euren ile gorriak orraztu eta orraztu eguzkiari aurre-rik hara adituz. Abestu ere egiten ei zuten gizonezkoak erakartzeko baina baten bat eurengana hurreratuz gero, plisti-plasta hondoratu egiten ei ziren, inork ikusi ez egiteko edo.

Orain ez dago laminarik ezta antzekorik ere. Kontuak dira denak. Baina lehenago ez zegoenez gaurko argitasunik, horrelako gauzetan sinestu behar. Gaur egun, leku-izenak baino ez zaizkigu geratu. Lekutan-lekutan harrizko edo metalezko irudiren bat ere bai. Hortxe daukagu, Bermeoko portuan, Mundakako bandaranzko kai-muturrean, gure Zizili lamina.

Nik neuk, sinestu ere ezin nuen egin Izaron nengoenik baina han geunden, bateko itsas sakonetara begira, besteko Urdaibaiko polit-edertasunak gozatzen ahotik txua dariola, berba baten esanda, oinak lehorrean, begiak itsasoan eta burua, Txominena ez nekien baina nirea bederen, enigma ikaragarri baten ataka-atakan.

Zutundu baino lehen, beste gauza jakingarri bat ere azaldu zidan Txominek. Izurdeen kontua, hain zuzen.

Zuk ez dakit jakin ere egingo duzun –esaten zidan maisu lanetan–, baina Izaroren ingurumariatatik, sarri askotan ikusi ditut izurdeak, baina guk hemengook ez diogu arrain horri hainbesteko mirarik egiten. Gainera ez dute atakatzen, txitxarro garaian txitxarroak jan bai, eta gu ia bat ere barik utzi. Gainera, hau kontuz e!, hau neure aurrekoei entzuna da baina Urdaibai izena ere hemendik omen dator, izurde izenetik, beste era batera esanda itsas urdea edo itsasoko txerria. Baliteke, ezta?

Halako baten, utzi genion jarrita egoteari eta Txomin, pozik baino ere pozago zebilkidan Izaro islaren okeluak erakutsi eta azaltzen.

Hiru-lau kobazulo handiegibakoak ere erakutsi zizkidan. Baina abegirik handiena, oraindik guztiz erori gabe dauden aldi bateko komentuko horma zaharrei egin genien.

Txominek, bere uste apalean zekiena argitu zidan, zehaztasun handiegirik gabe, jakina, dena ere berak aurrekoei entzuna baitzen, belaunaldiz belaunaldi, etxean edo herrian.

Nik neuk ere azaldu nizkion liburuetan irakurritako berri batzuk, baina hori bai, samurtasun guztiaz, ezelan ere ez mintzeko eran esanez:

–Txomin, harako hura prantziskotarren lehenengo komentua, Kalagurriko gotzai zen Diego Lopez de Zuñiga eta Arteagako frai Martinek sortu zuten 1422an. Horretarako, aurrezdik, Bermeoko Udalbatzak utzi egin zien isla hori erreserba batzuekin, jakina.

–Hori horrela ete da gero? –ebaki zidan Txominek aurpegia izurturik eta betileak uzurtuta.

–Historiako liburuetan halaxe dio –erantzun nion–, baina historian ere denerik dago eta kontu hau ere batek badaki! Esandakoaz gainera, Txomin, Izaron beste ermita bi ere egon ziren, bata Santa Klara eta bestea Magdalena. Horri guztiorri gutxi baderitzozu, horrezaz aparte, isla hau garrantzi handikoa izan zen eta badakizu Txomin nortzuk dauden egonda hemen bertan? Ba, aitu!, 1457ko martiaren 5ean Gaztelako Enrike IV.a; 1476ko uztailearen 31n Fernando Katolikoa; 1483ko abenduaren 17an Isabel Katolikoa eta honek agindu zuen, ur-ertzetik komentuko ate nagusiko atakaraino eskilara bat egiteko. Ikusten duzunez, isla hau ez zaizu izan harantz-horrantzako gero! Ez horixe, horraitio!

Urte batzuk geroago –neragoion Txomini–, Bizkaiko Jaurreriko barkuflota gehiena “invencible” armada famatua osatzera sartu zenez, Izaro eta bertoko prantziskotarrek, defentsa lanetan ikusi zuten euren burua, zein arerioren bat etorri eta behar ez denen bat egin akordatzakoan zein ustekabean.

Zer den badaezpada zuhur egotea e! Begira, 1596an, Francisco Drake eta bereak, Bermeora hurreratu ziren hamalau barkurekin. Euretariako soldadu batzuek, Izaro astindu zuten baina ezin izan zuten prantziskotarren eliza eta klaustroa erre.

Handik gero, urteak joan urteak etorri, 1719an utzi egin zuten bertan behera komentua prantziskotarrek Foruara joateko, eta hauexek bion begien aurrean ditugun harriak baino ez zaizkigu geratzen. Bai, Txomin, hauxe duzu liburuetan leidu dudana!

Txominek, isil-isilik eta ia begi biak negar-anpuluz beteta entzun zizkidan nire berri irakurri eta ikasiak.

Handik apur bat barru, begiak argitu zitzaizkionean, eta ezpainetan irribarrea agertu, badiost Txominek:

–Istorio horiek horrela izango dira, ni baino makina bat jakitunago badago munduan eta, baina ez diostazu ezer hemengo kontu famatu baten gainean!

–Zein da ba? –erantzun nion jakin-minez.

–Ba, egia esateko, ez dakit ba kontatu behar nizukeen ere, baina, hau kontuau zabal ibili da hemengo inguru guztietan. Badiotsut, kontu hutsa dela uste dut, eta horrexegatik kontatzen dizut kontatu ere, egia balitz ez, horrelako gauzak isilik edukitzeko hobeak dira eta.

“Ba, antza, hemengo ingurukoren bat fraile sartu zen Izaron eta hartakotzat zegoen egon ere. Baina, ezin zuen mendia hartu, hots, fraileen bizi-modu latzera bere burua egokitu, eta noizbehinka, gauez, itsasbeheretan, hara orduko eduki zuen neska-laguna ikustera joaten omen zen, uger gainera joan ere, ze egon ere, igerian hari irabaztekorik ez ei zegoen Bizkaiko golko guztian. Neskak, bere aldetik, non zegoen jakinarazteko, sua egiten zion Laidako itsas ertzean, joan-etorrietan, egun eguzkitsuetan laminak agertzen ziren haitzean atsedena hartzeko.

Baina egun baten, neskaren nebak sorots egin zion bere arrebari eta fetura hura ikusi zuenean, txarto iritzita, bataren suak eta bestearen haronakoak bukatzea erabaki zuen, berbabideak zabalduan ere.

Horretarako, bere arreba beldurtzeko, gezur itzel bat asmatu zuen. Zein eta hauxe: Euliski markinar basajauna etortzeko zela Izaro ondoko lamine-tara, abemariatatik goizeko argikanpaien bitartean.

Neska, beldursartu eta guzti geratu zen etxean orduko gauean. Bere neba, oster, hartu besape bete galtzupoila eta mistoak, eta hara han non doan Murgu ondoko hondartzara eta hantxe piztu sua.

Frailegaiak ez zekien ezer eta beti lez irten zuen, gau ilunean, sua zegoen okelurantz. Baina haranzkoan ez zuen aurkitzen biderdiko lamin-haitza eta halakoren baten, ahulduta, hatz eta behatzak kipututa eta ia-ia konortea galdu eginik heldu ei zen sua zegoen tokira, baina han ez zegoen neskari.

Frailegaia ez zen gauza berriz igerian Izarora joateko eta dar-dar eta hotzikaraz beterik igaro zuen gau osoa. Gau hartan, hainbat buelta eman zion bere buruari eta azkenean neskari bakean utzi eta fraile izatea ebatzi zuen. Beste batzuek, ito egin zela ere kontatzen dute. Dena dela, denak ere kontuak, berritsuen asmakizunak, ez deritzazu?

Horrela eman genuen egurdarteko zati dezente bat, biok biotara bakoitzak zekiena elkarri kontatzen.

Izaro guztitik ibili ginen, lau haizeetara, den-dena ikusten. Izaroko zorua eta zerua dena zegoen antxeta edo kaioz beterik. Pausu bat eman orduko, lainoa lez plantatzen zitzaizkigun itsas-txoriok geure buruen gainetik. Hegaz eragoioela, zoruan, txori-habiak erreskan ikusten genituen, ezartzeko arrautza eta guzti. Habia batzuetan txorikuma lumorraztubakoak ere bazeuden euren amek noiz etorriko itxaroten itsasoko arrain fresko eta gozoa pikuan dela. Izan ere, ikustea baino ez zegoen zelako trebeak diren antxetak itsasoan begiztatu eta berehala harrapatzeko arrainok.

Halako baten, hamabiak entzun genituen Mundakako kanpandorrean eta horretara, badiost Txominek:

–Txo!, nik neuk oraindino, isilean baino ez bada ere, angelus errezatzen dut nire aurrekoen usadioari jarraituz.

–Aurrera, Txomin –erantzun nion–, ez lotsatu eta errezatu dezagun, egon gauden tokian lehenago ere hainbat errezu egingo zen eta.

Txominek, bere buruko txapela kendu, aitaren eta semearen egin, neuk ere beste hainbeste eta Txominen belarrizko latinari, “angelu domine nuncia bi marie”, nik neuk latin ikasi eta zuzenean erantzunez, bete genuen eguerdietako ohitura hori.

Komentu zaharreko horma zaharretara eroan nuen Txomin. Ordurako han neukan utzita neugaz eramandako erreminta zakutoa.

Txominek ez zeukan maleziarik, baina nik neuk bai. Nik neuk, ondo gogoan nuen Busturiko Axpeko eliza berriztatzerakoan, hango eliz liburu zaharkitu baten atzeko azalaren barruko partean erdi irakurrita neukana. Erdi irakurrita izan behar, ia dena sitsak edo zedenak janda zegoen eta.

Dena dela, Txomini beste era batera esan nion aurrean geneuzkan horma zaharrak arakatu gura nituela. Nola? eta...

–Txomin, zuk ez al daukazu entzuterik, lehenago, horma-zuloetan gordetzen zituztela, hamaseiko gorriak, ehuneko gorriak edo beste era bateko diruak?

–Bai, hobe ez!

–Ba, zergatik ez diogu garbikuzi apur bat egiten horma zaharroi ea ezer aurkitzen dugun! Zu hasi nahinondik, nik ekialdeko angelua arakatuko dut.

Txomin barregureak jo zuen, baina tira, inork ez gintuenez ikusten ez zion ardura, niri neuri gutxiago.

Bagenbiltzan, bakoitza geure aldetik. Nik dantzan neuzkan buru-bihotzetan hango liburu hartan leidetako berba soltuak: “Izaro-Ekialde-Hormarri-Guruzpe”.

Txominek goroldioa kentzeari eragoion bitartean, ni neu, lau hitzotatik falta zitzaidan bakarraren bila nenbilen.

Oinarriko harrietatik hasi eta gorantz einean nindoan gurutzea alde batetik eta bere azpian edo barruan horma-harrorik aurkitzen nuen bestetik. Oinarrietatik erresumara , oraingo erresumara, jakina, metro bi eta erdi lez egongo zen.

Zazpigarren hormarria ukituz batera, klok-klok berezi bat heldu zitzaidan belarrietara. Eskuz kendu nion kontuz-kontuz harri hari gaineko goroldio kortika. Behin horra ezkerro,urteetako higadura goiti-beheiti, gurutzea ikusi ahal izan nuen. Hantxe zegoen. Hura bai zela nire bihotzeko taupadotsa!

Berrien berriz hasi nintzen guruzedun harria jotzen eta berriro ere horma-harroaren seinale.

Nork pentsatuko zuen, hormaren oinarriko gorako angelu-angeluan zulo estari bat egongo zenik! Gurutzearena ez zen harritzekoa komentu eta euren klaustroetako harrietan ugari ikusten baitziren kristau ezaugarriak.

Ba, hantxe, usterik gutxieneko okeluan zegoen "guruzpe" berba horren bidea.

Aurkitua aurkituta ere, Txomini ez nion ezer esan eta hartu zintzela eta kontuz-kontuz ekin nion harri horren ertzak jaten.

Horma-harri hori ez zen handia, luzearia arra bat eta zazpi bat hatzondokoa zeukan eta zabalaria, ostera, arra bete egin-eginekora, nire neure eskukoa, jakina.

Behin ertzok jan ondoren, poztasunak barruak hartu ezinda, Txomini egin nion eupada:

-Txomin, erdu hona, eta lagun iezadazu harri hau ateratzen.

Ahotik berba askatuz batera etorri zitzaidan Txomin. Guruzedun harriari eusteko agindu nion nik neuk zintzelaz laguntzen neragoion bitartean.


Niri etorri ere ez zitzaizkidan egin, baina Txomini ere kendu zitzaizkion lehentxoagoko barregureak eta badaezpada, txapela ere kendu egin zuen bere burutik, bera eta guzti aitaren arin bat eginaz.

Atera genuen harri hori eta barruko zuloa eta zulokoa ikusi genuenean, eskuetako harri bakarra hiru zati egin zen, Txominen eta nire aurpegiak beste harri bi ziruditelako.

Egia zen Busturiko Axpeko eliz liburuko hitzen esangura misteriotsua. Hantxe zegoen zinezko kutxa enigmatikoa. Zer ote zeukan barruan?

Laster jakingo genuen. Kutxa hura, neuk bakarrik atera nuen, zuloak esku bi baino hartzen ez zituelako.

Behin kanpora ezkerre, mehatzune garbi batera eraman nuen eta kontuz-kontuz utzi zedarrri baten gainean.



Txomin, aitearenka zebilkidan. Ezin zuen ezer ulertu. Hainbeste urte izan, hainbat bider Izarora etorri, horrenbeste kontu entzun eta jakin... eta kutxa horri adi-adi, badiost ia-ia berbartu eta guzti:

-Zer ikusi behar dugun baino ez da mundu honetan! Baina, txo, zuk zelan eta nondik atera duzun baino ez da honen berri! Hara, ez iezadazu esan ere egin eta zabal dezagun kutxa hau eta jakin barruan zer dagoen!

Esan eta egin. Kutxa giltza botata zegoen eta giltza-zuloa ugerturik. Tapapeko bitartea, argizariz josita zegoen, hezetasunik pasatu ez egiteko seguruenez.

Hartu nuen zintzela eta neure eskuak dardara eta guzti eduki arren, jo eta golpean zabaltzea lortu nuen.

Inor dirutan joan izan balitz, asko poztuko zen hura ikustean eta beste era bateko zerbaiten bila joandakoa ere beste hainbeste.

Han zeuden, alde batetik, urregorritzko txanpon batzuk. Txominek atoa ezagutu zituen hamaseiko eta ehun errealeko gorriak. Beste txanpon mota batzuk ere bazeuden baina zeharo ugertuta, urdindu eta ustelduta ez esatearren.

Nik neuk, ostera, diruari berari baino harrera handiagoa egin nien diruari deusala zeuden liburu biei. Zer? eta liburuak! Non? eta Izaron!

Umeak zapata berriekin baino pozago genbiltzan biok. Txominek diruok atontzen eragoion bitartean, nik neuk liburuok arakatzeari oratu nion.

Liburu bietarik lodiena hartu nuen lehendabizi. Azalekoa ez zen ongi irakurtzen, baina barrukoak eginda, ez zegoen dudarik, Biblia zen, Vulgata, hain zuzen, S. Jeronimoren latinezko bertsioa. Fetxa eta gainetikorik ez zekarren, orriak falta zituelako. Baina esandakoaren baieztagarri, Genesis atalaren hasieran eskuz idatzita ageri ziren "S. Jeronimo eta S. Damaso-Summus Pontifex", izenok eta jakina, lehenengo Vulgata 1592an argitaratu zen. Eta eskuetakoa noizkoa zen? Seguru geroagokoa baina, dendik ere, zaharra.

Beste liburuia ere hartu nuen eskuetan. Zabaldu eta liburuia barik koarderno antzekoa zen. Kontuak eroateko koadernoia, baina ez zegoen inolako diru-konturik, ez horretarako lumerorik orrialde bakoitzeko goiko zenbakietatik aparte.

Hasierako orriak falta zituen. Agertzen zen lehenengo zenbakiak, hogeita hamazortziari ematen zion fede.

Eskuizkribua nuen eskuetan. Letra dotorez idatzia gaineko ikuskera baten. Irakurtzen ere hasi nintzen eta ene! Latinez zegoen idatzita, eskuz baina latinez eta lehenengo berbak irakurri nituenean, "In nomine Patris et filii et Spiritus Santi..." hain zuzen ere, esan nion neure buruari:

-Tira, komentatu honetako prantziskotarren baten eliz kutsuko gogo-jardunen batzuk izango dira eta era dudanean leidu eta jorratuko ditut.

Txominek bereak eta nik neure behin-behineko arakatzeak egin ondoren bazkari iski bat egitea pentsatu genuen.

Hartu genituen harri bi aulki orde eta aurrez aurre ezarri ginen. Ordu-rako goseberaturik geundenez, atera morraletik jaki sikua eta botila ardoa eta on egiteko bestean jan eta edan genuen, noizbehinka sinestu ezinaren sinestu ezinak eztarrian gosunea egin arren.

Eguerdikoa egin ondoren, bekanekotxo bat ere bota genuen zeru urdinari begira antxeta hegalarien bitartetik. Hura bai zela poztasunezko zorbioa eta edan bako hordia. Berba baten esanda, ametsa eta errealitatea biak batera zeru-lur bitartean.

Bekanekoa baino ia-ia ordubeteko siesta bota eta gero irten genuen lozorrotik eta telepatia bitarteko edo, biok geunden berdin-berdin pentsatzen. Zer? eta zer egin kutxa eta kutxako horiekin.

Ni neu hasi nintzaion Txomini berbaz lehenengo, bere txapela esku artean zuela pentsakor ikusi nuenean:

–Txomin, bizi izan dugun hau kontatzen badugu ere ez digute sinestuko eta gaurko hau sekretuan edo isilpean gorde beharko dugu, zein baten batek zorotzat bota.

–Bai, baina zer egingo dugu kutxarekin? –erantzun zidan Txominek.

–Ba, liburuak erdibana egingo ditugu. Zu zeu zara zaharrena eta zeuk aukeratu.

–Nik zertarako behar ditut ba liburuak? Eta gainera latinez badaude gutxiago oraindik. Har itzazu zuk zeuk, nik baino probetxu handiagoa aterako diezu eta.

–Eta diruekin zer, Txomin?

–Neuk baneki zer egin? Hartu eta gordeko nituzke baina egia esateko beldur natzaizu. Norberarena ez dena hartzeak ere bihotzeko zirrara ematen dit. Zuk zer diozu?

–Ba, nik neuk ere beste hainbeste. Kasu honek ipuin zahar bat dakarkit gogora, harako hura Baltzolako suge-deabruaren ipuina eta azkenean gertatu zena.

–Zein da ba kontu hori? –galdetu zidan Txominek irtenbideren bat barruntatuz edo.

–Luze samarra zaizu baina, hain ikusten zaitut egarriaz, hor doakizu han Dimako Baltzola koba-zuloan gertatutakoa:

“Negu aurretiko baten, urteko lehen elur-malutak barruntatuz batera, ardietara joan ziren Paulo eta Pello anaia biak.

Ardiak Baltzolako kobazuloaren ondoko landan zeuzkaten eta elurra loditu baino lehen etxera edo tejamanara ekarri nahi zituzten.

Han zebiltzan ardiok pilatu nahian, bateko txakurrari txistu egin, bes-teko makila jaso elurak mara-mara eragoion bitartean.

Ahalegin guztiak eginda ere, dena zen alferrik. Elurrak, goian-behean, zarratu-zarratu ekiten zion eta santiamen baten zuritu zen dena, ardiak ibili ez egiteko moduan.

Ardiei hanka meheak elurtzan sartzen zitzaizkienean, euren artileak elur-bolaz janzten ziren pisuaren pisuaz ibili ezinik utziz.

Ardiok lehorreratu nahiaren ekina begien bistan zegoen baina ezina bistatarago. Horregatik Paulok ondo beharrean badiotso Pello anaia gazteari:

–Hi, honekin elurtza honekin ezingo gaituk etxera joan, pentsatu ere ez. Orduan, horraxe, Baltzolako kobazulora eramango ditiagu ardiok harik eta lurmendu arte. Zer deritzok?

–Nik neuk ondo! –erantzun zion Pellok–. Nire aldian, ez diat sekula honelako elurtzarik ezagutu. Hik bai?

–Hobe ez! Ni neu gerrirainoko elurtza ere ezagututa nagok, hi jaioberri hintzela. Orduan, basabehiak eta zaldiak sartu nitian hortxe Baltzolako kobazulo horretan. Gaur ardiak egin beharko ditiagu, osterantzean hotzak hilgo ditik gesu baten gautu egin behar dik eta.

Halaxe egin zuten. Aidatu ardiok eta dena beharrean heldu ziren ardi eta guzti kobazulo hartara.

Behin kobazulora ezker, ardiek euren artileak astindu zituzten elur-bolak botatzeko. Jarraian etzan eta hausnar hasi ziren haitzuloaren abaroan.

Paulok eta Pellok ere euren soinekoei astinaldi bat eman eta gero, ezarri egin ziren kobazuloaren arratean.

Paulok, sua izitu zuen eta jateko apur bat atera bere zakutotik. Pellok ez zeukan soinekoa baino besterik eta esan zion:

–Hi, Paulo, zer dela eta ekarri duk hau guztiau? Jakin egin duk ala gaur gaua hemen egin behar dugula?

–Jakin ez –erantzun zion Paulok irribarreka–, baina elurrarekin kontuz, elurra zuria dela beltza duk eta badaezpada zuhur ibiltealakorik ez zegok. Nik neuk ere aitagandik ikasita zeukat eta hik heuk ere ikasiko duk nire adinera orduko.

Biak bietara, jan zuten Paulok eramandako jakia eta kontu kontetan zeuden noizbehinka sugarretan eskuak igurtziz.

Kandela bedeinkatu bat ere piztu zuen Paulok. Honek beti eramaten zuen kandelario egunean bedeinkatutako kandela bedeinkatua aldean, behar zenean izitzeko, sinesmen handikoa zen eta.

Loak noiz hartuko zeudela, Pellok suge handi bat ikusi zuen suaren ingurumaritik ardiatarantz.

Zutundu egin zen eta surtatik bertatik ilenti handi bat hartuz, suge ika-ragarri hura hiltzen joan zen.

–Zertan hoa? –itandu zion Paulok.

–Suge endemonino bat zegok hemen eta hil egin behar diat.

–Ez, Pello, ez ezak hil, hori ere Jaungoikoak egina duk eta!

–Berdin zidak, hil egin behar diat eta kito!

Esan eta egin! Pellok indar guztiaz bota zion ilenti hura sugea buruan joko zuelakotan, baina, huts egin zuen eta buruan barik buztanean jo eta buztan punta kendu.

Sugea estaldu egin zitzaion koba barruan. Txorigorri eta guztiak bota zizkion sugeari koba barruko iluntasunean, baina alferrik, sugearen gerizarik ere ez.

Gaua igaro eta eguna zabaldu zenean, Paulok joan-etorri bat egin zuen inguruetatik eta esan zion Pellori:

–Hi, egun eguzkitsua agertu duk eta egurdartean ez bada, arrastirako lurmenak agertuko dituk eta joan ahal izango gaituk astiro-astiro etxera.

Halaxe gertatu zen. Arrastian, hartu ardiok eta gau iluntzerako bake-bakean zeuden etxean ardi bat esan eta bera ere galdu barik.

Negu luzea ere joan zen eta udaberria etorri zenean, Paulori guda batera joan beharra etorri zitzaion.

Urrun joan behar izan zuen, Luyandoko Malato arbola baino askoz urrunago. Borondatez kontra baina joan egin behar.

Guda hori luzea izan eta luze egin zitzaion Paulori, baina halakoren baten akabatu zen gerra hori eta lizentziatzeko eguna ailegatu.

Gabon eguna zen. Eguerdi ostean lizentziatu zituzten gudariok. Poza eta algara ez zen falta, baina Paulok, begiak jaso eta esan zion bere buruari:

–Ni nagok ona! Gabon arrastia duk eta ez zeukat gaur etxera heltzeko modurik. Aurtengo Gabonak bidean egin beharko ditiat. Baina tira, konformatu egingo nauk, gerra honetatik bizirik irten diat eta.

Hausnarketok eginda, etxerako bidea hartu zuen Paulok. Oinez zeto-rren bakar-bakarrik eta pentsakor.

Handik lasterrera gizon ezezagun bat hurreratu zitzaion Paulori eta era honetara berba egin zion:

–Zer burutazino darabilk buruan?

–Zein erabiliko diat ba, Gabon gaua etxean egin gurarena! –erantzun zion Paulok.

–Benetan ere Gabon gaua heureekin egin nahi duk?

–Hik heuk ere ez dakik zenbat baino gurago nukkeen Gabon gaua neure etxeokokin egitea!

–Hori gura baduk, plantatu hadi apurrin nire neure lepoan eta nik neuk eramango haut airean! Baina, kontuz, kondizio batekin: hegaz goazela ez duk esango “arre deabrua” baino besterik, entzun didak?

Paulok ezin zuen ezer ulertu baina, alde batetik etxera-gogo handia zue-
nez eta bestetik gizon berezi hari ezetz esaten ausartzen ez zenez, badiotso:

–Ondo zegok, joango nauk. Baina ba al dakik hik ni nongoa naizen?

–Jakingo ez diat ba! Gogoratzen al duk, behinola, hi eta hire anaia nola
egon zineten Balzolako kobazuloan gaua egiten elurtza handi batekin eta
zelan hire anaia Pello suge hura hil guran ibili zen!

–Bai! Gogoratuko ez nauk ba!

–Ba, ikus ezak nire eskua, atzamar txikia falta diat. Hauxe duk hire
anaiak ilentiarekin kendutako buztan punta. Oraindino hire anaiarenganako
berbak ondo gogoan ditiat: “bakean uzteko sugea ere Jaungoikoak egina
dela eta”; horregatik zorrean nagok eta eramango haut Balzolako kobaraino.

Esan eta egin! Deabruak apurrin hartu zuen Paulo eta honek “arre dea-
brua” esanaz batera airean zeuden.

Gabon egun horretako iluntze aurretxoan heldu ziren Balzolako koba-
zuloaren arratera. Paulo guttiz zorabiatu zegoen eta bere konortera etorri
zenean ezin zuen sinistu ere egin Balzolan zegoenik.

Deabruak Paulori zion zorra hobeto bete guran edo, berba hauek esa-
ten hasi zitzaion:

–Hi, Paulo, hator kobazulora barrura, hor barruan zeozer zeukat bai
hiretzat eta bai hire anaia Pellorentzat.

Joan ziren biak barrura eta han kobaren sakon-sakonean artza bat bete
urregorri zeukan deabruak gordeta. Horretara badiotso:

–Eutsoz, har itzak artza eta bertako urregorri guztiak ondo eginaren
pagurako. Ostera, hire anaia Pellori eramán iezaioak gerriko gorri hau eta
esan iezaioak oraingoz libratu egin dela. Hi izan haizen kasuan Pello izan
balitzok, harenak egin zian!

Ikusiak eta entzunak entzun ondoren, Paulok, hartu deabruak emanda-
kook eta abemarietarako bere etxea jo zuen.

Ateak jo, etxean sartu eta bizitako guztia kontatu zien etxekoei. Haiek
harrিতa zeuden baina pozik.

Denak lasaitu zirenean, Paulok Pellori esku bata lepora bota eta bestean
gerriko gorria zeukala esaten dio:

–Hi, Pello, gerriko hau heuretzat eman zidak deabruak!

–Nik zertarako behar diat ba gerrikoa –erantzun zion Pellok–, lotu
iezaioak etxe aurreko intxaurrari!

Halaxe egin zuen Paulok. Baina gerrikoa intxaurrari lotuz batera, zzzzz-ziiiiisssstttt!!, sustrai eta guzti desagertu zen intxaurrondo hura lainoetan galduz.

Denak ikaratu ziren eta badaezpada, urregorri haiek ere, etxerako utzi beharrean, abadeari eramatea pentsatu zuten. Eta esaten da, urregorri haiek guztiak San Pedro parrokiako urteroko Gabon gaueko meza ordaintzeko erabili zirela”.

Txomini adorea etorri zitzaion ipuin horren azkena entzutean eta bihotz-arindurik esan zidan:

–Geuk ere beste hainbeste egin behar dugu, Mundakako elizara eroango ditugu diruok Gabon gauetako mezetarako edo ondobideko beste menesterretarako.

–Konforme –esan nion–, baina gure bion sekretuari eusteko, anonimoki eroango dugu zakutotxo baten diru guzti hau mezu idatzi bat barruan dela.

Halaxe egin genuen. Ni liburuekin geratu nintzen eta hurrengo domekan, limosna tresna baten gainean utzi genuen inortxo ere konturatu ez zela.

Orduko Mundakako abadeak, igandeetako limosna-kontuak egiten joan zenean eta urregorri haiek aurkitu, arteak ere hartu ezinik, jo kanpandorreko dei-kanpaiak eta herri osoa bildu zuen elizan eta berria eman. Denak zeuden harrituta, gehien abadea bera. Txominek eta nik ere egin genituen harridura zeinu batzuk elkarri keinu bat eginez baina han ez zen inor enteratu. Miraritzat hartu zen altxor hura. Abadeak, asko iritzita elizarako, herriko eta inguruko behartsuen artean banatzea erabaki zuen, herritar guztiek buruaz baietza baietsiz.

Gaur egun ia ahaztuta badago ere, urteetan eta urteetan berba egiten zen altxor misteriotsu hartaz.

Aurkitutako liburu bietatik, Biblia Vulgata hain zuzen, eliz biblioteka batera eraman genuen, etxe partikularrean baino publikoan etekin hobea ateratzeko asmoaz. Hau ere anonimoki egin genuen, eta biblioteka horretara zertara hartarako joan nintzen baten, hantxe zegoen, kristalezko urna baten letrero bat azpian dela, zein? eta hauxe: “Berez etorria. Eskerrik asko”.

Eta zer egin nuen beste liburu edo hobeto esanda eskuz idatzitako koa-dernoarekin galdetuko du norbaitek.

Zer egingo nuen ba, astiro-astiro irakurri eta aztertu, inora eroan baino lehen zer dakarren jakiteko.

Txomini, joan zitzaizkion ardurak eta nasai-nasai zebilen bere eguneroko txipiroi arrantzan, baina sarritan kontaktzen zidanez, txalupa zein Mun-

dakako talatik inoiz baino gehiagotan begiratzen zuen Izarora han gertatua gertatu zenetik hona.

Nik neuk ere, baneragoion neure beharlekuari koaderno hori irakurri ahala transkribatzen.

Lehenengo lerroetan eliz kutsua barruntatu nion eta orkolo-hatza bitarteko pasadizu arin bat emanez, azkeneraino jo nuen.

Koadernoaren azkenean, eta letra gabeko mehatzune baten azpian beste lerro batzuk zetozen Post Data eta Nota Bene izenpean. Hauek ere eskuz eta latinez. Latin klasiko eder baten. Letra alderditik, ez zegoen dudarik, beste batena zen, hainbat geroago idatzia. Euskarara itzuliz honela zioen:

–“Post Data: Nik, Aita Martin Hazpe Azdui abate honek, zera argitu gura dut, idatziz, kutxa baten horma-zuloratu orduko eskuizkribu hau: 1596an, Francisco Drake-ren kideak Izaroko komentu hau haustu eginik izan zuteenez, badaezpada, aurrerantzako segurtasunerako, balio handiko hauexek gordetzea ebazten da: Kristau biderako, abaterik abate etorritako S. Jeronimoren Biblia Vulgata. Beharizan tenporaletarako urregorri-diruok. Eta hirugarrenik, Bizkaiaren historiaren argitasunerako, eskuizkribu interesgarri hau, ezpabere, “verba volant, scripta manent”.

“Nota Bene: Koaderno honetako eskuizkribu hau, ez da fraideetariko inork idatzia, norbaitek ekarria baino gure Izaroko komentura. Anonimoa da. Dena dela, azkenean hauxe dakar: I.Z.+ 909 (lumero erromanoetan, jakina).”

Errubrika eder baten barruan, Aita Martin Hazpe Azdui irakur daiteke eta azpiragoan, Izaro, 1597, Martiak 25. Hatzondo bat beherago hauxe: “Ad perpetuam rei memoriam”, esaera esanguratsu hau.

Aita Martin Hazpe Azdui honen autortza irakurri nuenean, itxi egin nuen eskuetako eskuizkribudun koaderno hura eta neure buruari esan:

–Zer daukadan baino ez duk neure eskuetan? Aurkitzen dudana aurkitzen dudala, Bizkaia eta Euskal Herriaren onerako izan dadila!

Zabaldu berrien berriz koaderno zaharkitu hori eta orpoetan ar barik oratu nion berriro hasieratik eskuizkribu misterioitsu horri. Lehenengo eta behin transkribatu egin nuen, neure ordenadore portatila bitarteko. Askok kostata egin nuen transkribaketa, hizkuntzagatik baino idatziaren egoeragatik. Orri bat baino gehiago apurtu edo eta arrakaldu ere egin zitzaizkidan, ia-ia haizea zen nahiko eta horretarako. Baina, tira, ekina zer den e!

Behin transkribatuz gero, itzultzen hasi nintzen, esku-ordenadore barruan cd rom-ean neukan hiztegi etimologikoa bitarteko. Banekien erraza

ez zena izango, herriko latinean idatzirik zegoelako, erromantze nahaste eta guzti, baina aldazgora gabeko aldazbeherarik ez dagoela pentsatuz, gogatsu heldu nion horri itzultzeko beharleku horri, ahal denik eta euskal kutsurik egokienaz jantziaz.

Edozein itzultzaile onek badaki eta nik neuk ere bai, ondoen itzulita ere, zenbat eta zenbat galtzen duen testu original batek eta gehiago bulgarismoz beterik dagoenean. Era bateko edo besteko itzulpen mugak aitortuz, hona hemen eskuizkribu honen ahal denik eta itzulpen zehatzena:

“Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean, Amen. Jaungoiko guztiz ahalduna, argi ezazu nire zentzuna eta betor nire esku-lumara zure zuzentasuna egunen baten argitzeko gure etorkizuna.

Nire neure buru-bihotzetan dudan guztia nola esan baneki, zoriontsu izango nintzateke. Nondik hasi baleki batek! Baina, tira ba, nondik eta zelan baino zer kontaturi emango diot lehentasuna. Dakidan guztia biribilduz hauxe opa dizuet:

Bizkaiko Golkoa, guretzat ez eze, erbeste aldeko asko eta askorentzat ere ezaguna genuen. Leku ederrik badago munduan, bat hauxe; bestela, galdetu “mare nostrum” zeharkatuz etorritakoei, honaxe ondora, Foruara.

Bizkaiko Golkoko jendea bizitzeko lain koiu itsas-lurretan eta pozik baino ere pozago bizi zen.

Aldian-aldian, aurrepausoak ere egin behar dira eta euretarik bat argi artifiziala lortzean zegoen koska. Nola lortu?


Itsasoak zuen erantzuna. Goi-itsasoetako urak hotzak izoztu ahala, baleak hasi zitzaizkigun etortzen Bizkaiko Golkora. “Balaena Viscayensis”.

Historiako datu idatziak etorriko dira etortzekoak badira, baina, Bizkaiko Golkoan ez ziren ez lo egon.

Hasieran, txalupa txikietan joaten ziren baletan eta neke handiz harrapatu ere hainbeste tonako arrainak. Baina zuhurtasunez jokatzuz, barku handiagoak egitera alimatu ziren baletan zoliago ekiteko.

Portu bakoitzean sorosten zegoen baten bat eta balea ikusiz batera hara han hainbat portutarik harako barku elia balearen atzean, estropada zirudiela.

Behin harrapatuz gero, banaketa, sorosteagatik, arpoia botatzeagatik, laguntzarren... zertarako? olio antzeko ziha egin bale-koipeaz, eta gero, jakina, farol-argiak izitzeko.



Horrela zebiltzan gure arrantzaleak. Geroago eta barrurago sartzen zitzaizkigun itsasoan arriskuak gaindituz. Baina lehentxoago esan dudanez, kontatzen nagoen hau, ez dago idatzian oinarriturik, nik neuk ikusi eta bizita baino.

Oraintxe sartuko natzaizue gure historian. Peru umezurtza genuen Mundakako bale-arrantzan trebeena. Peruk berak ere ez zekien argi bere jatorria. Jentilen erasoren baten galdu ei zituen bereak bera jaioberria zela. Norbaitek mantendu eta hazi zuen. Behin bere sasoiria ezkerro, txalupa batekin hasi bazen ere, jadanik belaontzi-baleontzi baten jabe egina zegoen. Lur lehorrean ere ehiztari paregabea zen, Arteako ahaide zaharrei testigantza emanenez. Santimamiñetarra zirudien. Ez ote zen gero?

Egun baten, Andramari martiko egunean, kukuaren kukuotsa entzun bezain laster, hartu bere barkua, eratu tripulazioa, hornitu janari, edari eta arrantza tresneriaz eta itsasoan barrura sartu zen Amabirjinari salbea errezatu eta gero.

Nora ote zihoan gure Peru? Geroago jakingo denez, kontatu zuenak berak ere ez zekien. Nola jakingo zuen ba?

Udaberria joan zen eta Peru ez zen ageri. Uda ere eta lehen bezalaxe. Negua eta arrastorik ere ez. Perurenak egin du! –zioen jende guztiak–, zeozergatik izango zen aldi bateko esaera zahar hura: “sua, elurra eta ura, onak, baina belaunetatik gora kontuz!”.

Bizimoduak aurrera egin zuen Perurena gertatu arren, itsas aldean arrantzan eta lur lehorrean nekazaritza zein artzaintzan.

Handik urte batzuetara, bagileko S. Juanetan, Busturiako Altamiran elkartu ziren inguruko guztiak S. Juanak ospatzen.

Jai handia egiten zen. Bezpera goizean, goizeko inontzean era guztietako belar eta arbola erramatxoak hartu, pater noster bana errezatu eta gordetzen ziren urtearen barruko beharrianetarako. Aurreko urteko sobrekin S. Juan gaueko sua izitzen zen.

Gero eguzkiak irtenaz batera, S. Juan haritza hartu eta etxeetan jartzen zen, lore, soloetako frutu eta kristau ezaugarritzko gurutze bat ipiniz. Eta ohitura zitzaizun ezkontzak ere S. Juan haritzaz agertzea edo errekadu egitea. Mutilaren etxeok S. Juanetan jartzen ei zuten S. Juan haritz hori neskaren etxean eta baiezkoa bazen, neskearen etxeok S. Pedroetan mutilarenean.

Behin gaua ailegatuz gero, zelango halango zuziak hartuta labrantzalurrak inguratzen ziren oboan-oboan kantuotsean:

*“San Juan bagilean
denpora ederrean
artoak eta gariak gorde
sugeak eta sapoak erre
San Juan bezpera gaua”.*

Gaueko sua pizteko, arbola subil batzuetan agertzen den igeska sikatua eta jo-joa erabiltzen zuten, sugin ona ere ona zelako sukariaren txinpartetik sua hartzeko. Ote-egurra ere ona zitzaizun su bizia egiteko.

Sugarrak egin orduan, dena zen zantzo eta irrintzia alde batetik eta belar txarrak eta holakoak erretzea bestetik.

Azkenean, saltuak ere egiten ziren behin suak belaunetatik behera bajatuz gero. Mutiko kaskonduak edo eta mutil gaztelok zitzaizkizun saltariok. Sasoikoren bat edo beste ere bai, gorputzak erantzun arte, jakina.

Sua amatatzen zenean, errauts-iduriak hartu zaran, artza, otzara eta ota-reetan eta soloetan zabaltzen ziren aurrerantzako uztaren ongari izateko. Horrelakoxea zen batean besteango usadioa.

Hurrengo egunean, San Juan eguna bera ospatzen zeuden Altamira eta ingurukook. Elizkizun ederra ospatu zuten Lakobide agintaria aurretik zela.

Elizkizun ostean, berbarots ikaragarri bat barruntatu zuen Lekobide etxagunak eta berehala galdetu:

–Zerk izan behar du ba hainbesteko berbarotsa egoteko?

–Lekobide jauna –zioen Mundakatik abantean etorritako batek arnases-tuaz ia berbartuaz barbarik askatu ezinik–, baleki berorrek Izaro ondoko haitzean, bai, hantxe, laminak itsasbeheretan orrazten irtetzen duten leku berean zer gertatzen den?

–Zer da ba hango hori hain estu eta larri egoteko?

–Ba, aitu, jauna –zioen mundakarrak–, andrazko bat barruntatu dugu sokorru baten, hantxe, esaneko haitzean. Txalupa bat hartu eta laminen bat delakotan joan gara eta urean sartu ez denean, ikaratu egin gara eta zer egin ez dakigula buelta eman dugu eta hemen nauka berorren aurrean zer egin ez dakidala.

Lekobide, zalpurdiz abiatu zen Mundakaraino. Behin hara ezker, hartu txaluparik handiena eta bazihoan Izarorantz itsasgorak andrazko denadelako hori harrapatu baino lehen.

Bidean zihola, geroago eta biziago entzuten zituen andrazko horren alauriak eta bere ondora iritsi zenean esan zion Lekobidek:

–Zaren zaren hori, mundu honetakoa zaitugu ala bestekoa? Parte onekoa ala txarrekoa?

–Maria nauzu –erantzun zion negarrez andere hark–, urrunetik nator eta beldur naiz, lagundu mesedez!

Lekobide errukitu egin zitzaion eta kontuz-kontuz igoarazi txalupara eta Mundakako portura ekarri zuten lehenengo eta gero zalpurdian Altamirako Lekobideren beraren etxaguntzara, agintari-etxe ederrera.

Behar-beharrezko lehenengo laguntzak eman ondoren, ohean sartu zuten, ahultasun, hotzikara eta kalentura handia bitarteko ia ezertarako gauza ez dela.

Lekobide eta bere andrea biak geratu zitzaizkion lagun egiten, itzartu-keran susto-sarturik egin ez egiteko edo beste edozertarako.

Isil-isilik zeuden andra-gizonok eta halako baten amesetan hasi zitzairen Maria zeritzon hori, amesetan baina altuan.

–Baina, zer dio honek? –esaten zion andreak Lekobideri–. Nik neuk ez diot ezer ulertzen, zuk zeuk bai?

–Honek Maria honek, Izaro ondoan berba egin diodanean, euskaraz erantzun dit baina orain bere amaren titirik harako berbaikuna darabil eta oker ez banago Ingalaterra bera baino ere goragokoa zaizu, nik neuk dakidan ingelesarekin ez baitiot pitin bat baino aitzen.

Harriturik zeuden biak nor izan zitekeen jakin guran. Lekobidek, bere okotzeko bizarrak lehenengo esku bataz eta gero besteaz igurtziz, zera hausnartzen zuen bere kautan:

–Nondik etorri zaigun baino ez da emakume hau! Euskalduna ez dena argi dago. Bere itxurak du ezagun, bere ile gorrixka, aurpegi urdina, begi argiak... berba baten esanda bere fetura guztia. Eta gainera, hau bai dela iza-tekoa, nondik daki honek euskara, gure hizkuntza zaharra?

Sukarra bajatu ahala, lo-nasaian sartu zen andre misterioitsu hori. Hala eta guztiz ere, Lekobidesea bere zereginetara joan bazen ere, Lekobide han zegoen, oheari deusala, adi baino adiago, zirkinik egin barik.

Halako baten, buelterdi eman zuen andre hark eta instintiboki, eskua bota zion samatik uhal batez eskegita zeukan apaingarriari.

Lekobide ikaratu egin zen. Baina lotan jarraitzen zuela ikusirik, apaingarri sorosten hasi zitzaion.

Hatz nagian, eratzun bat zeukan, baina ez edozelangoa, urregorritzkoa eta diamantez josia. Horretara esan zion Lekobidek bere buruari:

–Eratzun hau edukitzeko, ez dugu edonor emakume hau! Baina eratzunari berari baino esku barruan hartuta daukan zerbait horri gehiago gura dio antza, ze soltatu ere ez du egiten lotan egonda ere.

Lekobidek, hain zeukan jakin-min handia, ez zeukan eperik eta argudio bidez hasi zen jokatzan.

Maria horren lozorroa aprobetxatuz, kontuz-kontuz, eratzundun eskua lastanduz, askatzea lortu zuen.

Uhal batek eusten ziolarik, hantxe zeukan belauneko errotula antzeko zerbait, alde batetik leuna eta bestetik biribiltxoagoa. Hezurrezkoa zirudien baina urteekin harrtua hobeto esateko.

Alderdi biribilean marra batzuk ikusi zituen. Hobeto aitu zionean, ene! lauburu antzerako bat ez zion ikusi ba! Iruntzitako alderdi leunera adikunea bota zionean, ai ene! gurutze bat luze-zabalean erdiz gorako aldean eta erdiz beherakoan ostera hizki bi: I.Z.!

Lekobidek, aitearen eta guztiak egin zituen eta pater noster bat errezatu ere bai, lauburu eta gurutzea ikusitakoan.

Loaldi eder bat egin eta gero, iratzartu eta bere senera etorri zen Maria zeritzon hori eta bat-batean ohean ezarri zen berriro samatik dingilizka zeukan esbastika esku barruaz oratuz eta harriturik esanaz:

–Non nago ni eta nor zaitut zu? –gaelikoz lehenengo eta euskaraz gero.

–Ni, alabatxi, Lekobide Altamirako etxagun nagusia nauzu, nasaitu zaitetz, ez estutu, zeure etxean zaude eta.

Hitzok entzutean, irribarreak irten zion andre polit eta gazte hari eta Lekobidek bere andreari deituz, janari beroa ekartzeko agindu zion.

Emakume errukarriak, jan ere ganoso egin zuen ekarri ahalako guztia. Gero ohetik jaiki ere egin zen, garbitu eta erropa garbiak jantzi ere bai, bereak ia sastuta zeuzkan eta.

Lekobide eta Maria ez zirela alkarrekin arrotz sentitzen esan zitekeen eta bata pozik bazegoen bestea ez gutxiago, horraitio.

Egunak joan egunak etorri, Maria etxeko sentitzen zen Lekobideren etxaguntzan. Altamirako inguruak ezagutu ahala, batetik Izaro, bestetik Mundaka, ibaian barrura Artea, bestaldean Foru, handik aurrerago Santimamiñe, bihotzak zerbait esan gura ziolakotan zegoen. Baina nola eta nori esan bere barru-barruko guztia?

Lekobidek ere ez zion buelta gutxiago ematen bere buruari. Bazekien berak, intuizioz bakarrik ez bazen ere, emakume hark zeozer zekarrela bere bihotzean, bere jokaera eta izakeran zuen ezagun.

San Juan jaiak ospatzeko Kalagorriko apezpikuaren ordezkoa ere Altamiran zegoen oraindik eta hari ere azaldu zion Lekobidek bere bihotzeko ez dakit zer hori.

San Pedro eguna ere jai handia zen, Mundakan batez ere. Lekobide ere han zen bere andre eta Mariarekin.

Egun ederra egiten zuen. Kukuaren azken kukuotsa ere entzun zuten, izan ere, San Pedroetan alde egiten du kukuak hurrengo Andramari martikoetara arte, eta badiotso Lekobidek:

–Maria, gustatuko litzaizuke hara zu aurkitu zintugun Izaro ondoko lamin-haitzerantz joan-etorri bat egitea?

–Bai, horixe, hobe ez!

Eta joan ziren. Biak bakarrik. Pozik, baina bakoitzak bere moropila barruan pil-pilean zuelarik.

Lekobideak, jadanik igarrita zeukan Mariak zeozer kontatu gura ziola eta azti lana eginez esan zion, hantxe, Izarotik Mundakara begira:

–Maria, nondik eta zelan guganatu zeren baino lehenago, nondikakoa duzu uhal horretatik dingilizka daukazun esbastika hori?

Mariari negarrak eman zion eta esku bata esbastikara eta bestea sabe-lera eroanez, honela erantzun zion negar-anpulua dariola:

–“Hara, Lekobide! Ernari nago, eta esbastika honetan datza haur honen aitaren nondik norakoa.

Ni neu Eskoziakoa natzaizu, hango erregearen alaba, hona hemen zigilu-eraztuna.

Ez iezadazu galdetu baina nik neuk ere badakit honen esbastika honen berri nahi zenukeela.

Ba, aditu, nire aitaren etxean nengoen arrasti hartan, han Eskozian, eta ekaitz ikaragarritzko egun baten, nire aitaren morroi bat etorri zitzaigun barku-hondatze baten berri zekarrela.

Nire aita, kargutu egin zen eta afrontu eta guzti ere, joan egin zen arrantzaleei laguntzen.

Itsasertzeko hazduira heldu zenean, han zegoen barkua haustuta haitzen kontra eta arrantzaleak igerian ohol zatiren bati oratuta.

Lehenengo lehorreratu zen arrantzalearen ohol zatian IZARO izena leitzen zen eta nire aitak ulertzen ez zuenez, berarekin etorri zenari galdetu zion, gaelikoz, jakina: “Nongotarrak zarete?”. Baina han ez zegoen beste erantzunik hauxe baino: “Ni Peru, belaontzi-baleontzi, IZARO!”

Ez zuten gure berbaikunea ezagutzen. Ez ziren lehenengoak. Gure itsasertzean sarri gertatzen ziren horrelako ezbeharrak.

Nire aita, ez nik esatearren, baina bihotz zabala zaizu eta errukituz, bere jauregira eroan zituen. Jaten eman, jantzi eta gainetiko guztiak.

Geurekin bizi ziren. Ni neu ere handik nenbilen, keinuz ulertuz besterik ez bazen.

Gure gazteluan lan egin ahala, beste barku bat egitea pentsatu zuten Peru buru zela.

Jatorra zer zen Peru! Dena zen borondatea. Bizkorretik ere pasatua. Eta nik beragandik euskara eta berak nigandik eskozesa, denpora gutxiren barruan hizkuntza bietan elkar ulertzen genuen.

Ulertu bakarrik ez, gehiago ere bai. Apurka-apurka biok biotara maitemindu ez ginen egin ba!

Peruk eta, barkua aurrera zeramaten eta begiak iparretako baleetan edo makailoetan zeuzkaten, nola ez ba, hartaraxe etorri ere egin ziren eta.

Baina hain nengoen maiteminduta, egun baten esan ere egin nion Peruri neure aitaren oniritzia jakin eta gero:

–Peru, eta ezkonduko bagina, zer?

–Bai pozik ere, baina gure arrantza proiektuari, zer?

–Hori baino ez bada –esan nion–, hemendik egin dezakezu arrantza eta gero zure kideak joango dira Bizkaira bale-olio edo makailo gatzituarekin.

Peruri zer pentsatu eman zion proposamen honek eta barku berriarekin haronako batzuk egin ondoren ezkontzekotan plantatu ginen.

Eztegurako, nire aitak eraztun eder hauxe egin zidan eta erakutsi ere egin nio Peruri. Ederra baino ere ederragoa iruditu zitzaion. Berak, Peruk, ostera, ez zeukan hauxe, samatik eskegita daukadan esbastika hau baino apaingarri bezala. Niri berdin zidan.

Ezkontza bezperako gaulendian, eguzkia sartzamendian noiz jausiko zegoela, Peruk, hara jauregiko okelu batera deitu zidan eta esan:

–Maria, ezkondu aurretik, zeuk bakar-bakarrik jakin eta gordeko duzun sekretu bat argitu behar dizut. Zein eta esbastika honen esangura. Gainera, itsasora noan guztietan, zuk zeuk gordeko didazu eta ezbeharren baten galduko banintz, orduxean eman horren berri, han, Bizkaia neure herrian, zeuk edo biongandiko landare berriren batek.

Zin egin nion bihotz-bihotzeko besarkada bat emanez eta amets gozo baten igaro nuen eztegu bezperako gau luzea pozaren pozez ia begirik itxi ere egin barik.

Eskozia osoak ospatu zuen gure ezkontza. Jende guztiak uste zuen erregearen alaba mutil arrunt eta erbesteko batekin ezkontzen zela, nire aitak ere bai, baina nik neuk ez ordea.

Peru ez zen mutil arrunt bat. Itxuraz, lerdena eta majoa, bihotzez urregorrizkoa eta odolez, Santimamiñeko arbasoen odolekoa. Azken hau neuk bakarrik nekien.

Ezkondu eta gero, elkarrekin pasatu genituen egun batzuk. Badakizu, ezkonberriak ezkonberrien kontuak eta hori guztiori.

Egunak eguna dakarrenez, Peruri itsaso handietara joateko tertzioa etorri zitzaion eta tamal handiz erdibitu behar izan genituen gure bihotzak, itsasoko haronakoa egin arte. Perurekin batera, eskoziar barku bat ere bazihoan, bideak ikasteko hain zuzen ere.

Barkura arte lagundu nion Peruri eta azken besarkada ematerakoan, Peruk, atera bere samako esbastika eta nirean jarri zuen, oraintxe daukadan lekuan.

Egunak joan, egunak etorri, eta Peru ageri ez. Ni, ostera, ernari. Aitari ere ez nion esan, ardura gehiago eman ez egiteko.

Ia egun osoak igarotzen nituen portuan Peru noiz etorriko baina kia, handik ez zetorren neurerik. Irribarrea ere galdu egin zitzaidan.

Nik ez nekien zer egin. Peru galdutzat botatzea ez nuen entzun gura, sekretua argitzerik ere ez, eta sabeleko umea? Buruhausterik badago munduan, hauxe!

Noraino joan ote da gure Peru –esaten nuen neure kautan–. Banekien Kanada, S. Lorentzo, Terranoba eta Ipar itsasoetatik ere ibilia zela, eta egia esateko horrexek ematen zidan itxaropen apur bat.

Baina, gauzak okertu egin zitzaizkidan. Handik lasterrera, Perurekin batera irtendako beste barkua, nire aitaren morroiena, portura heldu zen.



Nik neuk arnasa sakon hartu eta biriketan eutsiz zutun-zutunik itxaron nuen portu ertzean berriak entzuten hasi arte.

Jaitsi ziren gure arrantzaleak eta eurak neuri berbetan hasi baino lehen, ni neu aurreratu nintzen esanez:

–Bakarrik zatozte ala atzerik hara dator gure Peru?

–Egia esateko geuk ere ez dakigu –erantzun zidan kapitainak.

–Baina zelan ez dakizuela? –errepikatu nien.

Egia zen. Eurek ere ez zekiten azkenean zer gertatu zen. Esan zidate-nez, Kanadatik zetozen barku biak. Ordurako han zeukaten karobi antzeko labe bat bale-koipeak urtzeko eta halaxe egin zuten. Gero upeletan zekarten bale-olio preziatua behin hona ezker bitzuen artean banatzeko gure ezkontzari esker.

Baina Atlantiko erdi inguruko korronte batek eragindako ekaitz batek jo zituen eta barku biak aldenarazi.

Itsasoarekin borroka gogor bat izanda gero, erdibitu egin zela esan zidaten Peruren barkua eta ahalegin guztiak egin zituztela hurreratzen baina ezin, eurak ere jitoan zebiltzalako bela-hageak apurtuta.

Itotzen ez zutela ikusi esan zidaten baina itsaso hartako ur hotzetatik irteterik ez zegoen. Ai ama! hantxe hilgo zen segur aski gure Peru besteekin batera.

Nik ez eze, nire aitak ere gaineko disgustua hartu zuen! Nola ez ba, neu nintzen bere alabarik gazteena eta. Ordurako nire neba-arreba guztiak ezkondata eta seme-alabak hazita zeuden.

Egun txarrak pasatu nituen, Lekobide, egun oso nekosoak benetan. Dena eduki eta ia dena galdu. Hileta-elizkizunak egiteko ere ez nengoen, berba baten esanda, lurra jota!

Egunak eta egunak eroan nituen neure buruari lorra ematen eta belea beltzago ez dela egingo eta, esan nion gure aitari:

–Aita, goibel eta bihozbera nago baina dena ez dut galdu. Ernari nago, umea itxaroten. Peruren lurraldera, Bizkai aldera joango banintz, zer? Izan ere, sabelean daroadana erdia behintzat hangoa zaizu eta ondo legoke umeak bere aitaren herria ezagutzea, ezta?

–Zer diostazu, alabatxo maitea? –esan zidan aitak arduraz beterik–. Baina, nola daiteke hori Bizkaia non dagoen ere ez dakigu eta, entzutez baino besterik. Eta gainera, bizkaitarrak, nik ditudan entzuteetatik, jende indartsuak omen dira. Erromatarrek eurek ere ezin ei zuten menperatu herri hori. Eta esaten dizudan hau ez da entzuna bakarrik, irakurrita ere badaukat. Aditu arretatsu zer daukadan irakurrita, hauxe: “Zesar, erromatar agintari indartsu hura, Bizkai aldera ere hurreratu zen, han daude oraindik ere euren arrastoak, eta hainbat hiri eta gainetiko sortu arren, ezin zituen bizkaitarrak menperatu.

Egun baten, Zesarrek argudioz jokatu ei zuen bizkaitarrak menperatzeko. Eztabaida edo hobeto esanda, norgehiagoka bat ospatu zuen ehun erromatar beste ehun bizkaitarren aurka. Mundaka eta Gernika bitartean dagoen Foruan egin zuten Bizkaiko lurraldea jokoan ipiniz.

Hasi zen norgehiagoka eta hemen bat, hor bi, haragoan hiru, Zesarri ez zitzaion soldadurik arean ere geratu eta jakina, galdu egin zuen.

Zesarrek orduan, bere burua zuritzeko Erroman, bizkaitarren artetik indartsuena aukeratu eta bere delegatu batzuekin batera Erromara bidali

zuen agindu hau emanez karta-postaz: “Erromakook, nik neuk ere ezin ditut menperatu Bizkaiko gizon indartsuok. Hementxe bidaltzen dizuet euretariko bat horko indartsuenarekin neurtzeko. Hemen horrelako asko dago eta zeuok erabaki zer egin”.

Joan ziren eta ikaratuta geratu arren erromatarrak, bueltatu ere egin ziren joandako guztiak, baina oraingoan beste norgehiagoka bat Erroman egiteko ebatziz.

Zesarrek, hartu ehun bizkaitar eta Erromaratu zituen. Erromatarrak ikaratu egin ziren baina ez zuten atzera egin. Tiber ibaiko isla txikia aukeratu zuten norgehiagorako.

Bizkaitarrak iritsi ziren lehenengo eta helduz batera hartu eroandako txalupa eta apurtu-apurtu egin zuten. Fetxoria hori ikustean arbitroa edo jueza hasi zitzaien esaten:

–Zer egiten duzue, astakirtenok?

–Zer? Ba, honantzako txalupa hau ez dugu behar harantzarako. Harantz, hor erromatarrek dakartenean joango gara, ez arduratu!

Eta han ere irabazi egin ei zuten eta batzuk Bizkai aldera etorri baziren ere beste batzuk Erromako andre-Patrizioekin ezkondu omen ziren”.

Ikusten duzunez, alabatxo, begira nolakoak dituzun zure Peruren herri-tarrak. Batek baleki zer aholku eman honelako kasu baten!

Bazeneki, Lekobide, nolako buruhauste handia eman nion neure aitari baina apurka-apurka konbentzitu egin nuen.

Zer egin bazekien baina norekin eta nora ez. Baina bide bat ez bada beste bat hartuz, nire aitak bikingo ezagun bati bota zion proposamena, diru truke, jakina.

Bikingoak, Mariak emandako toki-izenak adi entzun eta gero, baietz erantzun zion baina kondizio batekin, Bizkaiko Golkoko Izarotik barrurago ez zuela egingo, lehenago ere Mundakako ibaian estukurak igarota zegoelako.

Hartan geratu ziren. Bikingo hark ezagutzen zuen Peruren herria eta gu, aita eta biok asko poztu ginen, Pandoraren kutxako azken altxorra galdu gabe.

Nire aitari bihotza apurtu aginean geratu zitzaion agurtzeko besarkatu ninduenean, baina beste alde batetik ulertzen zuen nire jokabidea, sabeleko umeari zor niolako bere aitaren etxea.

Etorri zen eguna eta bikingoaren barkua atondu eta gero, azken agurra egin baino lehen, nire aitak aurreratu egin zizkion urre-diruak bikingoari eta niri neuri ere diru partida dezente bat eman zidan larruzko zakuto baten nire

ume eta bere iloba berria mantenitzeko harik eta sasoiara etorri arte behinik behin.

Oraintxe eta oraintxe ere ezin dut kendu gogotik nire aitaren portu ertzeko geriza, negar-arpuluak behera eta eskuak gora zituela.

Bagentozen Atlantikoa behera. Itsasoa haserretzen zitzaigunean nik neuk ez nuen besterik egiten idunetik dingilizka nuen esbastikari oratu esku bat az eta sabelari besteaz. Makina bat errebesaldi eta botaka egin behar izan nuen!

Egunak luze egiten zitzaizkidan eta gauak luzeago. Gogaikarria zen itsas bidaia hura baina aurrera egin behar zen arazoak goiti-beheiti.

Biderdian, hobeto esanda, itsas erdian, pirata batzuk ere hurreratu zitzaizkigun lapur aurpegi eta guzti baina ez zuten gugandik ezer lortu gure barkuari atzerik hara jarraitzekorik ez zegoen eta.

Egunen kontaderia ere galduta neukan eta txarrena, jaki-edakiak urritu egin zitzaizkigunez bikingoa ere, ausarta eta trebea izan arren, larritzen hasita zegoen, beragatik baino neugatik, jakina.

Suerteak berez etorri behar duela esaten da eta guri ere halaxe egin zitzaigun. Gutxien uste nuenean hasi zitzaidan bikingoa esaten:

–Bizkaiko golkoa, Bizkaia!

Nik neuk, sinestu ere ezin nuen egin baina halaxe zen. Bikingoak ertzik ertz Bizkaiko itsas bazter guztia azaldu zidan eta Perugandik nekiena eta ikusten nengoena gauza berbera zen. Hura bai zela zoramen! Guztiz ahulduta nengoen, baina poza zer zen nik neure barruan nuena!

Leku politik ezagutzen nituen baina Bizkaiko lurraldea lakorik ez. Lurreratu orduko zerbait gehiago jakinguraz esan nion bikingoari:

–Ez dakizu zenbat baino gurago nukkeen Mundaka nolakoa den jakitea!

–Mundaka? –erantzun zidan bikingoak–, politetik ere pasatua. Aho-ahoan dago Izaro isla, eskoietara Bermeo eta harago Gaztelugatxe. Behin Mundakara ezkerre, ibai zoragarri bat daukazu ia Gernikaraino, Urdaibai deritzo. Baina nik Mundakaren sarrera inguruan utziko zaitut. Handik aurreragokoa egingo duzu, mundakarek ez zaituzte deslari utziko, ikusiko duzu!

Izaro isla begiztatu genuenean iluntzea zen eta bikingoak bere barkua geratu eta hurrengo goizera arte itxarotea erabaki zuen, egunez ni han uztea hobe zelako, noski.

Hurrengo goizean, goizeko lainabehera irentsi zuenean eguzkiak Izarora hurreratu ginen. Itsasbehera zen eta bikingoak Izaro eta Ogoño bitarteko haitzean utzi ninduen, hementxe, Lekobide, eta hemendixek hasi nin-

tzen alaurika, zantzoka eta irrintzaka sokorru baten, zu zeu etorri arte. Esker-
rrak etorri zinena, osterantzean?

Lekobideri bihotza putxa lez geratu zitzaion Mariaren kontuak entzutean. Begi biak zeuzkan distiratsu negar malkoei eutsi ezinik.

Egurdate osoa eman zuten biek bietara Mariak eta Lekobidek. Munda-
kako talan erromeria zen eta apurka-apurka itsasoa utzi eta hantxe ziren
eurak ere.

Bazkalordua ere etorri zen eta tripazorriak kili-kiliak egin ahala bakoi-
tzak bere bazkaria atontzeari ekin zion. Lekobidek ere esan zion bere
andreari:

–Tirauzu ba, andrea, gesu baten bazkaitordu ere badugu eta egin egin
beharko dugu, ezta?

–Bai, noizgura!

Bazkari ederra egin zuten. Gazigarri sikua baina gozoa janez eta
sagardo garrazbakoa edanez, zoruan ezarrita edo alborantz erdi etzanda.

Bahin bazkalduz gero, Izarora begira plantatu ziren eguzkiari lepoa
emanda eta gauerako utzi gabe zera esan zion Lekobidek bere andreari:

–Lekobidesa bihotzekoa, zer ikusi behar ez dugun baino ez da gure
bizitzan, baina gaur, entzunak entzunda, ebatzi hau hartzen noa, ezetzik esa-
ten ez baduzu.

Aditu, zu eta biok adinean aurrera goaz eta ez daukagu seme-alabarik.
Akordatzakoan edo ustekabeen agertu zaigu Maria baina ez bakarrik, ernari
dago eta umea dakar. Horregatik gaurtik aurrera geurekin etorriko da edo
hobeto esanda etorriko dira Altamirako etxaguntzara.

Lekobideseak ez zuen ezetzik esan. Poztu egin zen baina urak bere
bidera ekarri nahian eta une egokia barruntatuz erantzun zion Lekobideri:

–Ondo baino ere hobeto deritzat eta gaurtik aurrera alaba bat izango
dugu etxean eta laster iloba bat, baina hau kontuau jakin egin behar du
herriak berbabideak ekiditeko. Lekobide zu ez zara edonor eta gauzak ondo
eta argi egitealakorik ez dago.

Esan eta egin. Altamirara joateko itxaron gabe, Lekobidek gerrikotik
lotuta zeukan adarra hartuz adarrotsa atera zuen Mundakako talan zeudenak
adi ipiniz.

Adarrotsera denak isildu ziren. Lekobide zutundu eta pendiz batera igoz
honela hasi zitzaien berbaz:

–“Adiskideok, den-dena ezin dizuet argitu baina egunokaz zorionean gaude. Ikusten duzuenez, hementxe, neure ondoan daukat Izaro ondoan agerturiko emakumea. Ez da edozein. Urrunetik etorri zaigu eta errege baten alaba dugu. Gehiago oraindik, haurdun dago, eta andreak eta biok erabaki berri dugunez, gaurtik aurrera Altamirako etxaguntzan biziko da geurekin.”

Pozarren hartu zuen herriak berri hura eta harrera horri erantzunez, Lekobide eta Lekobiseak dantza eta guztinainokoak egin zituzten atorra zuri-dun txistularien aurrean.

Gauiluntzean abemarietako kanpaiotsarekin batera etxeratu zen jende guztia. Maria sinestu ezinik zegoen Peru gabe Perurenean bere barruko ezbaiari erantzun ezinean.

Lekobidek nasai egin zuen lo gau hartan. Gutxienekoa kontatu zuen kontatu behar zen lekuan eta gainetikoak bere barruan gorde zituen.

Maria ere etxeko egin zitzaaien eta erraz hartu zuen mendia alabaz Bizkaikoa izan ez arren.

Lekobidek inguru guztiak erakusten zizkion Mariari, oinez hurbilekoa eta zalpurdiz urrunekoa.

Udako egun eder baten, Santimamiñerako ditea hartu zuten, oraingoz, biek bakarrik zekitelako esbastika haren nondik norakoa.

Zalpurdia hartu eta bazihoazen berbaz-berbaz Urdaibai eta inguruko ikuspegi zoragarria gozatuz.

Foruara heldu zirenean, Lekobidek geratu egin zituen zaldiak eta hedeak lotu horma bateko harri bitartean inkatuta zegoen arandela baten. Gero jaitsi ziren biak eta Lekobidek esan:

–Adu, Maria! Herri honi Forua zaio bere izena. Erromatarrak hemendik ere ibili zitzaizkigun baina ez gintuzten menperatu. Zuk zeuk kontatu zenidanez, zure aitak ere honela zeukan entzunda, eta begira non, iparrean gora, Eskozian, noraino hedatzen diren berriak e!

Goazen, Maria, eliza erakutsi behar dizut erromatar inskripzio eta guzti. Bizkaian hainbat eliza eta hilerritan agertzen zaizkizu erromatarren letra-harriak. Hemen Foruan, urbedeinkatu-ontzipean, Ereñoko marmol baten, aditu zer dioen latinez: “IVILIAE SACRUM. MARCUS CAECILIUS MONTANUS PRO SALUTE FUSCI FILII SUI POSUIT. RAIUS QUINTIO FECIT”. Hor, mendiz bestaldean, Meacaur-Morga herrian beste hau: “F. SEMPRONIE CONIVGI. SUE POSUET MEMORIA CONS. CCCC.” Elorrioko Arginetakoak ere entzute handikoak ditugu.

Eta harrigarriena beste hau zaizu, gure zaharrek zer kontatzen zигun eliza-egiteak zirela eta!

–Kontatu, kontatu, Lekobide, irrikatzen naukazu eta, entzuteko.

–Ba begiratu, Maria. Hemen, Bizkaian, entzute handikoak ditugu Jentilak. Pertsonaia handiak ei ziren, erraldoiak. Hanka bata Katillotxun eta beste Atxerreko S. Pedron ipiniz, Urdaibaiko ura edaten omen zuten. Herria beldur zen euren inguruan, gaur ere oraindino batek baino gehiagok sinestu ere egiten du.

Jentilek zer zerikusi zuten eliza-egiteekin? Ba, antza, kristauek egunez egiten zuten behar guztia alferrik galtzen zuten jentilek gauez, hots, kristauek egunez eginiko hormak, apurtu eta beste leku batera eraman. Eta horrela egiten omen zuten egunero.

Baina egun baten, baten batek sorots egin zien gauez kortako leiho batetik. Jentilak konturatu egin ziren eta itaurren joan zenak esan ei zuen ba ze: “zelatan dagoenari begia galduko balitzaio!”. Eta halaxe gertatu omen zen, hurrengo egunean hango baserriko andrea tuerto aurkitu ei zuten. Harrezkero dakigu jakin ere jentilak zirela gauezko beharleku hori hartzen zutenak.

–Polita da ipuina, baina kontua izango da ezta hori, Lekobide?

–Bai, jakina, baina gure herrian horrela kontatzen dira belaunaldiz belaunaldi antzinako jazoerak, argitasun gehiago ez dagoen artean zeozter asmatu behar, ez deritzazu! Gaur hauxe kontatu dizut baina badira askoz gehiago, kontatuko dizkizut gaineko egunetan, denerako daukagu astia.

Foruako atzera-aurrerok egin eta gero, aurrera egin zuten. Lumo herri-pean, Gernikan beste geratualdi bat egin zuten. Mariak ez zeukan maleziarik baina Lekobidek Gernikako Arbolaren aurrera eraman zuen, haritz sinbolikoaren babesera eta esan txapela burutik kenduta:

–Maria, hauxe da gure Haritza, erromatarren esanetan, Arbola. Honaxe etortzen gara Bizkaiko erabaki inportanteak hartzen. Hementxe eztabaidatzen ditugu gure herri gorabehera guztiak. Gora Gernikako Arbola!

Lekobidek erreberentzia bat egin zion Haritzari txapel eta guzti aitearen bat eginez. Ipini gero txapela buruan, hartu zalpurdia eta Santimamiñerantz jo zuten.

Santimamiñera zuzenean barik, Arteatik gora aidatu zituen lekobidek bere zaldiak. Arte arterik arte arte, Ereñora heldu ziren. Ereñoko harrobiak erakutsi zizkion lehenengo Lekobidek. Maria ikaratuta geratu zen.

Harrobiak ikusi ondoren, mendian gora joan zitzaizkigun biak bietara artaperik artape.

Goiko tontorrera igo zirenean, Mariak ezin zuen bere barruko poza isilean gorde eta hauxe zioen:

–Hau bai dela zoramena! Nolako ikuspegi ederra! Ez dut honelakorik inoiz inon ikusi! Orain dakusat Peruren esanak ez zirela asmakizunak. Egia zioen gure Peruk!

–Egia da, bai, Maria –esan zion Lekobidek–. Zu hona ekarri zintuen bikingoak beldur zigula esan zizun, baina, nola ez dugu gorde, zaindu eta jagongo gure lurraldea hain ederra eta bizi-pozekoa izanda? Aditu, aditu ezazu, hor aurrean dituzu Gernika, Forua, Busturia, Altamira, Axpe, Sukarrieta, Mundaka, Izaro, Bermeo, Matxitxako, Gaztelugatxe eta Bakio.

Handiena ikusteko daukagu oraindik. Hementxe, gure oinpean dugu gure ikustekorik handiena.

–Zer da ba, Lekobide?

–Zer? Santimamiñeko kobazuloa, gure arbasoen bizileku zoragarri eta misteriotsua!

Mariak, berbok entzutean, inoiz baino gogorrago oratu zion aldetik kendu gabe zeraman esbastikari.

Jaisi ziren S. Migel zaharretik eta Ereñon zalpurdia hartuz Artea behera etorri ziren Kortezubin sartzeko.

Kortezubin, ezkerretara hartu zuten eta tipi-tapa behingo baten egin zuten Santimamiñera artekoa.

Eguerdia zen jadanik eta ezer baino lehenago kopau bat egitea pentsatu zuten arte eder baten gerizpean.

Karobi baten ondotik hartu aulki orde kare-harri bana eta ezarri ziren bazkaltzen arrastiz kobazuloa ikusten joateko.

On egiteko beste bazkaldu zutenean, mendia gora hasi ziren, Lekobide aurretik eta Maria atzerik hara.

Hazdui-artadui hartatik ibiltzea ez zen batere eroso baina ekinaren podasuz lortu zuten kobaraino ailegatzea.

Kobazuloaren atakara heldu zirenean, jarri egin ziren biak atsedenaldira bat hartuz arnasestua baretzeko.

Egotalditxo bat egin orduan, Lekobide zutundu egin zitzaion Mariari eta samurkiro esan:

–Hauxe duzu Maria Santimamiñeko koba zaharra, gure protoeuskaldunen etxea. Hementxe bizi zitzaizkigun gure arbasoak. Hemendixek hedatu ziren inguruetara. Gure zainetako odola hemengoxea dugu, Perurena ere bai, noski.

Mariak negar eta guztiak egin zituen berbok entzutean. Lekobidek besarkatu egin zuen eta bere alaba balitz bezala laztanduz esaten zion:

–Ez larritu, Maria, badakit zer darabilzun zure buru-bihotzetan, sabelean daramazunak ere zerikusia du koba honekin eta bera bitarteko zu zeu ere hemengo egiten zaitu zati handi baten behintzat. Nasai ba, zeure etxean zaude!

Bata eta bestea, biak, lasaitu zirenean, kobara barrura sartu ziren. Lehenegotan ilun zegoen baina barruan egon ahala, begietako niniak dilatitzen hasi zitzaizkien.

Kobaren sakonariak ikaratu egin zuen Maria eta hango temperatura hozkirriaren eraginez besoak igurdiz esan zion Lekobideri:

–Aizu, baina nola bizi ziren baino ez da hemen paraje honetan zuen, bueno, orain, geure aurrekoak?

–Hara, Maria, gaur, urtearen aroaren arabera, jakina, hemen barruan kanpoan baino hotz handiagoa egiten du baina gure arbasoak bizi ziren garaian, hor kanpoan hotz ere hotz egiten omen zuen eta hemen barnean ostera gaurko antzean, kanpokoarekin konparatuz, epel-epel. Paradisu bat izango zitzaien.

Lekobidek nahiko zeukan Mariaren galderei erantzuten, begi-bistan ikus zitekeen guztia erakutsiz gainera.

Erraz-erraz ikus zitezkeen era guztietako pertsona zein animalia hezurak, zoruan ostikada bat emanaz batera. Moluskoen azal harrituak ere barra-barra zapaltzen zituzten ostikopetan.

Ahal denik eta gehien erakutsi nahian, Lekobidek sua izitu zuen. Badaezpada beti eramaten zuen aldean, sukarrri pare bat eta igeska zati bat sua egiteko zein zuzia pizteko.

Arte egurren sugarretara askoz hobeto ikusten zen koba-sabela. Mariak esku biak berotu zituen lehenengo-lehenengo. Eta berak ere zerbait aurkitu nahian edo, han zebilen bazterrak arakatzen.



Halako baten, Mariak, gizon itxurako eskeleto bat aurkitu zuen erdi agerian. Burezurra eta belaunak ikusten zitzaizkion ondoen. Eta Lekobideri ezer esan baino lehen, makurtu eta belaunburuko hezur edo errotula hartu zuen eskuetan. Jarraian, samatik eskegita zeukan esbastikarekin erkatuz badiotso Lekobideri:

–Lekobide, aditu ezazu, nire esbastika eta belaun-hezur hau berdin-berdinak dira, itxuraz eta ikutukeraz, zer deritzazu?

–Ba, Maria, inskripzioak salbu, zaku bateko gariak direla esango nuke!

–Oraintxe bai, oraintxe gogoratzen dut Peruk harako egun baten esana. Esbastika honen jatorria hementxe dago. Perurentzat, Santimamiñeko koba sakratua zen eta errespetu handiz kontatzen zizkidan hemengo gorabeherak. Esbastika hau, bere aitak eman ziola esaten zidan, eta bere aitari, aititak eta hari birraititak, eta horrela honaxe jo arte.

Lekobide bera ere ikaratu egin zen. Berak ere santimamiñetartzat zeukan bere burua baina ez zuen inoiz heredatu ezaugarri berezirik. Eta orain, begira nogandik eta zelan lortu zen arbasoen testigantza. Holakorik!

Bizikera sakonegia zen edozeini kontatzeko eta Lekobidek honela berba egin zion ikaratuta zegoen Maria bere alabaordeari:

–Maria, zorionekoa zaitut, zu zeu erregearen alaba bazara, sabelean daroazun umearen aita-parteko odola ez duzu gutxiago. Dakigun hau biok bakarrik dakigu eta aurrerantzean ez diogu inori ere kontatuko destinuko

beharrizan derrigorrezkoren batek jotzen ez bagaitu. Betor bake-bakean ume hori eta hatz-begiak osorik ekar ditzala! Ni neu aurrera nauzu adinean baina zure umeagan argia dakusat etorkizunean. Pozik nago! Salbe Bizkaia. Balio Bizkaia!

Mariak ondo iritzi zion ebatziari eta berak ere aitatzat hartu zuen Lekobide, aspaldirik honako barruko moropilak askatuz zihoan neurrian.

Arrastia aurrera zihoan eta gesu baten etxerako ordua ere egin zitzaien. Lekobidek gauza gehiago ere bazeukan erakusteko baina hurrengo baterako utzi zuten. Dena den, jakitun egon zedin, zer hau esan zion:

–Maria, oraindino handiena ikusteko daukazu. Gaur ezin dugu baina beste egunen baten zeuri eta umeari bioi erakutziko dizkizuet hor barrurago, ondo-ondo gordeta dauden marrazkiak, bai, harri bizian egindako irudiak eta pinturak, ikusiko duzu!

Ilunabarrean, eguzkia sartzamendian noiz sartuko zegoela, Altamirako etxaguntzara bueltatu ziren bata baino bestea pozago, iratzarririk ametsetan.

Gau hartan Lekobideseak bakarrik egin zuen lo. Lekobide ezin zuen loak hartu etorkizuneko iluntasunean bitargi eder bat ikusten zuelako. Mariari ere beste hainbeste gertatzen zitzaion, Bizkaiko lurrean bere eta Peruren umearen etxea aurkitu zuela ikustean. Lekobideri ez zion esan baina Santimamiñeko kobazuloan zeudenean eta hango hangotasunak ikusi, sabeleko umea ostikoka barruntatu zuen, zerbait igarri balu bezala.

Giro ederrean bizi ziren Altamirako etxaguntzan. Lekobidek labrantza ederrak zeuzkan ingurumarietan. Ganadu elia ere han zebilktion landarik landa zein abaroan.

Mariak ez zuen hurbiletik ezagutzen labrantza kontua eta jakinguran zegoenez galderak egiten zizkion Lekobideri gauiluntzeetan sutondoan:

–Nola dakizun baino ez da ereitza noiz egin behar den?

–Hazeguna jakitean dago koska! –erantzun zion Lekobidek–. Hazi bakoitzak bere garai, sasoi edo tertzioa du ereiteko zein uzta biltzeko. Urtea aurrera joan ahala zeuk ikusiz ikasiko duzu hazegunaren berri. Hazien ereitza eta ernaroak direla eta, ipuinak ere sortu dira gure herri zahar honetan. Jar gaitezen supazterreko zizeiluan eta garia eta artoaren arteko elkarrizketa kontatuko dizut, aditu zer polita den!

“Behinola, seguru, gariak ez ei zeukan gauza onik bere burutxo hori altxatu beharraren altxatu beharraz eta halakoren baten nori? eta badiotso artoari:

-Hi, hemen labrantza guztitik neu nauk belarrik onena, zergatik ze, begiratu ezak, niri neuri eskerrak, jan egiten dik jan honek jendeonek.

Lehenengo, soloko belarrak udelandu, gero era den tresnarekin lurra arakatu, zokil-mokilak haustu eta dena pres-prest utzi ereitzarako.

Gero hazitarako utzitako galgarauak hartu, bota urez betetako zin batera, galgarau tximelak apartatu, beratu orduan ura kendu, karearekin nahastu eta solora.

Behin solora ezkerro, ereiten hasi orduko, azatzak ipintzen ditiztek non-dik erein jakiteko eta ba hantxe uzten naitek harik eta erne arteraino.

Erne orduan, mokil-hausteko ezin litekek aitzurrik sartu eta horregaitino txilindroiak egiten zizkidatek atzera-aurrera batzuk ahal dela itaurreko barik zein ernaroa alferrik galdu zapal-zapal eginda.

Gero ba han nagok solo gehienetan ogitarako baina beste solo batzuetan galberderako ere bai, ganaduak berdean jateko.

Maiatz ingurura ezkerro burua egiten zaidak eta bagilean, segun goizetiko edo belukoa, helduz noak.

Heldu orduan ebaki egiten naitek udako bero-beroan; batzuetan igitaiak eta beste batzuetan kodainaz.

Gero zoruan, galondon, zabal-zabal egin eta solo arloa ebaki akabatu egin orduan sartu uretan aurreko urtean jotako galtzupolla batzuk beratzeko eta eurekin egiten ditiztek estukinak eta eskutak egiten hasi eskuz jotzeko bada, eta txibitaz jo eta garandu edo zaldien ostikopetan egitekoa bada karga handiagoak, besartea betekoak.

Behin eskutak egin orduan mutxurioak egiten hasten zaizkidak buruak gorantz direla eta handik lasterrera edo igual hurrengo egunean metatu egiten naitek.

Abuztu Andra Mari aurretik ahal dela, holako egun bero baten, kanikularekin, zabaldu berriro gari-metok eta gari-jotzen hasten zaizkidak eskutok garantzeko.

Horretarako, eskuz denean, hartzen ditiztek harrilosak eta azpian tronko, mokor edo beste harri bat dela aurbeheran ipintzen ditiztek eta gero gari-jotzen, batzuk akarreoan eta beste batzuk jotzen, sasoi oneko gizonak. Ganaduekin ostera larrainean garantzen zidatek.

Gariok jo orduan, artzaz airean edo galbaheaz garbitu egiten naitek. Gero zer? Ba, galgaraua, anegaka zakueta, galtzua edo ahotza kamara edo tejamanara, galautsa kortara ganaduei azpiak egiteko eta galondon lurra betean deslai lotu diren galburuak oiloentzat.

Eta orain zetorrek onena, anega gari horiekin, urterako ogia egiten zidatek. Hartu zorroka eta errotara eroan. Han eho eta eralgi. Irin eralgibikoaz ogiak egin eta baten eralgiz tremesa, hots, zahi eta guztizkoa. Eta ogiak, ez bat, askoz gehiago. Azpiran zabaldu gari irina, bota gatzura eta lebadura, igurdi ondo, zatiak egin eta utzi ondo jagiten, jagi bi badira hobeto. Gero horrekin egin ogi nagusiak asterako, edo pamitxak, edo paskoetan morrokotak zein mokotsak, edo momenturako talo jagiak. Hau guztiau labean. Otekin berotu labea eta tenplea hartu orduan barrura ogiok.

Artoak ezin zuen aguantatu gehiago eta berak ere bere burua gutxiagoztzat ez zeukanez badiotso:

Hi, hik hau eta hori eta bestea diok, baina ni nagoen lekuan ere ez zegok goserik e! Eta ezpabere begiratu ezak ea labesuan hire aurretik nor doan labera barrura, neu, eta gainera neuk tenplätzen diat gainera hiri labea eta ondo gozo jaten naitek urdai errearekin eta gauetan artozopan, eta. . . Eta ez hori bakarrik, hire galtzua zein ahotza latzak dituk biak ere eta galautsa zertan esanik ere ez, baina nire garbea eta kanila berdetan ganoso jaten ditik ganaduak eta heldu orduan artaburuak, zuritu eta kapaxa haiekin zenbat gauza, batetik gozo-gozo jan eta bestetik, finenekin a zelango lastamarak egiten dituzten gero lo egiteko, zer pentsatzen duk ba?

Nik neuk ere gaineko burua zeukat, eta nire buru ederrekin jaten hasi baino lehen labigerra egiten zidatek eta gero eroan errotara irin ona ateratzeko. Errotaria ere zuhur egoten zuan eta nire labigerreko arto-irinetik hire gari-irinetik baino pitantza handiagoa gordetzen zian beretzat eho alde.

Gero gaineko arto, opil, talo eta morokil gozoak egiten zizkidatek ni neurekin, zer pentsatzen duk ba?

Eta gainera oilo eta txerrientzat ere banauk jakia, eta gero a zelako arrautza eta txerriki gozoak jaten dituzten.

Eta, ba, pasatu zituzten diskutiok, ezbaiok eta trebituok eta beste egun baten artoa gainetu ei zizaion gariari eta esan:

–Hik hau eta hori eta bestea baina ni neu hi baino handiagoa eta buru hobeagokoa nauk, hi nire ondoan merro, txankerre, kokoterre bat baino ez haiz!

–Hi, entzun iezadak –erantzun zion gariak–, txikia eta merroa naizela zein ez naizela, baina maiatzean buru izaten nauk eta niretzat neuretzat galtzua edo ahotza baino buru ona edukitzea duk lehenengo, eta hori banauk, eta hire lasto lerdan eta kankailoak ez zidak ikararik egiten. Horraitino, esan ere egitea hori ganorabakokeriaori!

Horrela bukatu ei ziren bien arteko baliotasunak eta harrezkero garia zemendian ereiten da, orri erortzean, eta artoa udaberrian, orri irtetean”.

–Polita zer izan da! –esan zion Mariak.

–Ba, horrelako asko daukagu gure herrian eta beste gauiluntzeren baten gehiago kontatuko dizkizut gero zeuk zeure umeari ere kontatu ahal izateko belaunaldi ohiturari jarraituz.

Maria Eskoziakoa, etxeko eginda zegoen Lekobiderenean. Nahiera guztiak egiten zizkieten Lekobide eta bere andreak.

Ernarialdia aurrera joan ahala, Lekobidesea batez ere, arduratzen hasita zegoen. Alde batetik, ume erropa, sehaska eta gainetikoekin baina benetako ardura begizkoa zen, begizkoa etorri ez egiteko neurriak hartzea.

Horregatik Lekobideseak bere amak emandako lasiertuna-harriak aurkitzeko etxea arakatzen hasi zen. Kostatu egin zitzaion aurkitzea, eta ez gutxi, izan ere, bera antzua zenez ez zituen behar ezertarako. Baina orain Maria-ren sein berriarentzat ondo baino hobeto zetozkion.

Lasiertuna-harriak pareta izaten ziren, haritz-ekur handiak bezalakoak eta idunetik eskegitzen ziren titi bitartera arteko luzearian.

Maria ere ohartu zen harriokin eta berak beti aldean zeraman bezalako esbastikaren bat zelakotan esan zion Lekobideseari:

–Zer dituzu ba harriok, eta zertarako?

–Hauek, lasiertuna-harriak, alabatxi, zure sabeleko seinari begizkorik inork bota ez diezaion. Eta gehiago itxaron barik ipini egingo dizkizut zein begizkoak jo ez dezan gure umea, bueno, zurea baina geurea.

–Baina, zer duzu ba begizkoa? –galdetzen zion arduraz Mariak.

–Begizkoa? Hara, alabatxua, hori ez zaizu besterik, mantzinen baten bekaizkeriaren ondoriozko ezbehar bat baino. Andrazkoa zein gizonezkoarena izan daiteke. Horregatik, inori kalterik egin gabe ere egoten dira inbidiadunak eta zertan esanik ere ez ernalditik bateora artean norberak aurkituz gero. Neurriak denboraz hartu behar izaten dira, ezpabere gero berandu izaten da herri-aztiak erremedio bila ibili arren.

Ardura hau norainokoa den jakin dezazun, kontatu egingo dizut urlu lekutako ume bati zer gertatu zitzaion:

“Behin baten ume bat jaio zen Kortezubin, Santimamiñepean, eta negar eta negar baino ez zuen egiten. Han zebiltzan kurandera eta barberuak negarrok argitu guran baina alferrik. Azkenean herri-aztiagana jo zuten ea begizkorik daukan jakiteko. Etorri egin zitzairen Axpeko herri-azti famatua. Umea

zegoen kumara hurreratu zen eta sentzain zegoenari handik kentzeko agindu zion. Ondo-ondo aditu zion seinari eta esan zuen:

–Honek umeonek begizkoa dauka!

Serio-serio esan ere egin zituen berbok eta denak utziz ikaraturik. Herri-aztia itxura bereziko andrazkoa zitzaizun. Soinekoak beltzak, moñoa puntaz beterik, betileak harro-harro, aurpegia zimurraren zimurrez zorribideak eginda, eskuak lurbela bezalakoak eta atzazalak luzeak azpitik kortika eginda.

Fetura horretako andrazko horrek hartu umea sehaskatik eta hortz arte-tik inork ulertu ez egiteko berba batzuk esan eta gero, zoruan utzi zuen eta etxeko nagusiari agindu:

–Ipin ezazu surtan sarten bat eta ekarri barreñu edo kaiku bat haitz-urez beteta!

Esana egin zioten, agudo egin ere gainera. Gero herri-aztiak, gona magalpetatik berun apur bat atera eta surtako sartenera bota zuen. Behin sartenera ezker, berun hura urtu egin zen. Urtu zenean, herri-aztiak hartu sarteneko hori eta kaikuko urera bota zuen lurrun-laino handi bat ateraz. Keak joan zirenean oboan-oboan zerabilen kaikua eta beruna berriz solidotu zenean, ura bota eta hango figurak interpretatzen hasi zen. Batetik begiratu, bestetik ukitu, urruma batzuk egin eta gero badio:

–Begizko hau andrazko batena duzue, eta begizko hau uxatzeko zera egin behar duzue lehenbailehen: Ume honen sehaskako lastamarraga eta oilalumaz egindako armuda erre baina kontuz! ez edozein ordutan ez eta lekutan, beste herri bateko elizako eguerdiko hamabiak entzuten diren bitartean eta etxetik hurbilen dagoen bidekurtzean baino.

Esan eta egin. Hurrengo egunean, Arteako hamabietako kanpaiotsa entzun zutenean, orduxean erre zituzten arto-kapaxaz egindako lastamarraga eta oilalumazko bururako armuda.

Eginak eginda ere, ume hura hil egin zitzaien. Beste gaixoren bat izango zuen segur aski baina begizkoak jota hil zela esaten zuen mundu guztiak”.

–Baina hori ezin daikeke horrela izan –esaten zion Mariak–, hori sorginkeria baino besterik ez duzu, aitearen eta semearen...!

–Sorginkeria? Baliteke, Maria bihotzekoa, baina badaezpada zuk eroan lasiertuna-harriak aldean eta ez probokatu inor harik eta umea bataiatu arte, eta gero ere kontuz! Ezbeharrak etorri egiten dira gero! Guk jarrai dezagun etxaguntzako betiko ohitura eta sorginkerietarako ez ahaztu esaera zaharra:

“sorginak, direnik ez da sinestu behar baina badaezpada ez direnik ez da esan behar”.

Maria Eskoziakoari txokatu egiten zion honelako ohituretan sinesteak baina zetorkion umeagan pentsatuz, onartuz joan zen Bizkaiko usadioak, batzuek barregurea eta guztia eman arren.

Egunak joan egunak etorri, garizuman ere sartu ziren Altamirakoak eta Lekobidegandik hasita, bulda eta guzti egon arren, zintzo-zintzo betetzen zituzten barikuetako haragi uzteak eta barauak.

Aste Santuz misioak egiteko ohitura zuten eta Lekobidek ohiturari jarraituz, Kalagurriko abade bat ekarri zuen gogo-jardunak egiteko.

Mundu guztia joaten zen elizkizunetara. Domeka eta jaiegunetan arimarik ere ez zen elizara barik geratzen. Nola ba? Abadeak, bekatu astunaren beldurpean hezten zuen herria eta.

Gogo-jardunetako abadeak, ebanjelioetan bezala, ipuinak erabiltzen zituen herritarrek errezago ulertzeko.

Igandeko mezari garrantzia emateko ipuin ikaragarri bat kontatzen hasi zitzairen Kalagurriko misiolaria:

“Orain dela urte asko, ehiztari edo kazari itzala zen abade bat ei zegoen hemen Gorbeia ingurumarietan.

Egun baten, domekaz gainera, kasan ibili zitzaigun bere basurde-txakur-ekin goizeko inontzean. Sotana-magalak ere busti-busti eginda zebilen, umore txarrean, basurdea nondik dabilen ere ikusten ez zuela.

Etorri zitzaion meza emateko ordua eta joan ere bai bere zereginera erropak mudatzeko asti barik.

Egun horretako meza, dena zen laprastada, latineko otoitzok erdi-esanean eta inoiz ez letxe barruntatzen zen abade hori.

Sermoia ere inoiz baino garratzagoa bota zuen eta kantatu ere erdi urrumaka, ganaduen damorroa zirudiela, ganora handi barik, abade fetura eskasarekin.

Mezerdian, zer? eta ez ditu entzuten ba bere txakurrak “i, au, i, au”, basurde baten atzean, han elizpeko harizduian!

Ene, bada! Abade hori arteak ere ezin zuen hartu eta birritan pentsatu barik, utzi meza bertan behera eta basurdearen atzetik joan ei zen basurde-txakur eta arku-geziak lepotik botata.

Abade hori ez ei zen gehiago agertu eta kondenatu zelazkoa daukat entzunda txakur eta guzti.

Herritar guztiak ikaratu egin ziren eta harrezkero, batez ere ekaitza denean eta, entzun egiten ei dira abade-txakurrok mendi batetik bestera pasatzen, “i, au, i, au, i, au”, hots baten.

Abade-txakurrok direla eta, egun baten, hor, Gorbeaipean, zerrariak ei zeuden trontzekin gaztaina-oholak ebakitzen habe-subil lodietarik.. Euren arteko baten batek ez zuen holako kontuetan sinesten eta egun baten esan zioten lagunek:

–Ezetz ekarri urli lekutako iturritik iturriko ura gaulendiko abemariak jo eta gero!

–Baietz! Zenbat postura!

Eta joan zen gizon hori. Baina iturrira ailegatu zenean heltzen diote abade-txakurrok kaderetatik eta zeretik eta... eta mutil hori, beldursartua eginda, ur barik eta belarriak arteztuta non datorkien bueltan!

Gero ba denborak joan denborak etorri, beste gaueko arima askori bezala, abade hari ere etorri zitzaion penitentzia betatzeko ordua.

Oraintxe egiten gabiltzan bezalako misio batzuetan, bazegoen elizazti-kua ez zen gizon bat paskoazkoaz bete guran eta joan egiten ei zen elizara baina jende asko aurkitzen zuen konfesionario ondoan txanda jagoten.

Halako baten, zer hau bururatu zitzaion, gaua elizan egitea hurrengo egunean lehenengo izateko misiolariarekin autortza egiten.

Halantxe egin zuen egin ere. Korura joan zen sakristauak elizako atea itxikeran ikusi ez egiteko. Gaua heldu zen, sakristauak atea itxi eta han geratu zen gizon hori ilunetan eliza hutsik eta hotzik zegoela.

Kostatu zitzaion, baina halakoren baten loak ere hartu zuen. Handik lasterrera, zer? eta karraaask! elizako atea zabaldu egin ziren.

Gizona buruko ileak ere arteztuta eta gorputzean pipiladura eta guzti geratu zitzaigun zerk izan behar ete duen pentsatuz.

Gaueko iluntasunean koruko gizon horrek ez zuen ezer ikusten, baina pausotsa asmatu bai oster.

Halako baten argiak izitu ziren eta ene! Abade bat, ezezaguna, zahar-zaharra, itxura txarrekoa!

Abade hori, sartu zen sakristinian, meza erropak jantzi eta aldarera etorri zen meza emateko tresna guztiekin.

Behin aldarera ezker, alde guztietara begiratu zuen eta inor ere ez zegoela ikustean, hartu berriro meza esateko tresnok eta sakristinian sartu zen.

Irten sakristiatik, argiak amatatu eta elizako atea osterera ere itxiz, alde egin zuen abade denadelako horrek.

Gure koruko gizona dar-dar zegoen seguru koru bazterrean. Gehiago ez zuen lorik egin. Bateko eliztorreko erlojuaren kanpaiotsa, besteko saguzarren hegazkadak, haragoko mozoloen uuuuekin, baina batez ere ezin lorik egin zuen ikusitakoa ulertu ezinik.

Eguna argitu zuenean, sakristaua eta misiolaria biak sartu ziren elizan eta ordurako itxaroten zegoen gizon hura misiolariarekin konfesatzeko.

Misiolaria, ikaratu egin zen gizon hura hain tertzioz ikusteaz eta beste ezer baino lehenago itandu zion:

–Zelan ba inor baino lehenago paraje honetan?

–Ba, jauna –erantzun zion gizon hark–, bart hemen egin dut lo, hor koru bazterrean gaur berorrekin konfesatzeko lehenengo izateko, baina sustatu egin naiz hauxe eta hauxe, honantxe eta honantxe pasatu delako –eta ikusitako guztia kontatu zion misiolariari.

Misiolaria bera ere ikaratu egin zen eta jazotakoa amets hutsa ala egia zen jakin guran badiotso gizon hari:

–Gaur gauez geratuko zinateke berriro koruan lo egiten?

–Bakarrik ez –erantzun zion atoan gizonak.

–Eta biok biotara bai?

–Ba, berorrek gura badu ni neu prest nauka!

Gaua heldu zenean, misiolaria eta gizon hura koruko estarian ostendu ziren eta konfesatzeko ez eze beste berriketa asko egiteko ere astia eduki zuten.

Behin gauerdira ezker, zer? eta karrrrrraaask! elizako atea zabaldu zen. Korukook isilik zeuden, sorots egiten, eta argiak izitukeran abade zahar hura ikusi zutenean badiotso misiolariari:

–Aita Anastasio, aikor atzoko abade zahar hura, ikusi egiten du ikusi berorrek?

–Bai, ikusiko ez diat ba! Holakorik!

Gauerdiko abade zahar hori, sakristinian sartu zen eta aurreko gauean lez, jantzi meza emateko erropok eta tresnok hartuta non datorren aldarera!

Misiolariak fetxoria hori ikustean, orpoetan ar barik bajatu koruko eskailera kiribilak, joan aldarera eta esan zion denadelako abade hari:

–Mutil, zerk hakar hi hona aldare honetara tertzio honetan?

–Ba, begira –erantzun zion–, ni ehiztari edo kazari ona ninduan eta behin baten meza ematen egonik, mezerdian hartu nian nire txakurrek jasotako basurdea hiltzen joateko erabakia eta jakina, kondematuta geratu ninduan harik eta meza hura eman arte. Bostehun urte egon nauk gauero hona aldarera etortzen baina meza erasoteko inor aurkitu ez eta, berrien berriz joan behar izaten izan diat kanpora beste gaueko arima erranteak bezala hortik zehar ibiltzeko alauriotsean.

–Hori baino ez baduk, eman ezak meza hori neuk erasota eta joan hadi bake-bakean Jaungoikoaren legean!

Eman zuen erdi-emanean utzitako meza hori eta bere penitentzia betatu zuela ikusirik esan zion misiolariari:

–Eskerrik asko zeruko atea zabaltzeagatik, gauzak ondo egitealakorik ez zegok munduan, agur, ongileak izan eta zahar on egin zaitezela!

Azken agurra egitean, eskua luzatu zion abade zahar hark eta Aita Anastasiok berak ere beste hainbeste baina eskoiko eskua lino-zapi batez inguraturik. Eskerrak hori egin ziona! Eskua eman eta gero, zeruratu zen abadeak bere bost hatzen erre-markak utzi zizkion lino-zapian”.

Altamiratarrak ikaratuta geratu ziren eta gaueko arimen kontuok zirela eta, derrigorrezkoren bat izan ezean, iluntzeko abemariatatik aurrera, ez zen inor kanpotik ikusten, badaezpada ere!

Mariak ere zintzo-zintzo egin zituen Aste Santuko gogo-jardunak. Eskozian ere egiten zituen, ez hemengo antzera baina egiten zituen.

Aste Santu barruan ere bai, baina Bazko bezperako gauean erditze sintomak sentitu zituenez atinik igaro zuen gauaroa. Lekobideseak ere zeozer barruntatu zuen eta Bazko goizean Mariaren deiadarra entzun bezain laster, zuzian joan zitzaion eta esan:

–Zer, Maria?

–Bart ez dut lorik egin eta sabela lehertu beharrean daukat.

–Horiek erditze-minak dituzu, Maria, oraintxe bertan bidaliko dut Lekobide emaginetan.

Lekobideseak erditzeko antolamenduak prestatu orduko, han zeukan Lekobidek emagina, inizitua baino ere arinago egin zuen Lekobidek haronakoa.

Jaio zen. Mutiko ederra, larrua urdin-zurixka, begiak argiak, bizi-bizia, lehenengo ikuskeran amatarakoa, berba baten esanda, hatz-begiak ondo zekartzana.

Egun aproposa zen jaiotzeko zein bataiatzeko. Aitabitxi-amabitxiak aurkitzea ez zen gauza gatxa, Lekobide eta Lekobidesea, jakina.

Baina izena, zein? Lekobidek Mariari eskatu zion izena jartzeko. Berea zuen semea eta ez zion eskubide hori kendu nahi.

Jaioberriaren amak ez zekien gauza handirik izen kontuetan baina aspaldirik zeukan asmoa azaldu zion Lekobideri esanez:

–Hara, Lekobide, Peru nire gizonak ere parte hartu behar du gure semearen izen-jartzean eta berak hain estimatu zeukan esbastika honetan "IZ" ageri denez, ez daukazu hizkiok barne diren izenik?

–IZAR! bai, horixe IZAR! -eragoion esaten Lekobidek leihotik zerura adi.

–Gustatzen zait –erantzun zion Mariak–, Izar, polita izatez eta esatez! Peru balego hemen egun hau ikusteko!

Lekobidesea bataiatu baino lehen hasi zitzaion Izar deika bataiorako garbitu eta janzen zuen bitartean. Han Zebilen, Izar hau, Izarri hori, Izarrentzat bestea, magalotsean etxaguntza guztitik pozaren pozez arteak ere hartu ezinik.

Lekobidek zalpurdia inoiz baino hobeto apaindu zuen. Maria emagina- rekin geratu zen etxean beste hirurak elizara zihoazen bitartean.

Laster zabaldu zen Altamira eta inguruetan jaioberriarena eta bataio- kanpetara herri osoa jabetu zen.

Abade misiolaria ere han zegoen Bazko-meza aurretik bataiatzeko itxa- roten. Lekobide ere iritsi zen bere zalpurdian eta umea besartean dela, aba- deagana hurreratu zen inguruko herritarren eupada eta txaloartean.

Bataiatu zuten eta elizan sartu Izar kristau berria. Aitabitxi-amabitxiek egin zituzten euren promesak amaren falta baten kristau-bidean hezteko bataiatuberria.

Lekobidek ez zuen bere aldian Bazko egun pozgarriagorik ezagutu. Bataioa lehenengo eta Bazko-mezatan bazkoazkoaz bete ondoren, ospaki- zun berezi bat egin zuen Altamira osoan. Urteko zezinetarako zeuzkan zekor eta bigantzarik ederrenak hil eta jan egin zituen herritarrez inguratuta. Egun handia benetan, izatez eta ospatzez.

Egun batzuk pasatu eta Mariari seme-libratzearen ondorioetatik saneatu zenean esan zion Lekobideseak:

–Maria, zuk ezin zenuen gure Izarren bataioa ospatu baina saneatu zare- nez gero, ermakariak ospatu behar ditugu Altamirako andre guztien artean eta gainera zera, ken zenitzake lasiertuna-harriok, behin semea bateatuz gero ez duzu eta begizkoaren beldurrik zertan izan.

Egun ederra igaro zuten ermakarietan, berriketa ez zen falta baina tira, bihotzez onartu zuten etxaguntzako sein berria.

Ermakariak ospatu bitartean, Lekobide utzi zuten sentzain eta arlo horretarako lotsorra izan arren, abestu eta guztiak egin zizkion Izar ume-txoari. Abestu, ez kanta bat, lo-arrazorakoetatik hasi eta San Martinen hamabi egiak kantatu arterainokoak.

San Martinen hamabi egiak direla eta esaten ei zuten, antzina, hauek barregarri antzak ez zirela gauza onak ere eta batzuetan abadearen esana egin barik maldizinoka ere hasten zirela, berba motzak esan ahal ez direla ere, maldizinotsean. .

Eta baten, seguru, hor ez dakit ba nork ere arima ofrezidu ei zion dea-bruari galondo beharrak egitearren baina damutu egin ei zen eta horrez gainera Samartinen hamabi egiak esan behar izan zituen bere arima salbatuko bazen. Honela hasi ei zen:

“Samartin esan ezak bat

Gure Jauna bera duk bat berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak bi

Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak hiru

Hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak lau

Lau ebangelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak bost

Jesukristoren bost llagak bost, lau ebanjelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak sei

Sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebanjelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak zazpi

Zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebanjelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak zortzi

Zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebanjelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak bederatzi

Bederatzi ordenamentuak, zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebanjelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak hamar

Hamar mandamentuak, bederatzi ordenamentuak, zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebanjelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak hamaika

Hamaika mila angeruak, hamar mandamentuak, bederatzi ordenamentuak, zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebanjelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak hamabi

Hamabi apostoluak, hamaika mila angeruak, hamar mandamentuak, bederatzi ordenamentuak, zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebanjelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak hamahiru

Ez zegok hamahiru, oilarrak jotzen dik munduan, angerutxoak zeruan!

Dena zen poza Altamirako etxaguntzan. Denak zeuden Izar umeari adi, nork hobeto esango. Mariak, lehenengotan, gaelikoz kantatzen bazizkion ere laster ikasi zituen Lekobidegandiko euskal abestiak.

Abesti asko eta asko ikasi zituen Mariak baina bere semeari euskaraz lehenengo abestu ziona hauxe izan zen:

*Obabatxua lo ta lo
zuk orain eta nik gero
zeuk gura dozun orduren baten*

biok egingo dogu lo.

*Obabatxua lo ta lo
zuk orain eta guk gero
mutil handia haziko zara
loloak egin ezkeru.*

*Obabatxua txingorin gorri
ez egin lorik basoan
azagariak jan ez zagizan
bildotsa zaralakoan.*

Benetan ere, giro ederrean hazi zuten Izar umea. Izarren haurtzaroko egunak zoragarriak baziren, gauiluntzeak ez ziren gutxiago.

Urterako oinez ere ikasi zuen Izarrek. Osasuntsua zen. Elgorririk ere ez zitzaion etorri eta bere hazkaia inorena ez lakoa zen.

Berbara ere laster etorri zen. Hasieran nahaste apur bat ere bazekarren bere berbaikunan, Mariak, jakina, gaelikoz ere egiten zion eta.

Dena den, euskara zuen nagusi. Lekobidek makina bat kontu-konteta egiten zuen gauiluntzeetan supazterrean. Errezatzen ere irakatsi zion, izan ere, Lekobide sinesmen handikoa zen eta.

Lekobide umetuta zegoen eta inon diren dantza, jolas eta itzulimurdiak egiten zizkion Izar umeari pozik edukitzeko. Nekatzen zenean, jarri sutondoan eta Lekobidek "atxea-motxea"-ka emanarazten zion denbora. Izarrek behingo baten ikasi zuen jolas horren abestia:

*"Atxea motxea konilipan
zeure semea errotan
errota txikerra klin-klan
Katalina bentan, korrentan
tipirripiton, Mrtin zapaton
kainabera tronpeta
lau kirikon.
Txirripi-txarrapa...
Txaust!
Pispit ala koskot?"*

*Atxea-motxea konilipan
zeure semea errotan,
joan nintzan basora
topa neuan erbi bat
jaurtin neutsan barri bat
atera neutsan ezkerreko
begi gorri handi bat,
zelemina kanpa...
txaust!
Pispit ala koskot?*

Urteak aurrera zihoazen eta Lekobidek eskolak eta guztiak eman zizkion Izar ume kaskonduari. Egotez ez zegoen eskolarik, urli komentuko abade jakituna izan zen Izarren irakaslea. Latin, greko eta gaisetikoak irakatsi zizkion.

Egun baten, iluntzetako sutondo egotaldi baten, Izarrek ezin zuen bere poza barruan eduki eta esan zion Lekobideri:

–Ba al dakizu gaur zer kontatu didan abade maisuak?

–Zeuk esango duzu –erantzun zion Lekobidek irribarrez.

–Ba, Tartaroren ipuina kontatu dit, bai, harena, Greziako Ulises-en garaiko jentil begibakarrarena, eta zuk zeuk ere badakizkizula holako kontuak esan dit, egia al da aitita Lekobide?

–Bai, halaxe da, Izar maitea, zenbat gura eta harexenbeste dakitsudaz. Baina hemengo jentilak edo basajaunak ez zaizkizu berdinak, baina tira, begietan ez bada ere, beste gauza askotan badute antzekotasuna. Aditu, kontatu egingo dizut neure aititari entzuniko Perutxu eta jentilaren arteko ezbaia:

“Perutxu, hiru anaietarik txikiena baina bizkorrena zen. Gorbeia inguruko baserri baten bizi zitzaizkigun hiru anaiok guraso zaharrekin eta ez eduki gorrian.

Bizimoduari eusteko zeozer egin behar zela eta, beharra topatzen hasi ziren zaharrenarengandik hasita.

Han, mendian, jentil bat bizi ei zen. Txerri-pastorea bera. Eta harexegana kridu edo morroi joatea pentsatu zuten txerrikuma batzuen truke edo.

Lehenengo, anaia zaharrena joan zen eta jentil haregana heldu zenean esan zion:

-Hi, jentiltzar, hemen natorrek kridu!

-Nigana? ja-ja-ja!

-Bai, higana heugana, zer ba?

-Zer ba, diostak? Hik ez duk balio honako!

-Ezetz? Hori ikusiko diagu!

Jentilak, bera goitibeiti mutila ez zela atxantetan ikusirik, aginduak ematen hasi zitzaion esanez:

-Hemen ez diat gura haserterik gero! Jakin ezak ondo nire legea: lehengo haserretzen denari larru zati bat kenduko zaiok, nik neuk heuri edo hik heuk neuri, entzun didak?

-Bai!

-Orduan, hartu makila eta joan hadi txerriak jagoten ezkur asko dagoen lekuren batera, aurten ezkur-urtea diagu eta!

Joan zen mutil hori eta eguna harizperik harizpe eman orduan, jentilaren kortara etorri zen afaldu eta lo egiteko.

Ordurako, jentilak jaki apur bat zeukan ipinita eta biek bietara jateko plantatu zirenean, badiotso jentilak:

-Nire legea ahaztu barik, jan ezak lapikoko hau lapikoari tapa kendu barik!

-Zelan jango diat ba horrela, kankailu arraio hori?

-A!, haserretu egin haizenez, rast! larru zati bat!

Oraindino aieneka zegoela badiotso berrien berriz kriduari:

-Ardoz beteko zahagi hau ikusten duk? Ba, edan ezak ardo gozoa zahagiari estukinik soltatu barik!

-Lehengoaz gainera, hau ere bai? Ez horixe! Ni neu banoak hemendik paraje honetatik eta hago bakarrik, mandazain kankailu hori!

Berbok esanda, alde egin zuen anaia zaharrenak zein jentilak beste larru zati bat ebaki eskuetan kutxilloa dela.

Etxera heldu zenean eta gertatutakoa kontatu, bigarren anaiak esan zuen barruko amorrua aguantatu ezinean:

-Neu joango nauk hire ordezt!

-Ez, ez hadi joan -erantzun zion zaharrenak-, txarra zer duk jentil hura!

-Ez dik ardura! Banoak!

Joan egin zen bigarren anaia baina jentil haren fetura eta trajura ikusiz batera, ahotik berbarik askatu ere egin barik, eaurt egin eta etxera bueltatu zen, eta abantean gainera!

Perutxu bakarrik geratzen zen. Bere anaiena ikusita gogait eginda zegoen eta berak ere sinesten ez zuela badiotse etxeko guztiei:

–Eta neu joaten banatzaio, zer?

–Ezta, pentsatu ere! –erantzun zioten denek batera–, hi, irentsi egingo hau jentiltzar kankailu, kokorio hark eta ez! hi ez!

Perutxuk, ekin eta ekin egiten zien eta bakearren utzi egin zioten joaten baina zuhur ibiltzeko aginduz.

Hartu zuen Perutxuk basorako bidea eta egurdarte barruan heldu zen jentilagana txistuka eta inon diren itzulumurdiak aginez.

Jentilak, olgetan dabilen mutikoren bat zelakotan, jaramon handirik ere ez zion egin baina badiotso:

–Hi, mutiko, zer darabilk hemendik ba?

–Zer darabildan? Ni Perutxu nauk, aurreko mutil bien anaia txikia eta kridu natorrek heugana!

–Hi kridu? Hago isilik, kakadario hori!

–Ni kakadario? Ez horixe!

–Hator, hator, ikusiko diagu ea zenbaterako haizen! Hire larruaren errukia! Heure anaiengandik jakingo duk, eztuk? Haserreak larru zatia kentzea zekarrek! Aditu duk?

–Bai horixe! Benga, bota beharrok! Zer egin behar diat?

–Hasteko, errukia ematen didaanez, eutso jateko zeozer!

Perutxu sartu zen jentilaren bizilekura eta jentiltzar horrek han supazterrean zeukan lurrezko lapiko sumika, ugeldarri eta kortikaduna atera zion aurrera eta esan:

–Jan ezak lapikoko hau, baina gaineko tapa kendu barik!

Perutxuk, orduan, egin azpitik zulo bat eta rapa-rapa jan zuen eta ostean aupatz bat edo bi ere bota korrokada eta guzti.

Aitearen eta semearen! Jentilak hartu zuen hartzeko haserrea eta badiotso Perutxuri:

–Zer egin didak? Lapikoa apurtu?

–A!, haserretu egin haiz, eztuk? Ale, ekark lepoa larru zati bat kentzeko –eta rast! kendu zion kendu ere larru zati dezentea, lepo zati bat haragi bizian utziz!.

Jentilak, orduan, zahagitik ardoa edateko agindu zion baina estukinik soltatu barik, moropilak kendu barik.

Perutxuk, hartu ezten bat, zuloa egin eta dranga-dranga ez dio edaten ba zahagiko ardoa gainetikoa dariola utziz!

Jentilak, beste haserrealdi bat hartu zuen eta Perutxuk beste larru zati bat kendu zion lepo bizkarretik.

Pentsakor zegoen jentila eta egin ezineko lan bat agintzea pentsatu zuen, ea Perutxu hainbaten harrapatzen duen, eta badiotso:

–Hi, Perutxu trasto, joan hadi basora eta ekarri adar handi eta zabaleko arbola garrazta bat, agudo, zain egongo nauk!

Perutxuk, hartu aizkora eta basora barik, joan jentilaren txabolako hegoaldera, jo ipurdi-ipurditik mahats parrarik handiena eta badoa txistuka.

Jentilak, hura ikustean, ezin arteak ere hartu eta lehen baino haserre handiagoaz badiotso Perutxuri:

–Zergatik ebaki didaan baino ez duk mahats parra eder hori? Agur aurtengo nire mahats morda gozoei!

Beste larru zati eder bat kendu zion Perutxuk jentilari. Honek, erdi zoraturik, beste lan bat bialdu zion. Zuhaitz berdin berdinezko burkada bat ekartzeko, ez duelakoan aurkituko.

Baina, Perutxuk, begizaturik zeukan haritz sabi edo mintegi batera joan eta burkada bete arteko arloa banan-banan atera eta hor doakigu zantzo eta irrintzika jentilagana.

Jentiltzarrak, fetxoria hura ikustean, ezin zuen gehiago eta hagin karras-kada eta guzti esaten dio Perutxuri:

–Aikomen hemen nire lepoa eta kendu azkenengo zatia, akabatu duk lege hori, joan hadi txerrietara, hilakorik ez diat ikusi ere egin eta!

Perutxuri beldurra hartu zion jentilak. Baina ezin zuenez ulertu Perutxurena, lehengo legea barik, apostuak egitea pentsatu zuen.

Iluntzean, Perutxu txabolara heldu zenean, hauxe esan zion jentilak barre-zantzoka eta harrokeriaz beterik:

–Hi, bihar zeinek harria urrunago bota egin behar diagu, zer deritzak?

–Nik neuk ondo! Gabon, bihar arte!

Perutxu hurrengo goizean, tertzioz joan zen txerrietara eta lehenengo-lehenengo, igo hara pago-harro batera, hartu kolkoan han begiztaturik zeukan basamikea eta nasai!

Eguerdi inguruan, jentilak eupada egin zion Perutxuri harri-botatzen zeinek gehiagoka egiteko.

Lehenengo jentilak bota zuen harria. Izan ere harri endemoninoa, tremendoa, eta hara hurrengo mendi magaletaraino bota zuen.

Perutxuk, hartu badaezpadako harri bat, abiada hartu behar duela esan eta pauso batzuk atzera egin zuen. Horretara, egin kikiribuelta eta itzulimurdi batzuk jentila zorabiatzeko, bota harria zorura, hartu kolkoko txoria, basamika, eta sssiiiiissssttt! hara han non doan mendi guztien gainetik "harri" hori, lekutako puntara!

Perutxuk, jentilaren harridura ikustean badiotso paparra aurrera botata eta bat ere betuxokeria barik:

-Ikusi egiten duk, ikusi, nire harria? Hire harrikada, nirearen ondoan, esku bete euli hego bako, zarama ere ez duk!

Jentila, dendik ere, ez zegoen konforme, eta hurrengo egunerako harria zeinek zatitu egin behar zutela esan zion Perutxuri. Honek, baietz!

Gau hartan, jentila lo-arrantzaka zegoen bitartean, Perutxuk, hartu zinezko erradako ardi-esnea, legarra bota eta gazta zuria, guri-guria egin zuen. Gero irten txabolaren albatetik, gazta guri hori lur buztin apur batez igurdi eta han utzi zuen txabolari deusola beste harri batzuen artean jentila konturatu ez egiteko moduan.

Hurrengo goizean, jentila tertzioz jaiki zen eta Perutxu geroago baten, lo-itzarria kendu ezinik eta nagiak ateratzen ikusi zuenean badiotso:

-Zer, prest hago postura egin eta galtzeko?

-Hori gero ikusiko diagu! Atzokoa ahaztu egin duk ala?

Egurdarte erdi ingurumarian, ganaduak gobernatu zituztenean, hara han non plantatzen zaizkigun biak harria apurtzeko.

Jentilak, han inguruan zegoen harririk handiena hartu, ipini haitz baten gainean, jo ikubilaz eta laurkindu egin zuen, lau zatiak txirran zirela mendia behera.

Perutxuk, tenplatu zegoen laurkindutako zatiori adi eta barrurikako estukura agertu barik, badiotso:

-Lau zati? Hori zer duk ba? Ikus ezak nire harria, nire burdin-harria!

Perutxu astiro-astiro zihoan txabola bazterrerantz besoak erremangatuz. Hartu zuen goizaldean egindako harri-itxurako gazta eta astun-plantak eginenez jentilaren ondora itzuli zen esanez:

–Hau nire harriau hirea baino gogorragoa duk, burdin-harriak burdina zeukak nahastuta eta badaezpada joan hadi harago zein harri birrinak begiren baten jo.

Malezia bako jentil hori atzeratu zenean, Perutxuk jotzen du “harri” hori ikubilaz eta birrin-birrindu ez zuen egin ba!

Jentila hurreratu egin zitzaion Perutxuri bere fetxoria ikusteko eta egia zela ikustean samako intxaurrak ere gora eta behera egiten zion sinestu ezinik.

Perutxuk, ikusirik jentilaren ikara, apurtxo bat harroturik eta jentila arean beldurtu guran badiotso:

–Orain, zer?, asaskatu haiz posturak egiten ala ez?

–Ba egia esateko ez! –erantzun zion jentilak–. Bihar palanka urrunago nork bota egin behar diagu!

–Noizgura! –erantzun zion Perutxuk esku biak igurdiz!

Igurdi egin zituen Perutxuk eskuak baina hurrengo postura horretarako zeozer asmatu beharrean zegoen.

Esan eta egin. Arrasti guztia eman zuen burua hausten oraingo zeinek-gehiago honi aurre egiteko.

Ez zitzaion ezer bururatzen. Gauiluntzean, afari iski bat egiten zeudela biak bietara, badiotso Perutxuk jentilari zeozer esatearren:

–Hi, hik zer familia arteko daukak?

–Nik neuk? Ba, hemen inor ere ez! Salamancan zeukat senitarte guztia, zer ba?

–Oño! Salamanca esan didak? Han erdara egiten duk eta hemendik hara estudiante asko joaten zaiguk, tunante bakarren bat ere bai!

Berbaldi bat egin orduan, ohera sartu ziren. Jentila, etzunaz batera hartu zuen loak, baina Perutxuk ezin lorik egin.

Halakoren baten, Salamanca etorri zitzaion burura. Ez zeukan beste biderik jentila beldurtzea baino ze jakin bazekien ezingo zuela palanka jentilak bestean bota.

Oilarra kukurrukuka hasiz batera, jaiki ziren biak eta hasi ziren bakoi-tza bere neurriko palanka atontzen.

Egin-akabatu zituztenean palankok, joan ziren mendiaren antepetxu bateko hegillamura eta jentila izan zen lehenengo bota zuena, eta urrun gainera, beste mendi tontorrera arte.

Perutzuk, hartu bere palanka hori, igurdi inontz apur batez eta jentilari adikuna betuxo bat eginez badio zekien erdara apurrean:

–“Ahí va la palanca hasta la Salamanca”! –hiru bider.

Jentilak entzuten du hori eta Perutzuri palanka eskuetatik kendu eta beldurren beldurrez badiotso:

–Ez, mesedez! Ez ezak bota palanka Salamancara! Han zeukat nire senitarte guztia eta botatzen baduk bota, hil egingo didak neure familia! Mesedez, hago geldi, heuk irabazi didak oraingoan ere! Postura honen ordeztu beste bat egingo diagu bihar!

–Zein? –itandu zion Perutzuk.

–Ba, pagoak ipurdi-ipurditik ateratzen, horiek inoiz inausi bako pago garraztak. Horixe izango duk atzenengo postura, hortxe irabazten badidak, ez zegok hilangorik!

Perutzuren azkenengo buruhaustea. Egunaren ordu guztiak eman zituen zezoz asmatu guran. Goiza joan zitzaion, arrastia ere bai eta gauean afaldu ere ez zuen egin patxadaz.

Hurrengo goizean, akordatzakoan, estukin luze bat aurkitu zuen Perutzuk han txabolako erresumako akuilu batetik dingilizka. Hartu egin zuen, batu, sartu lepoko morralean eta badiotso jentilari:

–Zer, bahator ala?

–Bai, atoan noak!

Pagaduirantzako bidean, Perutzuk ez zion agertzen indargatasunik jentilari. Honek ere azkenengo postura zuenez, nor den demostratu gura zion Perutzuri, eta biak zihoazen isil-isilik.

Pagaduirea heldu zirenean, jentilak, hartu pagoak denodu guztiaz eta, porrua lez, banan-banan ateratzen zituen sustar-sustarretik, ipurdi-ipurditik.

Perutzuk hori ikusikeran, zer? eta hauxe egin zuen: Puntarik punta, pagoak lotzen hasi zen jentilaren harridurarako:

–Zertan habil, mutil katamixarra lez arbolarik arbola? –esan zion jentilak ikaraturik.

–Zertan ibiliko nauk ba, hire antzean banan-banan barik, denak batera ateratzeko pagoak estukinez amarretan!

–Ez, mutil! Ez iezadak egin holakorik! Pago guztiak ateraz gero, zer ezkur edo zer arraio jango diagu ba txerriekin aurten? Txerriak guztiak gosez hiltzea gura duk ala? Bajatu hadi agudo eta hator txabolara, heuk irabazi didak, hilangorik ez diat sekula ikusi! Batek zer ikusi behar duen baino ez duk hemen mundu honetan! Holakorik!

Aurrerantzean bakean utzi zion jentilak Perutxuri eta bere begien aurrean ikusteak lotsaria ematen zionez badiotso jentilak:

–Joan hadi mendira txerriekin eta ez etorri zati handi baten. Hartu jaki eta edaki apur bat eta ospa hemendik, honako neu nauk nahiko eta!

Perutxu nasai bizi zen mendian eta jentilenetik hartutako jaki-edakiak akabatu orduan, noizean behin txerri bat hil eta jateari eman zion.

Egunak joan egunak etorri, jentila, luze iritzita zegoen eta joan egin zen mendira Perutxuren berri jakiten.

Mendian gora zihoala, Perutxu txerri bat hiltzen ikusi zuen eta gora-goraka gedar egin zion esanez:

–Hi, zer darabilk nire txerriekin? Nork esanda hil duk nire neure txerri-rik onena, aurten zezin orde jatekoa?

–Ez hadi hona arrimatu e! –erantzun zion Perutxuk–, osterantzean txikitu egingo haut aldi bateko “harria” lez eta gero gerokoak!

Jentila ikaratu egin zitzaion eta oraingoagatik txabolara bueltatu zen. Haserre zegoen egon ere eta arteak hartu ezinda, burduntzi bat zorrotzen hasi zen, mendira joan eta Perutxuri behar ez denen bat egiteko.

Perutxuk, bien bitartean, txerri-odola eta gainetikoak prest-prest zeukan odoloste eta buzkantzak egiteko. Odola, aurreko txerriaren puxika putzituan zeukan gordeta, izan ere ez zuelako beste ontzirik horretarako.

Egunaren joanean, mendiko isiltasunean, zarata batzuk barruntatu zituen Perutxuk. Sorots egiten du eta ene! ez du ikusten ba jentila ikaragarriko burduntzi batekin mendia gora!

Orduan, Perutxuk, utzi bertan behera dena eta argudio bidez hartu odol-lez betetako puxika, sartu kolkoan, zilbota zirudiela, eta mendia behera hasi zen abantean.

Jentilak ikusi egin zuen eta atzerik hara jarraitzen zion Perutxuri. Honek ez zeukan atzera begiratzeko astirik ere, bakez etxera heltzea baino gura ez zuela.

Bata aurretik, bestea atzetik, hura zen hura ikustea! Halakoren baten, Perutxu bere etxe ondoko baserrira ailegatu zen eta karra egiteari urzi barik badiotso hango etxeko etxagunari:

–Hortik atzerik hara inor ikusten duk, holako jentilik edo?

–Bai, mutil –erantzun zion–, hortxe zetorrek, galapan egin ezak, osterantzean hil egingo hau dakarren burduntzi luzeaz!

–A, bai, hor zetorrek? Ba –ezkerreko begiaz keinu eginez auzoko etxagun horri–, arinago joateko harri-punta zorrotz batez zulatuko diat neure zilbot hau!

Esan eta egin! Perutxuk hartu lehenengo kare-harri zorrotza eta zzaazttt! sartu zilbotetik eta hara han non doan odola dariola lehen baino bizkorrago, orpoetan ar barik joan ere.

Jentila ere, santiamen baten ailegatu zen etxagun haren etxe ingurumarrira eta berak ere itaun-gedarrez esan zion hango gizon hari:

–Perutxulangorik ikusi al duzue hemendik?

–Bai –erantzun zion etxagunak–, oraintxe puntu-puntutxoan joan duk eta gainera, lehen baino bizkorrago joateko, harri punta batez zilbota jo eta apurtu dik eta hor joan duk odola dariola zuzian, hegaz letxe!

–Oño! Orduan nik neuk ere beste hainbeste egin behar diat!

Jentilak, harria hartzeko asti barik, hartu eskuetan zeraman burduntzia, sartu bere benetako zilbotetik eta rraasst! odolustuta berpetan hil zen burubakoa halakoa!

Perutxunean ez zen gehiago ezeukirik ezagutu. Jentilaren eukiak edo azindak ondo baino hobeto etorri zitzaizkien.

Euskal Herri osoan zabaldu zen Perutxuren zuhurtasunaren berri eta harrezkero jentil-beldur gutxiago bizi izan zen herritarren artean”.

–Aitita Lekobide, Tartaroren ipuina baino zurea gehiago gustatu zait!

–Bai? Ba, horren antzekoak gura adina dakizkit. Kontatuko dizkizut, iluntzero-iluntzero. Orain goazen afaldu eta lo egiten, bihar Santimamiñera eraman behar zaituztet eta, ama eta biok.

Mariak ere entzun zuen Perutxuren ipuina eta begiak bete egiten zitzaizkion bere Peru zetorkiolako gogora, baina beragandik kanpo ez zen beste inor enteratu, Lekobide bera ere ez, lepoz zegoelako sutondora begira.

Hurrengo egunean, tertzioz jaiki ziren. Lekobide kukurrukuarekin esnatu zen eta den-dena prestatu zuen, zalpurdia, argizaiola pareta, zurezko eskailera bat eta behar zuten guztia.

Lekobidek Maria Santimamiñe lehenengoz ikusten eroan zuenean, geratualdi batzuk egin zituzten baina oraingoan artez joan ziren Santimamiñeko kobazulora.

Izar ezin zen geratu ere egin pozaren pozez, eta ipurdian gatza eta orpoetan arrak zeuzkala zirudien.

Santimamiñeko kobara heldu zirenean sua egin zuen Lekobidek ohizko zen igeska sukarri-txispaz izituaz.

Izar, dena zen galdera eta Lekobide erantzuna. Eta Izarren jakin-egarrria asetu zenean esan zion Lekobidek:

–Aitu, Izar, zu lehenengoz zatoz hona, zure ama birritako aldiz baina gaur bioi erakutsiko dizkizuet hor barruratxoago gorantz einean dauden horma-irudiak, zure amak ere ez ditu ezagutzen oraindino. Kontu handia eduki eta neure esanean ibili, laprastadaren baten erori eta amildu ez gaitezen.

Lekobidek hartu zuen eskailera eta behar zen lekuan kokatu. Gero, izitu egin zituen argizaiola biak, Mariarentzat bata eta beretzat bestea.

Tanda bitan egin zuen egitekoa Lekobidek. Lehenengo Maria eroan zuen horma-irudien harri-gelara eta han itxaroteko agindu Izarrekin beste hainbeste egiteko.

Han genituen hirurak. Argizaiolen argitara horma-irudiak ikusten. Lekobidek hango irudi guztien berri eman zien ama-semeoi.

Mariak argizaiola Izarri pasatu zion une batez eta esku batatz Izarri berari heltzen zion eskutik eta besteaz kendu ere egin gabe zeukan esbastikari. Maria sinestu ezinean zegoen misterio eta errealitate haren erdian. Izarri ostera hurrengo egunean abade irakasleari irudiak egiteko ideiak etorri zitzaizkion, jakina, bakoitzak bere iragaztontzitik iragazten zuen ikusten zuena.

Harri-gela zoragarria guztiz ezagutu zutenean, Izar izan zen lehenengo ahoa askatu zuena Lekobideri galdetuz:

–Aizu, eta norainokoa zaizu kobazulo hau?

–Hau, batek badaki! –erantzun zion Lekobidek–, esaten dute itsasoraino heltzen dela, baina nik dakidala behintzat, inor ez da ailegatu sakonetaraino. Gehiago oraindik, entzuteak daude, bat baino gehiago sartu ere egin dela oso barrura baina ez direla gehiago ikusi. Horregatik ba, kontuz! Ikusten ez den lekuetan begiek ere ez dute balio.

Kontu handiz bajatu ziren eta urten kobaren atakara. Behin hara ezker, amatatu argizaiolak eta han inguruko artepe baten bazkari iski bat egin zuten tripa-zorria kendu eta beroan sartzeko.

Arrastian, etxera artez etorri beharrean Gernikako arbola ikusten joan ziren, jadanik, Izar bera ere, arean hazitxo zelako.

Behin Gernikako arbolapera ezker, Lekobide hasi zitzaion Izarri haritz haren zer-zertarakoak azaltzen:

-Izar, maitea, ez dakit ulertu ere egingo duzun baina hementxe, arbolape honetan elkartzen gara Bizkaiko etxagun nagusiak geure gorabeherak ebazteko. Deialdiak egiten ditugu beharrizanak ditugunean eta horretarako adar edo bozina-mendiak darabiltzagu.

-Zertzuk dira ba, adar edo bozina-mendiok?

-Ba, aditu, Izar, gauza bat zelakoa den jakiteko, norbera bertatik ibilita egotea lakorik ez dago, baina gaur horretarako astirik eduki ez arren, labur baino ez bada ere azaldu egingo dizut apurtxo bat etxerantz joanean-joanean. Udarantz, gura duzun baten joan egingo gara bost mendiotara, batzuetarako egun bat baino gehiago behar izan arren. Merezi du eta ez gutxi mendiok eta euren inguruko gorabeherak ezagutzea. Gustatuko zaizu, ikusiko duzu!



Esan eta egin. Igo ziren zalpurdira eta Lekobidek argi utzi zion Izarri nolako adarrotsa eta sugarrak egiten zituzten bost mendiotan Gernikako arbolapean batzarrak egiteko seinale bezala. Izan ere, dena mendi, dena ibar eta dena ibai den Bizkai honetan, batekoa ez bazen besteko adarrotsa edo eta sugarrak entzun edo eta ikusi egiten ziren.

Izar poz bitsetan bizi bazen, Lekobide ez gutxiago, bere irakatsiak ondo baino ere hobeto ikasten zituelako Izar gazte bizkorrak.

Egia esateko, Izarrek denerik ikasi zuen egin ere. Labrantzan dena zekien, arrantzan beste hainbeste, ehizan paregabea genuen eta eskolak beste inork baino hobeak zituen.

Gizatasun arloan, nortasun handikoa zen eta bihotz zabalekoa. Herria maite ez eze, bihotzean barruan zeukan. Gernikako arbola, aldean zeramala zirudien.

Urteak aurrera zihoazkiola, bihozkada batek jotzen zuen Izar. Zeinek? eta bere aita nor zen jakiteak.

Lekobide bere zerginetan joan zen egun baten, Izarrek amari galdetu zion bere aitaren berri eta:

–Hara, Izar neure bihotzekoa –erantzun zion amak negarrez–, sinestu ere ez didazu egingo baina hauxe eta hauxe da gure historia, lehengoa eta oraingoa. Ez dizut esan nahi izan zeuk itandu arte baina egin didazunez gero hortxe duzu egia, garratza batetik eta gozoa bestetik. Nik neuk biak ezagutu ditut, zuk Izar maitea bata bakarrik, gozoa. Aitaren berri, itsasoak bakarrik daki. Berak esanda dakit umezurtza zela, ia-ia bakarrik hazia Santimamiñe inguruko bazterren baten. Zuk orain, Lekobide daukazu aitatzat, neuk ere bai ze gureak hemen izan beharko du. Zu zeu hemengoa zara, euskal odola daroazu zainetan eta ni neu ez noakizu bakarrik uzten. Zahar on egin gaitzela Lekobiderenean!

Izarrek ondo baino ere hobeto ulertu zuen egoera hura eta bihozberatu beharrean, indarberritu egin zen Lekobideren aitordetzan, amari inoiz ez lako besarkada bat emanez.

Udako egun eguzkitsu baten, Lekobide bastak ipintzen zegoen bere zaldi onen biei eta Izar ondoratu zitzaionean esan zion:

–Gaur, Sollubera joan behar dugu, adar edo bozina-mendietarik hurbilena dugulako. Zaldiz joango gara joan ere, zalpurdiz ezin igon litekeelako goiko tontorreraino.

Izarrek lagundu egin zion Lekobideri zaldira igotzen eta berak ere salto bat eginez martxan jarri ziren.

Han zihoazen biak bietara Sollubeko mendia gora bidezidorrik bidezidor, mandazain bideetatik.

Sollubeko mendi kasketera iritsi zirenean, jaitsi zaldi gaintetik eta oboan-oboan gozatu ere egin zituzten itsaso zein mendi barruetaranzko paisajeak.

Beso eta zankalosteetako nagiak atera zituztenean, jarri egin ziren itsasora adi Izaro aurrez aur zutelarik. Isil-isilik zeuden euren adikunea itsaso eta zeruaren arteko angeluan galtzen zitzaielarik.

Lekobidek aspaldirik zeukan ezbai bat bihotzean. Ez zekien argitu ala ez Izarri bere historia. Itsasora begirako isilune hartan, zioen bere kautan: “Gaur baino une egokiagorik ez diat aurkituko eta esan egin behar zioat egia Izarri”.

Pentsatu eta egin. Asko kostata baina egia jakiteko eskubidea zeukala pentsatuz honela esan zion Izarri:

–Izar, har ezazu sakon arnasa gauza handi bat esan behar dizut eta. Honezkero, baten baino gehiagotan galdetu izango zenion zeure buruari zure zeure nondik norakoa, ezta? Ba, esan egin behar dizut bihotzeko dar-darikara eta guzti.

–Badakit, Lekobide, nire neure guztia! Bihotzez eskertzen dizut, baina badakit. Neure amak kontatu zidan argi eta garbi, baina ikusten duzunez ez dut aldatu nire bizimodua. Pozik nago, nahiz eta batzuetan itsasorantz begi-ratu aita Peru gogoratuz!

Lekobidek bete zuen bere kontzientziaren zorra eta lehen baino pozago sentitzen zuen bere burua Izar zoriontsu ikustean.

Sollubeko gaina utzi baino lehen, Lekobidek eskua jaso eta Izaro eta Ogoño bitarteko haitza erakutsi zion Izarri esanez:

–Aditu, Izar, hantxe aurkitu nuen zure ama, laminak orrazten irteten zuten haitzean, baina hori eta gainetiko guztiaz jakitun zaudenez gero, Sollu-beko mutil gazte bat eta lamina baten arteko ipuina kontatuko dizut:

“Bazegoen behin baten etxe oneko mutil lerdan bat eta sasoiran etorri zenean neska-laguna bila hasi zitzaigun beste batzuk beste izateko asmoz.

Baserria, mendian barruratxo zegoen eta bere herrirako joan-etorrietan hango hainbateko neska galant bat ezagutu zuen, ezagutu bakarrik ez, ezkontza tratua ere ia-ia eginik zeukaten.

Mutil hori, pozik baino pozago zebilen eta herriko lagunengana etor-tzen zen bakoitzean barruko pozak hartu ezinik zegoen.

Lagunek, euren aldetik, kargu hartu zioten, ea zer neska edo zer ote zen hainbestean pozik egoteko. Eta nor? eta lamina polit bat ez zen ba!

Orduan, mutil horren lagunek egia esatea ebatzi zuten, dendik ere, egia gezurra baino hobea zela pentsatuz.

Halaxe egin ei zuten. Mutil gazte hori hurrengo eurengana etorri zitzaie-nean, burlazar edo txantxetan barik badiotsote:

–Hi, mutil, jakin badakik norekin habilen edo nor den neska hori?

–Egia esateko, ez zekiat bere berri askorik baina gaineko neskea den!

–Baina, ez diok igarri zelako oinak dituen?

–Ba, ez, beti zetorrek gona luzeekin eta ni neu ere ez naizenez bate-zaurrekoa ba, ez diat magalpekorik ezer ikusi, horretarako gero ere astia zegok eta.

Ba, hurrengoan begira iezaioek oinetara eta ezagun izango duk neska hori nor edo zer den!

Mutil horri joan zitzaizkion barregureok eta burumakur, bihozberatuta etxera joan zen betiko bidetik.

Bere buruari inon den lorra ematen zihoala, hara han non agertzen zaion bere neska ile-gorri eta begi-urdin hori.

Mutila adi geratu zitzaion eta txiterdi ere esan barik, aditu neskaren oinetara eta non ikusten dizkion ahateak lako oinak!

Ene mutilak! Lagunen esanetatik bihozberatuta egon bazen, lamina zela jakin zuenean hil ez zen egin ba mutil gaztea! Disgustuak hil ei zuen, bai, disgustuak.

Lamina horrek ere inon diren negarrak egin ei zizkion mutilari eta lehenengo bidaztia agertu zenean estaldu egin zen zein baten batek ikusi.

Eraman zuten mutilaren gorpua etxera, gauean begira egin eta hurrengo egunean entierria egiteko.

Hurrengo egunean, bazetozen etortzekook baserria behera elizarantz, abadea aurretik, sepulturakoak jarraian kandelak buruan direla, andariak gorpua anda-izara botata eskailera baten zutela ostean eta gainetiko herritar eta senideak hurrengo.

Lehenengotan inortxo ere ez zen konturatu, baina, andre artean zetoren lamina hura, gona edo kapa luze-luze batekin.

Laminak bere kapa bota gura zion mutilari, elizan sartu baino lehenago, beraren, mutilaren arima osteko.

Baina, abadea konturatu egin zen eta andariei elizan agudo sartzeko agindu zien ezertariko esplikaziorik eman barik. Halaxe egin zuten eta mutilaren gorpua elizan sartuz batera, lamina sokorru baten eta alaurika hasi zen elizan sartu gura eta ezinean.

Halaxe salbatu ei zen, dendik ere, mutilaren arima. Eskerrak horiek laminek eta, elizan sartzeko podererik ez daukatena, osterantzean batek badaki han zer gertatuko zen!

Aurrerantzean zuhur baino zuhurrago ibiltzen ziren mutilak zein berriro gertatu horren antzekoren bat. Parte txarrekoekin, kontuz! gauzak suertatu egiten dira eta, ez deritzazu?

Hau kontuau, Sollubeko erreka ondoko kueba baten inguruan pasatu zelazkoa daukat entzunda. Egia esateko, entzunarekin ezin joan liteke urrun, baina entzun, hala deukotset entzunda gure zaharrei”.

Eguzkia berotzen zegoen, kanikulea, eta zaldiak ere artegatzen hasita. Horregatik, igo zaldiotara eta egurdarte zoragarria eman ondoren Altamirara bueltatu ziren bata baino bestea pozago.

Beste egun baten Oiz mendirako ditea hartu zuten. Oiz mendia zen beste adar edo bozina-mendietariko bat.

Sollube baino urrunago zegoenez, egun pare baterako joan ziren. Durangorainokoa zalpurdiz egin zuten. Lekobidek Izar aurkeztu zion Durangoko etxagun nagusiari eta han eman zuten gaua hurrengo egunean, goizean tertzioz Oiz gaina jotzeko.

Halaxe egin zuten. Tertzioz jaiki eta zaldiz joan zitzaizkigun mendia gora Oiz mendi tontorreraino.

Behin gora ezker, Solluben bezala, oboan-boan inguru eder guztiak ikusi zituzten eta jarri egin ziren Lekobideren erakutsi eta irakatsiak Izarren-ganatzeko.

Lekobidek, lehenengo, Markina aldea erakutsi zion aldi bateko Euliski jentilaren kontu eta guzti. Gero ekialdera adituz, hauxe esan zion Izarri:

–Aditu, Izar, zuk ez dakit jakin ere egingo duzun, baina entzuteak daude, hemen, egunsentian eguzkiak lehenengo jotzen duen lekuan urregoria dagoela lurpean eta basajaun edo jentilak urregorritan etortzen zirela kobazuloetara eroateko.

–Goazen ea egia den hori ikustera! –erantzun zion Izarrek.

–Hobe utzi kontuok! –esan zion Lekobidek–, horiek antzinakoen asma-kizunak izango zaizkizu, zer gura eta huraxe asmatu! Erdu hona, aditu ezazu hegoalderantz. Hortxe daukagu aurrez aur Anbotoko mendi famatua. Horkoxea zaizu Mari Anbotokoa. Zazpi urte egiten omen ditu Anbotoko koban eta beste zazpi urte han, harago dagoen Gorbeia mendi ondoko Supelegor kobazuloan. Garretan ibiltzen ei da mendirik mendi batez ere Anboto eta Gorbeia bitartean. Gorbeiara joango gara beste egun baten. Hura ere, adar edo bozina mendia dugu, inportanteena. Hor dugu baita, hor aurrez aur Urkiola-mendi ere San Antonio baseliza eta guzti. Ene! eta San Antonio aipatuz batera, jentilen pasarte bat gogoratu zait, Durangoko etxagun nagusiak behinola kontatua.

–Konta iezadazu, Lekobide, hain nago pozik!

–Hara, Izar, jentilen berri mendi, haitz zein baso askotan aurkitu genezake batez ere Gorbeia ingurutik haronako bat eginez gero.

“Behin baten, Anbotoko kobazuloaren aurreko landan, Durangoko nebarreba bi zeuden euren ardiak jagoten, Gabon egun bateko egurdartean.

Eguraldi hotza baina ona egiten zuen eta ardiak ere zoli-zoli zebiltzan landa-belar txikia baina gozoa jaten, neguaren hasierako egun-argi laburrenean.

Eguerdia heldu zenean, neba-arrebok, Anbotoko kobazuloko atakara hurreratu ziren bazkari sikua egiteko asmoz.

Zabaldu lepoko morral-zakutoa, atera gazta otarteko bana, bigilia edo haratuztea gordez eta jateari eman zioten noizbehinka ardo zahatoari txuruplin batzuk eginez.

Behingo baten egin zuten neba-arrebok egun hartako bazkaria baina gose apur batekin geratzea hobea baino ez zen, etxera itzuli orduan, Gabon gaueko afariari ganosoago ekiteko.

Handik lasterrera, etxera bidea hartzeko zeudela, neskak suge bat ikusi zuen euren ondoko ogi-apurrak jan guran edo, eta badiotso bere nebari:

–Hi, mutil, begira ezak hona, suge handi bat zeukagu ahotik izpia age-rian ia-ia geure ostikopetan ba eta!

–Ene, bai berriz! –erantzun zion nebak–. Hau sugeau nik neuk domina-tuko dinat, ikusiko dun!

–Kontuz ibil hadi, mutil, badaezpada, parte txarrekoren bat izanean ere, gaur Gabon eguna diagu eta.

Artzain gazteak, utzi bere eskuetako makila mehea, hartu han pagadui baten barda luze bat eta sugea hiltzera zihoan.

Sugea, bien bitartean, Anbotoko kobara barrura sartu zitzaion eta hango barruko sakonetako estarian estaldu.

Artzainak ahalegin guztiak egin zituen suge hura jo buru-buruan eta tra-gatzeko baina dena alferrik.

Halakoren baten, kobazuloan barrurantz zihoala, zer? eta han kobazu-loaren sakon-sakonean basajaun bat aurkitu zuen ikatza egosten.

Ikaratu egin zen. Hankak dar-dar zeuzkan, bekokian izerdi larria, gor-putzean ikara, bihotzean taupada estuak eta buruan zer pentsatu handia!

Egoera horretan zegoela, ikatz txondorraren ondotik basajaunaren hots hauek entzun zituen oihartzun eta guzti:

–Ez hadi larritu, mutil, ez diat ezer egingo eta! Hurreratu hadi nire neure ikatz txondorrera. Hator eta esan: Hire aitak egiten al dik nik neuk bezalako ikatzik?

–Ez zekiat ba! Baina egur-berdin, denak ere antzerakoak izango dituk!
–erantzun zion artzainak beldurkilik.

–Ba, berdinak diren ala ez jakiteko, har ezak esku biak bete ikatz eta atera argitara han hobeto ikusteko!

Artzain gazteak, hartu zuen esku biak bete ikatz eta kobaren atakara helduz batera bere arrebari erakutsi zion. Arrebak, altxor eder hura ikustean badiotso bere nebari:

–Hi, mutil, zer dakark hortik barrutik?

–Zer ekarriko diat ba, basajaunak emaneko ikatza!

–Ikatza? –esan zion arrebak begiak zabal-zabalik–, hau urregorria duk ba eta! Joan hadi berriro barrura eta eska iezaioke gehiago, aberatsak izango gaituk eta!

Mutila berrien berriz joan zen kobara barrura eta honela esan zion basajaun ikazkin hari:

–Hi, nire aitak ez dik egiten honelako ikatzik. Honelakorik ez zegok gure herrian ez eta gurekoen artean ere, herriko ikazkinik onenak izan arren. Horretara, emango didak apur bat gehiago nire neure etxeko eta herrikoiei erakusteko?

–Bai, mutil, zenbat gura eta harexenbeste hartu, baina kontuz! Hor koba sakon-sakonean deabrua zegok lo-arrantzaka eta hire zaratetara itzartzen baduk, hireak egin dik!

Artzain gaztea, aberastu nahiaren aberastu nahiaz, praktetako boltsa biak, kolkoa eta sorbaldeetatik dingilizka zeukan morral-zakutoa betetzen hasi zen urregorritz.

Baina, denaguran, zarata handiegiak egin zituen eta jakina, deabrua itzartu egin zitzaion bere lozorrotik.

Itzartu bakarrik ez, deabrua oso haserre plantatu zitzaion eta orroe-zantzoka hasi zen burduntzi luze bat eskuetan hartuz.

Hura bai zela larrialdia! Artzainak ez zekien zer egin. Eta estualdian basajaunari esan zion guztiz kakadariotuta:

–Hi, zer egingo diat orain?

–Zer egin? Ba, ospa egin hemendik lehen baino lehen! Deabruak harra-patzen bahau hireak egin dik betiko! Joan hadi agudo!

Artzainak, utzi bertan behera urregorriok eta kanporako bidea hartu zuen basajaunari esana eginez.

Kobaren atakara heldu eta bere arreba ikusi zuenean hauxe esan zion pausorik galdu ere egin barik arduraz beteta:

–Hi, ezin dinat kontatu orain hor barruan gertatutakoa, joan hadi etxera gautu baino lehen eta tertziarako heltzen ez banaiz Gabon afaria ondo ospatu, nik nahikoa zeukanat atzerik hara datorkidan deabruari ospa egiten!

Arreba, ikaratu egin zen bere nebaren berbak entzutean baina ikara handiagoak etorri zitzaizkion handik lasterrera deabrua kobatik irteten ikusi zuenean.

Neska errukarria negarrez zihoan etxerantz eta bereengana iritsi zenean hasi zitzaien esaten berbaltu eta guzti:

–Ene ama! Gure mutila hortik zehar dabil deabruari ospa egiten eta ez dakit Gabon gaua egiteko bizirik etorriko zaigun ere!

–Ez estutu! –erantzun zion aitak–, gure mutila bizkorra da eta ondo eza-gutzen ditu basabideak, goizago edo beranduago joko du etxea. Guk erro-sarioa errezatuko dugu eta Jaungoikoak gura duena izan dadila!

Bien bitartean, han zebiltzan, guztiz gaututa, artzaina aurretik eta deabrua atzerik hara pagaperik pagape, mendirik mendi eta landarik landa.

Gaueko iluntasunean ez zuten elkar ikusten baina elkar barruntatu bai, eta bata gelditzen zenean bestea ere bai. Horrela ibili ziren luzaroan.

Orduak aurrera zihoazen eta mutilak etxera joan nahi zuenez Gabon gaua ospatzeko bere buruari esaten zion:

–Zer zuhurtasun erabiliko diat nik honi deabruoni eskapatzeko? Mugi-tzen banaiz, bazetorrek gainera, a bai, bazekiat zer egin!

Artzainak pago punta batera igo zuen katua sagutan baino isilago eta handik ahal den guztian jaurti bere morrala.

Deabrua, zarata entzun zen lekura abiatu zen bete-betean artzaina izango zelakotan baina ezer ere ez.

Gauzak horrela, artzaina konturatu zen deabrua apur bat urrundurik zegoela eta ahal denik ete isilen jaitsi pagotik eta behatzen puntan zihoan astiro-astiro.

Halako baten arbolapeak utzi eta ailegatu zen artzaina Durango parteko landa batera baina beste arerio bat agertu zitzaion, ilargia. Ilargipean ikusi egin zezakeen deabruak eta halaxe egin zuen.

Deabrua askoz gorago zegoen baina bere zango luzeekin berehala harrapatuko zuen mutil gazte hura.

Mutilak deabruarekin amorrutarako entzun zituenean, ezin den lekutik ere indarrak aterata, aurrera jo zuen hurbil baitzeukan bere etxea.

Etxekoak ere arduraz beterik zeuden. Orduak aurrera, Gabon afaria prest baina ez zeukaten umorerik ospakizunetarako.

Artzain gazteak ezin zuen gehiago eta deabrua gainera zetorkiola kon-turatzean zoruan etzan zen bereak egin zuela pentsatuz.

Pauso batzuk bakarrik falta zitzaizkiola deabruari artzaina harrapatzeko, zer? eta tan-tan, tan-tan, tan-tan! Durangoko elizako kanpaiotsa entzun zen, jakina, Gabon gaueko hamabietako mezako kanpaiotsa!

Kanpaiok entzun zirenean, deabrua botere edo ahalmen barik geratu zen eta ezin zion ezertxo ere egin artzain guztiz nekatuari.

Deabruak alde egiten zuela ikustean, artzaina, zutundu, Durangoko elizan Gabon-meza entzun eta bere etxera joan zen Gabon gaua ospatzen familiako batasunean”.

Egun zoragarri bat igaro zuren. Beherantzean Tabirako Santxo Estigiz Ortiñes etxagunari ere bisita egin zioten eta gauiluntzera Altamiran genituen.

Izar pozik baino ere pozago zebilen Lekobideren maisutasunean eta irrikatzen zegoen Gorbeia joan eta hango berri jakiteko. Horregatik esaten zion Lekobideri:

–Ez dakizu zenbat baino gurago nukeen Gorbeia joatea!

–Joango gara, Izar, egun batzuk barru guk geuk eta zaldiak ere deskantsua hartzen dugunean, han gara. Baina, urruntxu dago Gorbeia gero! Oizera baino egun gehiago beharko dugu, hartzen dugun bidea hartzen dugula.

Lekobide pozez bitsetan zegoen Izar gazteari dena erakusten eta hiru egun egin-eginak pasatu zirenean eta denborak laguntzen zuela ikusi, hartu zalpurdia eta gaisetiko guztiak eta Gorbeia bideari eragoien.

Lehenengo egunean Arratia zeharkatu eta Zeanuriko Lanpreabeko errota eskatu zuten ostatua.

Errota honen anteparan laminak bizi zirelako entzutea zegoen eta Lekobidek Izar gazteari gustua ematearren errotako uzamari esan zion hango laminen hondamendia kontatzeko. Uzamak ez zuen txit erdirik ere behar kontatzen hasteko eta hasi zitzaion:

“Lanpreabeko errota beti egon da laminen entzutea eta kontatu ere zenbat gura eta harexenbeste kontatu ere egin da gure gogaldian.

Gure etxea etxaguntzako izan zaizu beti eta errota beharretatik aparte, ganadu asko eta labrantza ere handia edukitzen genuen. Ganadua kortakada eta gaisetikoak mendian, ardiak eta batez ere ahuntzak.

Laminokin hasteko, gure zaharrak esan beistike, hemen Lanpreabeko errota, bakean ere ez ei zieten uzten laminek beti esnea eske, batez ere astelehenetan. Eta, ba, eman egin behar, ezpabere zelako tabarra!

Egun baten, domeka ei zen izan ere, Lanpreabeko errotako etxaguna, ahuntzetara joan ei zen goizean goizetik, barausia geroko utzita. Solorik solo zihuan, bide batez, bezperan laiatu eta zotatuko solo arloari adi.

Sartu zen isasi edo beresira eta ezin ei zituen ahuntzok pilatu, eta handik buelta hortik buelta belu egin zitzaion.

Elizako mezarako lehenengo kanpaia entzun zuenean, ahuntzak bertan behera utzita etxera etorri ei zen barauskarri apur bat eta esnea edan orduan, prestatu eta meza nagusira joateko.

Baeragoion barausten esnea maskeluan egosten zeukan bitartean, eta jantzi ere egin zen antza, frantsesilazko praka plantxatu eta guzti, baina elizako bigarren kanpaia entzun orduan larritu egin zen eta birritan pentsatu ere egin barik, hartu maskelutik burruntzalikada batzuk esne eta estegorri, bihoztura eta ametsorrirainoko guztiak erre eginik mugitu zen elizarantz.

Bidean zihoala, belu ailegatzeko ardurak ez eze, urdaileko esne irakinak ere ez ei zion onik egin.

Mezara sartu zen baina aurrekorik ere ezin ei zuen ikusten urdaileko min erre eta tripalekin.

Meza ostean, inogaz egoteko asti barik, etxera zetorren, harantzean baino alosotxoago eta bidean pentsatzen ei zuen:

–Oño! Hor gabiltzak horiek laminok uxatu ezinda, ba nik neuk gorriak ikusi baditut eurei ere beste hainbeste eginez gero, santo erremedio! kenduko zaizkiek esnea edateko intziguok, esnezaleak badira ere.

Etxera ailegatu zenean, kontatu ei zien zer pasatu zitzaion eta domeketako erropok kentzeko asti barik badiotse seguru:

–E! astelehenean, edo ilenean, Zeberio eta Orozkon esaten dutenez, lamina horiek datozkigunean, esan egin behar diegu: “badago esnea, gura dena, zenbat gura eta harexenbeste”, eta maskeluko esne irakina eman tripak guztiak erretzeko, ez zaizkigu berriro etorriko, ikusiko duzue!

Esan eta egin. Badatoz laminok ilen edo astelehen goizean, hartzen dituzte zurrupada batzuk esne irakin eta ene! hango grillistu, magalots eta galapada!

Holaxe galdu ei ziren betiko laminok. Esne irakina edan orduan, batzuk pagartetik beste batzuk lizar artetik, lamina denak ostendu ei ziren Lanprea-beko errota osteko hazbitarteetako estarietan, eta gehiago ez ei ziren atomatu etortzen.

Hola izango zitzaizun, ze ni neu bertakoa natzaizu eta nire gogoaldian ez dut ikusi laminarik gure errotan.

Denak dira entzuteak, lehenagokoek antza, sinestu egiten ei zuten hola-koetan. Zer egingo diogu ba, gaur ez dago lehengorik, graziak!”

Kontu polit hau entzu eta gero, afaldu egin zuten eta lastamarrazko ohera hurrengo egunean tertzioz ekiteko Gorbeiaiko aurgora-bideari.

Esan eta egin. Hurrengo goizean, goizeko inontzean irten zuten Lanpreabetik Lekobidek, Izarrek eta bertako etxagunaren seme zaharrenak gidari lanak egiteko.

Pagomakurrera heldu ziren lehenengo, gero Arrabara. Handik lasterrera Egiriñaon zeuden, bertoko iturrian ur trago bat egiten.

Behin Egiriñaora ezker, zaldiok pago banari lotu eta oinez egin zuten Gorbeia gainerainoko bidea. Lekobideri begiak ere lausotu egiten zitzaizkion beste biak baino urteetan aurrerago zegoelako. Izar izan zen lehenengo Gorbeia tontorreatan.

Beste mendietan bezala, Lekobidek oboan-oboan, lau haizeetarakoa erakutsi zion Izar mutil gazteari.

Oiz mendira adi jarri ziren hirurak. Zelako ikuspegia! Hirurak zeuden isilik baina Izarren garaunak baeragoioen, zeri? eta Mari Anbotokoaren kontuari. Oizen esan zion Lekobidek Gorbeiaiko kobazuloren baten egiten zituela zazpi urte eta horren berri jakin nahian badiotso:



-Aizu, Lekobide, non da ba hemen Mari Anbotokoaren egoitza?

-Hori, nik baino hobeto honek Lanpreabekoonek jakingo dizu!

-Hortxe, Itxinako hazduian -erantzun zien Lanpreabeko mutilak-, hortxe duzue Supelegorreko kobazulo ikaragarria. Hor, inon diren kontuak eta

gehiago gertatu ei dira. Supelegorreko koba aipatzen dudan bakoitzean, aiti-tak kontatutako ipuin zoragarri bat datorkit gogora, zein? eta haxe:

“Kristautasuna Euskal Herrira heldu berri zegoela, Gorbeia inguruko herri txiki eta polit baten, olagizon handiki bat bizi zen bere ola zaharrean.

Urteak joan urteak etorri, zaharkitu eta gauzeztandu egin zitzaion bere ola zahar maitea eta berria egitea pentsatu zuen.

Esan eta egin. Lehenengo, ola zaharrak zeuzkan gauza probetxugarriak aukeratu, gero falta zitzaion beste guztia lortu eta hasi zen ola berri hori egiten handikeriaz beterik.

Behingo baten lortu zuen ola berri hori egitea eta pozik baino ere pozago zegoen lehengoa baino ola handiagoa eta hobea egin zuelako.

Herriko zein albo-herrietako beste olagizonek sorots egiten zioten euren olatxoak ezerezean geratuko ote ziren beldurrez.

Egunak joan egunak etorri, heldu zitzaion olagizon handiki horri ola berria martxan botatzeko eguna.

Harrokeria ez zitzaion falta eta herri guztiari ez eze, beste olagizon apal guztiei ere agindu zien bere ola modernoak ikusten joateko gonbitea.

Hura bai zela ikustea! Herri osoa ola berriaren inguruan, beste olagizonak ere urruntxutik begira eta erdi-erdian olagizon handikia.

Denak isildu zirenean, olagizon handiki horrek hiru-lau berba botatzeko errotarrizko mahai batera igo eta badio:

–Hemen daukazue aspaldiko partez, inguru guztiko olarik handiena eta onena. Aurrerantzean ez duzue edukiko zeuon lan-tresnak logretako arazorik. Oraintxe, zeuon guztion aurrean botako dut martxan ola berri hau eta badakizue, aurrerantzean etorri denok neure ola berrira!

Entzuleen artean era guztietako harrerak ikus zitezkeen. Olagizon handikiaren bezeroak pozik, beste batzuk ezbaian eta hirugarren batzuk ardu-raz ea beste olagizon apalekin zer gertatuko ote den pentsatzen.

Handik lasterrera, jaitsi zen olagizon handiki hori igota zegoen mahaitik eta bere ola martxan botatzeko, antaparako uhatea zabaldu zuen ur-indarra joan zekion olari. Baina ur hori joaten hasiaz batera, krisst-krausst! zarata berezi bat entzun zen eta olak zirkinik ere ez! Bigarrenez ere egin eta berdin!

Olagizon handikia ez zen ausartzen hirugarren intentoa egiten. Zuri-zuri zegoen, kolorga, zer pentsatu ez zekieka herritar guztien berbaroaren erdian. Berbalotsa ez zen falta ez herritarren artean eta apur bat isildu zenean jendea, badiotso handik atze partetik beste olagizon apal eta zintzo batek:

–Hi, hor heure burua apurtzen egon beharrean, zergatik ez hoa Gorbeia ondoko Supelegor kobara eta Mari Anbotokoari kontsulta eskatu. Inork esatekotan, harexek esango dik zer arraio gertatzen zaion ola berri honi!

–Ba, mutil –erantzun zion olagizon handikiak–, hori baino ez bada joan egingo natzaiok lehenbailehen eta berenberegí joan ere gainera.

Asmo horrekin etxeratu zen olagizon handiki hura beste guztiak, harriturik, euren etxeetara zihoazen bitartean.

Gau luzeak asko igaro zituen, baina ez halakorik. Inondik eta inora ere ezin zuen loak hartu. Gaueko piztia guztien hotsak entzun zituen gauaro larri hartan.

Hurrengo goizean, tertzioz jaiki, barausi, hartu zakuto baten biderako jakia, jantzi mendirako soineko eta oinetakoak, aitearen egin etxetik irtekeran eta Gorbeiaiko bidea hartu zuen.

Bazihoan Supelegor kobarantz, arin joan ere, inori berbarik egiteko intzigu eta adore handi barik.

Mendian gora zela, hainbat artzain, mandazain, egurgin, ikazkin eta gainetiko ikusten zuen ikusi ere baina ez zegoen berbagura olagizon handiki hori, harik eta bere barruko ardura kendu arte.

Joan eta joan, halako baten heldu zen Supelegorreko kobaren atakara. Barrura sartu orduko, atsedean piti bat hartu zuen, izerdia sikatu eta arnases-tua kentzeko.

Nasaitu zenean, zutundu eta astiro-astiro sartu zen sartu ere Supelegorreko koba nagusi eta ikaragarri.

Ikaraturik zegoen hango harrilanduzko mahaiak, urregorritzko tresnak eta apaingarri guztiak ikustean.

Bazter guztietara adi zihoan kobazuloan barrurantz eta halako baten, handik sakonetik, berba hauek entzun zituen:

–Nor dabil hor?

–Neu nauzu –erantzun zion olagizon handikiak birdurkilik–, urli lekutako olagizona! Eta zu nor zaitut ba?

–Ni? Mari Anbotokoa!

–Ba, zeugana nator kontsulta egitera!

–Eseri hor harrilanduzko aurki baten eta itxaron, atoan nauzu zeure aurrean!

Olagizon handikia jesarri zen eta, esaneko moduan, berehala plantatu zitzaion Mari Anbotokoa bere ondoan.

Andre zoragarria zirudien, ondo jantzita, ileak ondo orraztuta, larru-azala urdin-urdina eta berbaikuna gozokoa.

Mari Anbotoko horrek, sagardoa atera zion mahaira urregorritzko baso baten eta olagizonak, ohitura zeukanez, "Jesus" esan eta tragu bat egin zuen.

Olagizonaren harridura eta ulertu ezina ikustean, badiotso dultze-dultze eta erdi irribarrez Mari Anbotokoak:

–Ez hadi ikaratu! Kristo jaioz gero ez hainbeste baina aurretik herritar asko etorri izan duk hona, nigana, kontsulta eske. Beraz, nasai! Zerk hakar hona hain estu eta larri?

–Ba, hara, ola berri bat egin berri dut eta martxan botatzen joan naize-nean, krisst-krausst! entzun ondoren zirkinik ere ez dit egin eta berorren-gana nator kontsulta eske!

–Baina, martxan bota aurretik kristau-ohiturako bedeinkaziorik edo errezurik bota diozue?

–Ez ba!

–Ba, begira –erantzun zion Mari Anbotokoak–, ola berri hori deabruak zeukak lotuta eta martxan bota eta behar den moduan ibiltzea gura baduk, urli lekutako komentuko abadeak bedeinkatu egin behar dik Gabon egu-neko gauerdian, gaueko hamabietan.

–Gabon egunean? –zirautson olagizonak—. Ba Gabonak gain-gainean ditugu, oraintxe gabiltza gabonkariak prestatzen egun handiok ospatzeko!

–Hola bada hobe, arinago lortuko duk ola berria martxan ipintzea. Orain joan hadi bake-bakean eta hurrengorako badakik zer egin. Ni neu hemen geratuko nauk kristau-aroan ez baitaukat botererik, baina zuok ospatu zintzo-zintzo eguberri kristautuak. Gehiago oraindik, hau urregorritzko basoau eroan ezak heurekin, edakeran bedeinkatu egin duk eta!

Olagizon handikiak eskerrak eman zizkion Mari Anbotokoari eta kobazulotik atzerantz itenez, etxerako bidea hartu zuen urregorritzko baso eta guzti.

Gorantzean baino beherantzean adoretuago zegoen olagizon handikia eta zantzo batzuk ere bota zituen pozaren pozez.

Olara heldu zenean, inori ezer esan barik, jantzi domeketako soinekoak, hartu zalpurdia eta Mari Anbotokoak esaneko komentura abiatu zen.

Aida! aida! esanda bizkortzen zituen zaldiok eta bazihoan bideak betean herriko jende guztia adi utzita.

Komentura iritsi zenean, saltu bat egin bere zalpurditik eta komentuko atean eupada bat egin zuen eta abadea eskatu.

Etorri zitzaion abadea eta olagizon horren urduritasuna ikustean, ezbehar gorriren bat gertatu zelakoan edo badiotso:

–Zer Jaungoiko gertatzen da ba hain estu eta larri etortzeko?

–Zer gertatzen zaidan? Ba, aditu: Ola berria egin berri dut eta Mari Anbotokoaren esanetatik, deabruak dauka lotuta ola hori eta martxan botatzeko komentu honetako abadearen bedeinkazioa behar dela jakin dut.

–Tira ba –erantzun zion abadeak–, gaur Gabon bezpera dugu eta bihar joango natzaizu. Gabon gaua zeuonean egingo dugu eta gauerdiko hamabietan bedeinkazioa botako diogu ola berri horri.

Halaxe egin zuten. Abadeak bedeinkazioa boteaz batera deabruaren ikaragarritzko burrrrrrundada! bat entzun zen ola guztian zehar.

Bedeinkazio ostean, trikitin-traukitin! martxan hasi zen mugitu ezinik zegoen ola berria.

Olagizonak, alde batera bota zituen bere ordura arteko harrokeria guztiak eta herritar on lez bizitzen ikasi etorkizunean”.

Izar ez eze, Lekobide bera ere ikaratuta geratu zen ipuin zoragarri hura entzutean.

Beherantzarako zutundu zirenean, Lekobidek argi utzi zion Izarri zergatik zen Gorbeia adar edo bozina-mendirik garantzitsuena, izan ere, trokak edo izan ezik, ia Bizkai osoa ikusten delako bertatik.

Egun horretako gaua ere Lanpreabeko errotan egin zuten eta hurrengo goizean berrien berriz Altamirara, pozari eutsi ezinda bai bata eta bai bestea. Maria eta Lekobidesea ere sinestu ezinik zeuden Izarrek kontaktzen zizkien berriekin. Ez zen gutxiagorako, Izar zelako Altamirako etxaguntzako eguzki!

Egun batzuk Altamira eta inguruetan eman ondoren, udagoieneko uzta-roz gero, astitsu zebiltzanez, Lekobidek astebeteko joan-etorria egin nahi zuen Izarri Ganekogorta eta ingurumariak erakusteko.

Pentsatu eta egin. Izarrek ez zion ezetzik esan adar edo bozina-mendi bakoitzean inon diren kontuak ikasten baitzituen.


Ganekogortara orduko, Zeberiotik zehar zihoazen, Untzeta, Zeberio eta Orozko bitartean dagoen mendi punta politerantz. Bidean Aibelabe tontorraren hegoaldeko artadua zeharkatu zuten, aurreragoan lurbel hezoetako beresian atsedean apur bat hartu eta Orozko eta Zeberioko ergoienetik helbarrenerako ikuspegi zoragarria gozatu.

Behin Untzetara ezkero, Lekobidek hango hangotasun guztiak erakutsi zizkion Izarri, besteak beste, haitz bizian egindako hegillamua eta bertan zegoen trabukoa.

Izarrek ez zuen halakorik inoiz ikusi eta bere harridura eta guzti galdetu egin zion Lekobideri:

–Zertarako den baino ez da hau tramankulu hau?

–Hori? –erantzun zion Lekobidek–, aditu ondo, Izar, Orozkotik aurrerako Urduñarako bidean, “Malato” deritzon arbola bat dago eta horraxerainokoa da gure lurraldea. Erbestekoren bat agertzen denean, guk, baizkaitarrok horraxeraino defenditzen dugu geurea eta behin Malatora ezkero, armak bota. Baina, badaezpada, ondo datorkigu hemen Untzeta mendian trabuko hau edukitzea. Trabuko honekin, kare-harrizko harri-bolak botatzen dira txirran edo bilin-bolan mendia behera, inbaditzailea nondik nora, ba harri-bolak haraxe. Herritar askok jentil-bolak direla uste du, baina ez, defentsa-harriak dira.



Zuk jakin ere ez dakizu, baina garai baten mairuak hurreratu zitzaizkigun, hor dago orain ere Gorbeiaiko Mairulegorreta koba famatua, eta eginen handia eman zigun gure herritik andafuerazko jantzia emateak, baina tira, behingo baten bota genituen Malato arbolatik harantz. Gaztelar eta asturiarrak ere elkar-laguntza eskatu ziguten eta Malatotik harantz ere ibili ginen mairuen aurka. Baina, behin mairuak hegoalderantz botaz gero, hoztuz joan dira gure gaztelar zein asturiarrenako harremanak. Orain ez daukagu

mairuen beldurrik baina gaztela-asturiarrek eurek dute gure herriaren egarria eta guk prest egon behar dugu zein arerieren bat geureaz jabetu. Ulertzen duzu orain gure defenza-bidea?

Untzetan egotaldi bat egin eta gero, beherantz zetozen Zeberioko Irua-txeta eta Udiarraga partetik. Udiarraga auzunera ailegatu zirenean, badiotso Lekobidek:

–Izar, zuk jakin ere ez duzu egingo hemen Udiarragan zer gertatu zen!

–Ez ba!

–Ba, begiratu, Zeberio helbarrenen gaude, Orozko parterantz, Udiarra-gan, Ugaoren mugan.

Udiarragan Amabirjinea agertu zen arantza edo elorri baten gainean, hementxe, Zeberio eta Ugaoren arteko lindero-linderoan.

Zeberioztarrak Udiarragako Amabirjinea Santa Kurtzeko eliza dagoen tokira eroan zuten. Lehenago han ez zegoen elizarik, haritz handi bat baino, eta haraxe eroan zuten.

Handik lasterrera, Udiarragako Amabirjineak, Santa Kurtz utzi eta berriro hartu zuen Udiarragako arantza gainea.

Gauzak horrela, Zeberio eta Ugaoko abadeak Ugaon elkartu ziren gaur Udiarragako Amabirjinearen eliza dagoen tokian.

Lehenengotan, jakina, han ere ez zegoen gaurko elizarik, beste haritz handi bat baino. Haritz horren azpian elkartzen ziren Zeberio, Orozko, Lau-dio eta abar luze bateko pastoreak Gorbeiatik ganaduak nora ekarri ebatzi eta barrutiak banatzeko.

Abadeok ere han elkartu ziren eta Udiarragako Amabirjinea zein herri-tara eroan ebatzi baino lehen, prozesio bi egitea onartu zuten: Bata Udiarragatik Santa Kurtzera eta bestea Udiarragatik Ugaora, hau da, bietan zeu-den haritz nagusipetara.

Prozesioetarako baldintza bat ipini zuten, zein? eta hauxe: Bai batzuek eta bai besteek, argizaiola bedeinkatu bat izituta eroatea, eta harizpe bakoi-tzean argizaiola izitu gehien daukanarentzat izatea Udiarragako Amabirjinea.

Lehenengo Zeberiokoek eragoioen prozesioan eta esaneko harizpera heldu zirenean, ia argizaiola guztiak amatatuta zeuzkaten.

Ugaokoek ere beste hainbeste egin zuten eta hangoek osteras askoz argi-zaiola gehiago eduki zituzten amatatu barik euren harizpera ailegakeran.

Herri bietako abadeok berriro ere batzartu ziren eta ordurik hona Ugaon geratu zen Udiarragako Amabirjinea.

Ugaotarrek ermita txikitxo bat egin zioten Amabirjineari hantxe harizpean eta urteak joan urteak etorri, txiki geratu zitzaenez, eliza handiagoa egin zuten. Polita benetan! Gaineko fedea eta debozioa dio hemengo jendeak!”

Zeberio helbarreneko Arkulandako harri-pausoak dauden erreka-arroan ura edaten ipini zituzten zaldiok eta gero zalpurdiari hedeak lotuz Ganekogotako bidea hartu zuten.

Ganekogortarako bidean hainbat jendekin egin zuten topo eta han Zollo partean gaztandui handi batetik zihoazela geratu egin ziren. Lekobidek hura ere erakutsi nahi zion Izarri eta egur eskarmentatua sugin ona denez gero, Zolloko bati esan zion ba ze:

–Aizu, kontatuko al diozu honi gazteoni zertan zabiltzaten?

–Hobe ez, eta pozik gainera!

“Antzina, jentilak, nik neuk ezin esan nezake jentil horiek ikusi ditudanik baina eduki badaukat entzunda gaztaina batze orduan eta, ikusten zituztela. Jakina, eurak ere gose izango ziren eta, gure moduan, hartantxe, gaztaina pilatzen ibiliko ziren.

Lehenago bezala, gaur ere gaztaina baso guztietan daukagu, behar ere urte guztian zehar jateko behar izaten da eta.

Hor zemendi inguruan hasten gara gaztainondoak erazten fartika luze batzuekin eta gero kirikinoak batu eskutila edo ugelaxoaz zein kirikino-arrak eskua edo beste zeozer mankatu.

Partikarekin kontuz ibili behar izaten da, ezpabere, begiratu gure aitita Manueli zer suertatu zitzaion. Partikatik behera jausi zitzaion holako kirikino bat, begi-begian jo eta begi bata galdu egin zitzaion.

Behin kirikinook batuz gero, batzuk etxera ere eroaten ditugu lehenengotan jateko baina gainetikoak basoan bertan uzten dira. Horretarako, kirikinusiak egiteko usadioa daukagu. Batzuk egurrezkoak eta beste batzuk harrizkoak.

Kirikinusiak bete-bete egiten ditugunean, gainetik ida eta egur abarrez josita ipintzen da gain guztia eta gero harri edo egur mokor handiak ipini zein ganaduek gaztainok jan, haizetu eta tragatu, urdailak errementaturik.

Gaztainak, klase askotakoak dauzkagu, saldaimentuak, ataloak, lope-txak, mentugorriak, batzuk esatearren.

Zemendi inguruan hasita, gaztaina asko jaten dugu, batez ere gauetan, bateko egosita besteko erreta, jakina, zerekin harekin bete behar gure ume eta ameen urdailak.

Kirikinusietan kirikinoak usteldu egiten dira eta gero beleki batekin erraz apartatzen dira, eta jan ahala etxera ekarri edo asko egonez gero saldu edo trukean eman.

Beresietan ere edukitzen ditugu gaztaina gazte edo berez erneak. Horiek, zimentzak egiteko gordetzen dira. Gaztaina egur gazteok, ebaki, etxera ekarri, uretan beratzen ipini, labean berotu eta gero matxet batekin zimentzak ateratzen dira. Gero, zimentzok findu eta zesto-otzarak egin, edo aurki-ipurdiak bota, zursubilaren laguntzaz.

Nik neuk ez dakitsut ba besterik gehiago, gura baduzu eman egingo dizut zakuto bete gaztaina etxera zoazenean danborilean erreta jateko!”

Izarrek bihotzez eskertu zion eta aurrera egin zuten Lekobidek eta biek Zollo-menditik gora Ganekogortarantz.

Handik aurreratxuago, zer? eta ikazkinak ez zituzten ba aurkitu! Lekobidek ahoa askatu baino lehen non diotson Izarrek:

–Enel, zer zaizkizu ba horiek?

–Ikazkinak –erantzun zion Lekobidek–, pago-egurrezko ikatza egosten dabilta.

–Eta nola egiten dute ba?

–Ba, hara, nik neuk ere ez dakitsut patxadaz azaltzen baina euretariko batek egingo dizu, bide bat zelakoa den jakiteko, norbera bertatik ibilita egotealakorik ez dago eta.

Lehenengo ikatz-txondorrera hurreratu zirenean, Lekobidek samur-samur berba egin zion ikazgizon adituenari eta esan Izarri ikatz-egostea azaltzeko.

Ikazkin horrek, atsedenaldi bat hartu zuen bere ordez beste bat ipiniz, txondorra jagotea behar-beharrezkoa delako, eta honela zirautson adi eta erne zegoen Izarri:

“Ba, aditu zuhur nire berba eta inguruko lagunen ekintzei. Zemendi inguruan hasten gara basora joaten. Guk enpartikular pago edo eta burbux ikatza egiten dugu, Zollo-mendin enjeneral burbux egurrarekin.

Joaten gara preparentan, egurginen egiten dugu zemendi inguruan hasita zezeila edo martira arteraino eta gero egur batzen botoetara.

Botoak egiteko behetik hesi bat egiten da, hesi fuerte bat, burbux egurrekin, eta gero goiko lurrak behera bota eta zelaitu, zeinda kortabaso txiki baten antzera, biribila, bueltan-bueltan, oboan-oboan, baina zelai-zelai, larrina letxe.

Gero bada beste usu edo kostunbre bat, hots, aidean egiten da botoa. Urkulu edo urkatxen gainean ipintzen dira egur batzuk lurlean sartuta, lurretik inkatuta eta zelaia askoz ere fazilago egiten dugu, hegillamuaren antza, edukitzen dizu baina biribilean, behetik palatua letxe ipinita, hesi ganorazkoaren gainean.

Gero ba txondorginen hasten gara eta ba txondorra kargatzen da. Denodu guztiarekin ibili behar izaten dugu.

Erdian ipintzen zaio kargerea esaten zaion egur bat, egur lerdan eta lodi bat, eta hasten gara egurra zutunik ipintzen kargereari deusala .

Bere inguruan egurra zutunik ipini eta gero beste pisu bat, oseake, iru edo lau pisu edukitzen ditu txondorrak.

Haiek egurrak zutunik ipini eta gero txondorra apur bat hola berrogeita bost gradu inguruan edo paratuko zaizu zelai-aldatzean. Gero egiten zaio azala esaten zaiona egur txikerragoekin eta finagoekin, bai, azala egiten zaio.

Eta gero zohia egonez gero eraz, zohia ateratzen da tapatzeko eta zohia egon ezik eraz, ira ekartzen da, eta irarekin tapetan dugu lehenengo eta gero gainetik botatzen zaio iduria esaten zaion hautsa.

Iduria egoten da lehenengo boto zaharretan. Han topatzen da baina osterantzean hola lur fazil bat topatu eta galbaheaz eralgi egin behar izaten dugu gainetik tapatzeko arnasarik hartu ez egiteko. Ikatzak egosi egin behar du, ez erre.

Eta gero kargerea esaten zaiona ez da luzea izaten, hor metroterdi bat edo dauka luzarian eta txondorra kargatu ahala gorantz eroaten da ateraz-ateraz kargerea.

Zenbat eta txondorra luzeagoa egin, gorago eroan behar izaten da egur hura eta gero atzenean atera egiten zaio.

Gero iduriz eta iraz tapatzen denean handik zuloatik behera botatzen zaio brasa eta egur txikitxoak, abar antzekoak, zozpal meheekin batera, behean har dezan suak.

Lehenengo apurtxo baten txondorraren ahoa zabalik edukitzen da baina gero ahoa tapatu egiten zaio, suak hobeto hartzeko.

Eta gero suak hartzen duenean gain hura tapatu eta gero ordu bat edo beste barru zulo hura egurrez betetzen zaio, egur txikitxoak txikertuta hura bete eta gero beste ordu bi edo hiru barru, betegarria eskatzen du txondorrak.

Betegarria izaten da, egurrak zutunik daudenak harroren bat eduki eta ikatz egiten hasi orduan plegatu egiten dira, eta haiek plegatu orduan bitar-

teek irteten dute, zuloak, eta zuloak betetzeko izaten zaizu hura betegarria esaten zaiona.

Eta txondorrak, hola berrogei bat karga inguruko txondorrak, ba, eskatzen du lau edo bost betegarri, harik eta puntan ikatza egin arteraino.

Txondorrak gero puntan ikatza egin orduan txondorrari betegarriak uzten dio, eta piperdi egiteko astiak ere ematen digu.

Hori piperdiarena, zuk jakingo duzu, esakera da, eta hori esatea deskantsu apur bat hartzea izaten da, solo-beharretan ere tamainu baten piperdi erretzen da, daukanak, jakina, eta ez daukanak deskantsu piti bat eta pozik gainera.

Gauiluntzean egiten zaio, zapalagea esaten zaion porra bat egoten da eta harekin zapaldu eta gauean iduri apur bat bota goian goiko puntan gaua pasatzeko, betegarrian dagoen arte ez, betegarrian dagoen arte gauerdian ere igual-igual eskatzen du betegarria eta gero etortzen da beherantz-beherantz ikatza egiten goitik eta gau guztietan egiten zaio martxa, ba zapalagatu eta zulorik badauka tapatu eta iduri apur bat bota eta apur bat itota utzi gauean bake apur bat emateko, lo altzi bat egiteko ere.

Eta gero magaletara esaten zaiona beheko barrenera ailegatu orduan ere bastante prisaz ibiltzen da, alde bat tapatzen zaionean beste magaletik irten lezake suak, eta haiek tapatzen ia magalean dagoenean ere behar handia ematen du eta magaletara ailegatuz gero ba gau bat edo egun bat eta gau bat edo uzten da eta akabatzen da, aitzen didazu? Ez dakit ba, beharleku hau zuontzat gazteontzat enbrollu lar ez ete den!

Goazen aurrera. Eta gero egiten da hoztu esaten zaiona, hoztu txondorra. Belekia, oholezko arraspa baten antzekoa da eta harekin goitik behera dena arraspatu behar da ondo eta basoinarrak ipini preparatuta eta basoinarrearekin igurdi eta gero iduri haiek siku-siku egoten dira eta haiek ikatz bitarteetatik sartu egiten ditugu eta amatatu egiten dute txondorra, oseake, sano sua galtzen du, suabe pasatzen zaio ba hozteko eta gero bigarren egunean edo maskalak ateraten zaizkio zergatik ze maskaletan egoten da ostera ere surik gehien.

Eta gero ba hurrengo goizean goizetitxo jaikita eguzkiak irten orduko enjeneral ikatza ateratzen da, segun zelan pentsatzen duen batek.

Ba, aterata gero, boto barreanean egoten da zabal, suagaitino, surik irten badu amatatu eta gero han egon behar du sikieran zortzi-hamar orduan.

Eta gero surik ez badauka botatzen da larrina esaten zaion lekura horko txondorreko ikatza.

Horixe, horixe zaizu gure ikatz egostea. Txondor baten lana egin-akabatzeak eginen handia ematen digu eta beharlekualangoa izaten da ba, itzala, batez ere, bero txangori edo bero handietan, egun kanikulan berriz, azkena!“

Egia esateko Izarrek ez zuen zehatzegi ulertu baina bihotzez eskertu zion ikazkin hari hark berak emandako azalpena.

Igo eta igo, heldu ziren Ganekogorta gainera eta Lekobidek hango ingurumari guztiak erakutsi zizkion Izarri.

Beherantzean Pagasarritik etorri ziren eta han etenalditxo bat egin zuten. Aurrez aur Bilbo zeukaten, haragoan itsasoa eta ekialderantz Padura zelai-kada. Lekobide dena zen esplikazioa. Padura dela eta, gaztetan ikasitako latinezko azalpen guztiak eman zizkion Izarri. Lekobidek bazekien jakin ere, Paluda zela izen zaharra, geroagoan, Padula eta azkenean Padura, horixe baitzen erromatarrek zelai zingiratsuak adierazteko erabiltzen zuten izena.

Lekobidek Bilboko San Antongo eliza eta hartubia erakusi zizkionean, hango abadeari gertatutakoa gogoratuz, pasadizu hau kontatu zion denera adi zebilen Izarri:

“Behin baten izan zen abade bat eta ibili zebilen uda inguruan Bilboko San Antongo erreka bestaldeko bere kanpoak eta ikusten. Urte horretan, artotzak ernaro ederrean zeuden eta galondoak inoiz ez lakoak. Abade hori sotanak ere ez zuen hartzen pozaren pozez eta eliz erropak soinean dituela han eragoion solook bedeinkatu eta solook bedeinkatu zein behar ez denen bat suertatu, jo eta dena alferrik galdu.

Eta, halakoren baten agertu egin zitzaion gizon bat. Hori izan zen deabrua gizonaren feturan, forma-itxuran ezta, eta etorri zitzaion tentazar. Ez zekien berak nor zen, eta horretara, badiotso gizon zer horrek abadeari:

–Zelako kanpo ederrak daukazuen ezta herri honetan? eta

–Bai, benetan ederrak! Hobeak ere inoiz eduki ditugu baina!

Eta esan zion gizon edo deabru horrek:

–Nik baditut ba zaldiak kanpo hauek behingoan apurtuko dituztenak!

–Eta bai?

–Ba, bai!

Eta abadeak erantzun zion:

–Ba nik neuk ere baditut hede zail eta luzangak zaldi madarikatu horiek lotzekoak!

Eta, bueno, hola ibili zitzaizkigun berbaz biak bietara eta lehen esanari gutxi iritzita edo, non diotson berriro deabru mantzin hark abadeari:

–Ba, gaur gauera orduko kanpo hauek ezererezean, gauzeztandurik utziko dizkizut nire neure zaldi gorri horiekin, lotsari eta bajeza gorrian ipi-niko zaituztet, ikusiko duzue! Inoiz ez lakoak bizi beharko dizkidazue!

Eta joan zen gizon hura eta abadea izerdi larria dariola geratu zitzaigun bere buruari ziotsola:

–Zerk izan behar ete du hemen? Nor izan den baino ez duk hau berbaz eduki dudan elementu parte txarreko hau!

Eta, halakoren baten abade hori apur bat konortera etorri zenean etxera joan zen gose bako bazkari antzerako bat egiten. Bazkaldu eta estukurak jota ezin zuen bekanekoa ere bota eta balkoian plantatu zen zerura adi. Eguna argia zen izan ere eta arrastirantz laino batzuk agertu ziren, hodei laino batzuk Aibelabeko haitz gainetik. Abadea estutzen hasi zen eta abade-
txeak ere ez zuen hartzen batera besterako sotana-magalots eta guzti.

–Jagoten egon behar dut ba –zioen abadeak– ea zer datorkigun ikusi arteraino! Jainkoarren, ez dadila izan harri, txirgora, abazuza edo gauza txarren bat, hola bada argiak gaude aurtent!

Eta bazetorren etorri ere kargatzen-kargatzen denborale txarra, afruntua, akordatzako edo ustekabeko ekaitza eta hodei dorreak alde guztietatik denak bat egin guran.

Eta ba Bilboko jendea ere sano estututa paratu zen zerk pasatu behar ete duen pentsatzen!

Inizituak eta trumoiotsak inoiz ez lakoak ziren izan ere eta herri guztia zegoen beldursartu eginda.

Abadea hasi ere egin zen bere brebiario edo otoitz liburu hori atera eta errezuak egiten abadetxeko atakatik.

Eduki ere bazeukan ortu bat abade horrek eta halakoren baten ikusi zuen orduan ba jausi behar duela ur-golpe handiren batek berekitan eragoion: ekaitz hau jaustekoa bada, jaus dadila nire neure ortuko barrikara barrura! Hantxe zeukan eduki ere abadeak sagardo upel handi bat itusurako urerako, eta haraxe!

Eta hasi zen jausten harria eta gainetiko guztia, ganoso jausi ere. Zeruak lurrera etorri behar zuela zirudien baina mirakulua edo nik ez dakit zer, nora? eta ez da ba ekaitz osoa abadearen barrika horretara jausten!

Bilbotarrek ezin zuten ia sinestu ere egin. Abadeak ere ez zekien iratzarrik ala ametsetan dagoen. Gauza da ze, urte horretan inoizkorik eta kositzarik handiena ezagutu zutela abadearen errezuei esker.”

Ikusiak ikusi eta entzunak entzunda, Bilbora jatsi ziren eta bertan eman zituzten pare bat egun itsasoraino guztia ezagutzen.

Bilboko hori egin zutenean, Lekobidek ikusirik Izar ibiltzeko prest zegoela badiotso birritan pentsatu ere egin barik:

–Izar, Bilbon gaudenez gero, zer deritzazu etxera barik segituan Kolutza mendira joateari?

–Joatea baino ez dago! –erantzun zion alimoso Izarrek.

Eta joan egin ziren. Bilboko zelaia igaro ondoren, Basurtotik gora jo zuten Kastrejanako aurgorari ekinez.

Joanean-joanean, Kolutza mendi tontorrera heldu ziren. Leku zoragarria benetan. Nolabait esateko, Ibaizabal eta Nerbion ibai bikoitzen eta Balmasedako ibarraren talaia zirudien. Zelako belardiak era guztietako ganaduentzat!

Izar, ia-ia zorabiatu rik zegoen, edan gabeko hordiaz, eta hango hango-tasunak ere jakin nahian badiotso Lekobideri:

–Beste lau mendietan pasadizu edo ipuinen bat kontatu didazu, lurralde honetarako ez daukazu ezer ala?

–Ba, egia esateko, ez besteetan beste –erantzun zion Lekobidek–, baina gura baduzu, hor, lehentxoago igaro dugun Kastrejanapeko hartzubiaren historia sinestezina kontatuko dizut. Kontu hau, Zeberioeko etxagun nagusiari entzunda deukotsat Gernikarantzako baten. Hor doakizu:

“Baten, Kastrejanako neskato bat Bilboko jaietara joan ei zen eta gusura ibili ere antza erromerian bere lagunabarrekin.

Orduak aurrera zihoazkion eta gesu baten ilundu egin behar, eta, lagunok bertan behera utziz abantean mugitu ei zen Kastrejanako aldatsa gora orpoetan ar barik, begiak bota beharrean eta bularrestuarekin arnasa hartu ezin duela.

Etxe aintziner ailegatu zenean gogor baino gogorrago hartu zuen aitak eta mihian ar barik badiotso:

–Zer tertzio dun hau etxera etortzeko, ez dinat argi esan hortik zehar zeinakio egon beharrean abemariak jo aurretik etxera etorri eta iturriko ura ekartzeko? Ba, orain, hartu ezan jarroa eta joan hadi agudo iturriko uretan egarriz tximeltan gauden etxeko guztiok eta!, gainera ondo irakutzi ezan jarroa, honezkero egurdiko ur egonduarekin sumikea eta ugeldarrirainoko guztiak eginda edukiko ditin eta!

Neskatxi horrek ez ei zuen txitik ere atera eta zuzi baten hartu ei zuen iturrira bidea guztiz gautu orduko egiteko iturriko haronako hori.

Iturria urruntxo zeukan eta gainera erreka bestalde. Gaua gainera gainetu behar zitzaion eta, estukuraren estukuraz badio berekitan: "Oraintxe ez zaidak etorriko parte txarrekoen bat hemendixek horraxa, iturrira, zubi bat egiteko?" Askok balekik zenbat baino gurago nukkeen horixe! Demonintra!

Esan zuena esan bazuen ba ze, ez zaio agertzen bere magal petralaren ondoan endemoninozko kabailero bat eta esan:

-Zer gura didan ba, neskato?

-Zer gurako diat ba, zubia!

-Ba, zubia gura badun hik heuk heure arima emon behar didan zubia egin akabatuz batera!

-Ba, bai, eutsi arima hau nor zaren beist!

Esan egin zituen berba horiek baina akordatzakoan agertzen zaizkio infernuko prakagorri guztiok eta berbarturainoko guztiak etorri zitzaizkion neskato horri. Kontuak atera hura zer ote zen, deabru koxoren batek, koxoa izateagatik, beste guztien erremintak eta nik ez dakit zenbat kintaleko harria eroaten zuen ere.

Hura bai zela ikustea, denek eragoioen beharren, batzuk harritan, beste batzuk harrilantzen eta deabru kaballeroa zaldi gainetik agintzen. Esaten dute, harriak Gorbeiatik, Dimatxetatik (Dimako haitzetatik) eta hortik zere-tik, Oiztik ekartzen zituztela.

-Neskatoa, arteak ere ezin zuen hartu eta belea beltzago ez dela egingo pentsatuta, jaurti jarro hori, utzi bertan behera prakagorriok eta karran joan ei zen hurren zeukan komentuko abadeagana eta esan:

-Jauna, jauna! Zabaldu biezat atea, arin, berorrek baleki nondik eta zertan natorkion! Ai, amatxua! Hau da bihozturako mina! Hau bai dela edan bako hordia! Durdiduago sekula inor ez da egon izango! Ai enetxua! zer behar didan baino ez duk deabru mantzin horrek!

Eta abadeak esan ei zion gora-goratan:

-Baina, baina, zer jaungoiko egin didazu ba, alabatxo errukarria, fetura horretan etortzeko? Aitearen eta semearen...! Zerk eman dizun baino ez da afruntu hori!

-Ba, jauna, hauxe eta hauxe eta honantxik eta honantxik deabruari arima ez diot ba ofrezitu! eta, berorregana nator zein arima galdu. Beitsoz nire bekatuok eta barkatu biezazkit!

–Hori egingo zenuen ba, alabatxoa, zuk egin duzu egitekoa, ez dakizu ba nire bedeinkazioarekin ere nahikoa ez dena!

–Zer egin behar dut ba orduan nire neure arima betiko galdu ez egiteko?

–Ba, hara, martian oilarrarekin ibilitako oiloaren arrautzatik martioilar batek jaio behar du eta zubi hori egin akabatu baino lehenago kukurruku gedarrez hasten ez bada zure arimarenak egin du! Pedro boteroren galdaran zaude esanekoa egiten ez badidazu.

Abadeak, komentuko kanpandorreko kanpaiots guztiak gutxi zituen, eta Kastrejana inguruko guztiak batu ei ziren oilar hori topatzeko. Denodu guztiarekin eragoioen eragon ere adinon egoteko asti barik, baina, eginena lan-goa ematen zien eman ere beharleku hark.

Gaua aurrera zihoakien baina marti oilar hori ezin topatu eta bien bitartean deabruak bazebiltzan seguru zubiginen eta azken antzean ibili ere, tenolik ez zitzaien falta ez!

Deabru kabaileroak, adikuna bat zubiari eta beste bat inguruko oilategiari egiten ei zien seguru, eta, luze iritzita zegoena lez, inizitua bera baino zoliago joan ei zen bera ere berenberegi harritan Oiz mendira –horra, lehengo egunean erakusten eroan zintudan urregorri-mendira–, eta horra seguru, nik hori gure zaharrei entzunda deukotset, badakizu.

Abadari ere orduak luze egiten zitzaizkion arrikanprietara ezkerro deabruak botererik ez zeukatela bazekien eta, ze zuk jakingo didazu horiek egunez botererik ez daukatena.

Beste guztiei ostera arinegi zihoakien gaua marti-oilar hori topatu gura-ren topatu guraz.

Ibili eta ibili, halakoren baten ez dute topatzen marti-oilar hori eta gal-tzu zuziak sutan ipinita kukurruku eginarazi!

Neskatoak, deabruak katigatutako arima berrien berriz logratu ei zuen eta, aditu gauzak zelan diren e, deabruak berak ei zekarren zubirako azke-nengo harria, baina marti-oilar horren kukurrukua entzuckeran, hor, Oiz ondoko bazterren baten bota ei zuen harri endemonino hori eta erneguaren erneguaz eman zion eskukazuaz bere arrabeteko atzamar marka eta guzti utzi ei zuen seguru. Hark emango zioan emateko zaplada!

Horrexegatik esaten dute Kastrejanako zubia harri baten faltan lotu zitzaigula. Aikorzan ba Kastrejanako zubi horren gorabeherok! Egia ala gezu-rra? Batek bazekik!”

Izar gaztea, ikaraturik zegoen Lekobideren jakituriaz. Berak baino ez zekien zenbat gauza ikasi zituen haregandik. Lekobide ere pozak hartu ezinik zegoen Izarren arretoa bizia ikustean. A zelako pareta, bata eta bestea!

Behin Kolutza mendikoari bete zutenean, Bilbora bueltatu ziren ibarrik ibar erreka ur garbiaren murmurioa lagun zutelarik.

Hurrengo egunean, Bilbo utzi zuten eta lehengo bideetatik gabe, beste batzuetatik joatea pentsatu zuten Lekobidek.

Jata mendi alderantz jo zuten itsasertzik itsasertz, gero handik aurrera berriro Altamirara heltzeko eta horrela Bizkai guztiari oboan-oboango buelta eman.

Jatabe mendi barrenera iritsi zirenean, han, hegillamu bateko mandabide ertzean kareginen aurkitu zituzten Bakioko etxaguntzakoak.

Lekobidek jakin bazekien karegintzaren berri baina Izarri azaltzeko bestean ez, horregatik karobian zebilen beharginari argitasuna eskatu zion eta hark eman ere bai, berba hauekin:

“Karobietan karea egiten dugu, kare bizia, kare-harriaz. Enjeneral karobia kare-haitzaren ondoan egiten da kare-harria atera eta harrobirik hara karobia betetzeko.

Era bitako karobiak ditugu Bizkaian. Batzuk, geure-geureak, eta pudienteen artean frantsesak. Gure hauek gehienetan kontraterreno baten egiten dira. Kare-harria hur dagoen lekuetan zulo biribil bat egin behar izaten da. Zelako neurrikoa, halako sakonarikoa.

Esan dizudan letxe, kontraterreno horretako beheko aldetik alborik harako zulo bat egiten zaio karobiari. Gero, hor, norbere gerriaren altura inguruan kare-harriko arketa bat, gainetiko guztiari eusteko.

Behin hori eginez gero, goialdetik hasten gara kare akarrean eta kare-harri zatiz betetzen karobi guztia.

Beharleku hori akabakeran, beheko aldeko arketapeko zuloan sua egiten da jeneralean ota-egurrekin, oteak sua bizia edukitzen du eduki ere eta.

Holaxe hasten da karobia martxan eta kare-harriak zurituz-zurituz doaz arketatik hasi eta gora.

Gorengo harriak zuritzen direnean, sua egiteari uzten zaio eta arketapeko iduri, ilenti eta sastaparra guztiak garbitu egiten dira.

Gero, kare egin berri hori ateratze-beharra, goitik zein behetik egiten da. Behetik eginez gero, arketa apurto eta jausi ahala kanpora atera, edo ezpabere, goitik.

Kare errea, zuri-zuria, atera eta gero solora edo behar den lekura eroaten dugu eta han, zabaldu baino lehen, ura bota kare bizia lortzeko.

Ura botakeran, keak irteten du, baina zelako keak! Badaezpada hurregi barik ibili behar izaten dugu zein begiak erre.

Holaxe egiten ditugu kare beharrok. Karobi hauek, etxe bakoitzarentzat bat barik, gehiagoren artean egiten dira, eskubeharra aprobeatzeko eta gero karea banandu. Errentoreak, ugazabari egin behar izaten dio errenta truke edo.

Karobi frantses hauetan, ostera, ikatza egosteko, zura edo koka erabiltzen dute. Harrizko hormadunak dira. Behe partetik zulo bat, labesua egiteko labeak lakoa eta barrua biribila.

Behean, lehenengo ikatza, koka kapa bat ipintzen da eta gainean kare-harrizko beste kapa bat. Gero berriro koka eta gainean kare-harriak. Hola bete arteraino.

Sua behetik ematen zaio eta ikatza erre ahala kare-harria zurituz doa eta karobi barruko blokea beherantz.

Orduan, karea egin ahala atera egiten da beheko partetik eta nibela zelan bajatu hala kargatzen da goitik karobia beti beterik edukitzeko.

Sistema honek geratu barik dauka karobia, goitik bota behetik atera baina karea ez da garbi-garbia, lehen esan dizudan gure karobietakoa lakoa. Karobi frantses hauetako karea, ikatz errearekin batera dator eta jakina, derrigorrez nahastu behar.

Horregatik, kare nahastu hau, solorako erabiltzen dugu gehienbat, soloak karea ez eze, ikatz iduriak ere ondo hartzen dituelako.

Ostera, arrautzak karetan sartzeko, hormak zuritzeko eta holakoetarako gure karobietako kare zuri-zuria lakorik ez dago.

Ez dakit ba, gazte, gehiago zer esan, hemen bazeunde gurekin ondo ere ondo ikasiko zenuke karearen berri, sasoa daukazu ba makala!"

Izar, geratu ere egingo zen kareginarekin baina Lekobidek sorbaldatik eskua bota eta irribarre bat eginez esan zion:

–Izar, ondo dago zure borondatea erakustea eta badakit kapaza ere bazarena baina beharleku hau ez da zuretzat, zu, beste zeregin handiago batzuetarako behar zaitut. Goazen aurrera, ekin diezaiozun geure bideari gauera orduko Altamira hartzeko.

Halaxe egin zuten egin ere. Bakio utzi eta Bermeoko bideari ekin zioten biek bietara berbalotsean.

Bakioko aldasgora igo eta aurreratxoagoan, ezkerretara, Gaztelugatxeri erreparatu zioten eta Lekobidek birritan pentsatu barik, badiotso Izarri:

–Utz ditzagun zaldiok eta goazen oinez Gaztelugatxera!

–Bai, gura baduzu, nik neuk zer gurago leku berriak ikustea eta ezagutzea baino! -erantzun zion esku biak igurtziz, Izarrek.

Bizkaian zehar hainbat leku arriskutsu ikusi zuten baina Gaztelugatxeko igoera laburra baina gatxenetarikoa iruditu zitzaion Izarri. Oinez ezin zutena katuka igo zuten baina igo.

Itsasora begira jarri zitzaizkigun eta berbaz-berbaz zebiltzan itsaso barrurantz adikunak botata.

Halako baten Izar zutundu egin zen eta gora-goratan badiotso irribarreka zegoen Lekobideri:

–Lekobide, baleak dakuskit han aurrean, Izaroren atze partean, baina zergatik ez doa inor eurak harrapatzen?

–Hara, Izar, bale arra eta emea dituzu horiek eta emea susara da, horregatik ez doa inor eurak harrapatzen, hori egingo bagenu lester lirateke baleok ezereztu, egin ere, amek ez dira harrapatu behar umegintza edo eta ume hazten daudenean

Behin baten, kasu berbera gertatu omen zen eta bermeotar batzuk joan ere bai bale arra harrapatzeko asmoz behin emea gobernatuz gero.

–Eta zer gertatu zen gero? –galdetu zion Izarrek dena jakin guran.

–Ba, aditu, historia hau oso luzea zaizu, sinestezina iruditu arren, jazorikoa dela esaten dute eta izan ere izan daiteke. Kontatu egingo dizut:

“Ba, bermeotarrak joan egin ziren bale arraren atzean eta egunak eta egunak eman zituzten baleari atzerik hara jarraitzen. Non zeuden ere ez zekiten eta halako gau ekaizdun baten, balea bistatik galdu eta itsaso txarrak haitz bitarte batzuetara bota zien barkua. Han eman zuten gaua, hotzakilik eta salbea errezatzen.

Hurrengo goizean, egunsentiaz batera utzi zuten barkua eta lehorreratu ziren non zeuden jakiteko baino zer jan eta edan aurkitzeko.

Lehorrean barrura zihoazen eta joanean-joanean, ibai bat aurkitu zuten eta berari jarraitu ertzeko bidezidorretik.

Egurdarte erdi inguruan, ibaia urkultzen zen lekuan, zer? eta kanoa bat ikusi zuten gizon beltzez beterik barruan hainbat janari zekartela.

Hura ikustean ikaratu egin ziren bermeotarrak baina goseak eraginda edo, bermeotar indartsuenak esan ei zuen:

–Kanoa hori gure parera heltzen denean, salto egin eta janari apur bat kendu behar diegu, eskatuta ez digute ulertu ere egingo eta!

Bermeotarra isildu zenean, nondik? eta kanoatik, zer? eta hauxe ez zen entzun ba, eta euskaraz gainera:

–“Kontuz, mutilak! nasai, ez artegatu eta gogor plantatu, gu geu ere pertsonak gaituk eta!”

Bermeotarrok, hori entzun zutenean, harrituta geratu ziren eta belaunikatu eta guztiak egin zituzten parka eskatuz.

Beltzen kanoa ibai ertzeratu eta hango beltz euskalduna lehorreratu zenean esku bata sorbaldatik eta besteaz bostekoa botatzen hasi zitzairen lagun bidean.

Bermeotarren buruak, harrera hura ikustean, jana eskatzeko akordu barik galdetu zion:

–Zuk nola dakizu ba gure berbaikunea?

–Bueno, goseakilik zaudetenez, jan ezazue nahi adina eta janez-janez kontatuko dizuet nire historia:

Urteak dira, izan ere, ni bale arrantzara joan nintzena. Itsasoan oso barruan ginen, nik neuk ere ez dakit non, eta zuoi bezala, ekaitz handi batek jo eta barkua haustu egin zitzaigun. Uger nenbilen itsaso gogorrean eta barku apurtuaren ohol bati besarkatuta eman nuen gau osoa erdi bizirik. Hurrengo goizean, itsasoa baretuta zegoen eta ni beste barku baten etzanda gizon zurien artean. Esnatu nintzen eta ez nuen ezer ulertzen. Berba egiten zidaten baina ez zegoen berbaikune hura ulertzerik, eurek ere ez nire neurea.

Ondo esan zidaten eta eurekin eraman ninduten baletan nik neuk ere ez dakit nondik.

Egunak joan egunak etorri, euretariko bat egin ninduten eta eurek nirea ez baina nik euren berbaikunea, euskara, ikasi eta guztia egin nuen, eta ez zait ahaztu oraindino. Handik luzaro batera, beltzen barku bat pasatzen ikusi zutenean, keinu batzuk eginez, hurreratu egin ziren eta neure afrikar berbak bitarteko aldatu nintzen barkuz eta etxera etorri. Horrexegatik egin dizuet harrera ona, neuri euskaldunek eginiko bazalakoa.

Barkua haitz bitartean duzuela esan didazue, ba, goazen eta guztion artean konpondu egingo dugu Bermeora bueltatu zaitezten.

Halaxe egin ei zuten. Denborak eta denborak pasatuta, galdutzat emanda eduki arren, ailegatu egin ziren Bermeoko portura, beltz euskaldunaren berri zekartela”.

Izarrek ezin zuen sinestu ere egin baina ukatu ere ez, bere historia ere ez zelako edonork sinestekoa.

Iluntze ordurako, bajatu ziren kontuz-kontuz Gaztelugatxetik, hartu zaldiok eta tipi-tapa, Altamiran plantatu ziren. Bazeukan bai zer kontatu Izarrek bere amari!

Izar geroago eta pozago bizi zen Lekobiderenean. Bizkaia ezagutu ahala bizkaitarrago sentitzen zuen bere burua, etxeko gorabeheretatik hasi eta gizarte mailara arteko guztietan.

Poz-pozik eta bake-bakean bizi zirela, gau iluntze baten adarrotsa barruntatu zuten Lekobidek eta Izarrek urrunetik. Lekobiderentzat ez zen lehenengo aldia, bai ordea Izarentzat eta horretara esan zion ba ze:

–Zer zaizu ba hori gaulendiko adarrots hori?

–Nik neuk ere ez dakit –erantzun zion Lekobidek–, baina gauza onik ez! Orain gautu egin du eta ezin dugu inora jo baina bihar goizean, tertzioz joan beharko dugu Gernikako Arbolapera zer den edo ez den jakiten.

Gau hartan ez zuten lorik ere egin Lekobiderenean. Hurrengo goizean, eguzkiak irteteko itxaron ere egin barik, hartu zaldiok arinago egiteko eta santiamen baten plantatu zitzaizkigun Gernikan.

Ordurako, han zeukaten itxaroten Zeberioko etxagunaren morroi bizkorrena eta Lekobidek beste etxagunak ailegatu arte itxaron ere egin barik badiotso zeberioztarrari:

–Zer da ba gertatzen dena adarrots hori ateratzeko?

–Ba hara, Lekobide, Zeberio eta Orozko bitartean dagoen Untzeta mendian geunden, beti bezala sorots egiten eta atzo egurdartean ikaragarritzko ejerzitu bat sartu da Bilborantz. Gure trabuko-harri biribilak ez dira izan nahikoa geratzeko eta aurrera egin dute. Horregatik, suak egiteari itxaron beharrea, adarrotsa atera dugu lehenbailehen zeozer egiteko!

Lekobide aitearenka hasi zen. Izar zirkinik ere egin barik zegoen hango atzera-aurrera ikusi arte.

Apurka-apurka, beste Bizkaiko etxagunak ere hasi ziren Gernikara hurre-ratzen eta gehientsuenok elkartu zirenean hasi zitzaien Lekobide esaten:

–Adiskideok, hauxe eta hauxe berri hau datorkigu Zeberiotik eta ezertan hasi baino lehen, areriook nortzuk diren jakin behar dugu. Horretarako, goazen erdiok Zeberiotik behera Bilborantz eta beste erdiok itsas alderik itsas alde Bermeo eta Bakiotik bitzuok bat egin arte eta erdian harrapatu erbestetarrok.

Esan eta egin. Bizkai osoa mugitu zen. Adar edo eta bozina mendietakoak adi-adi zeuden eta zaldun bizkorrak martxan Lekobidek esaneko lekuetatik.

Lekobidek eta bere taldeak arin egin zuten Bakiorainokoa eta handik Bilbo-ranzko bidea hartu zutenean, ez dute ba topez-tope egiten arerio-ejerzituarekin!

Ikaratu ere egin ziren eta ez gutxi gure Lekobide eta gaisetiko guztiak. Beldursartua eginda zeuden, nola ez ba hainbeste areriores aurrean!

Geldi-geldi zeuden alderdi bietakoak eta halako baten Bilbo aldetik beste bizkaitar talde nagusia agertu zen. Lekobidek arnasa hartu zuen.

Erbesteko arerioari ere errespetua sartu zitzaion eta bere zaldi gaisetik bajatu gabe erromantze-berbaikunan esan zuen:


–Goietako lurraldeak neureak diren bezala, Bizkaia ere neuretzat nahi dut eta horretaraxe nator!

–Baina, nor zaitugu –galdetu zion Lekobidek–, zekien erromantze apurra bitarteko.

–Ni, Ordoño infantea, Leongo Alfonso nagusiaren semea!

–Ba, gu Bizkaiko etxagunak gara eta Malato arbolatik honantzakoa geurea dugu eta geurea defenditu egingo dugu eta beldur barik gainera.

–Gerra gura baduzue, egin egingo dugu –zioen harrokeriaz Ordoñok–, baina ni erregearen seme nauzue eta nire kontra egiteko zuetariko norbaitek errege-odolekoak izan behar du, bestela ez dago zereginik, Bizkaia neurea da. Ondo pentsatu eta baldintza hori betetzen baduzue, etorri hiru egun barru Bilbo eta Urduña bitartean dagoen Padura zelaikadara eta hantxe egingo dugu norgehiagoka hori!



Berbok esanda, Ordoño infanteak alde egin zuen handik bere ejerzi-
tuarekin Bilboranzko bidea hartuz eta bere erromantze berbaikunean “vos
bildur- vos bildur-vos bildur” esanez erronkaka. Lepoa emakeran harro-plan-
tak egiten zituen, beharbada, bazekielako bizkaitarren artean ez zegoela
errege-odolekorik.

Lekobideri eta gainetikoei a zer nolako buruhaustea etorri zitzaien
Ordoño horren esanetarik!

Lekobidek, norbereari eutsi nahian, Tabirako Santxo Estigiz etxagunari
hurreratu zitzaion eta esan:

–Bizkaia ezin dugu arerioen esku utzi eta zelan edo halan bideratu
behar dugu Padurako norgehiagoka hori. Hiru eguneko epea daukagu, zer-
gatik ez gara bihar Bizkai guztiko etxagunak elkartzen Gernikan eta aurka
egin Ordoño harro horri?

–Konforme naukazu eta egin dezagun zeuk diozuna! –erantzun zion
Santxo Estigiz Tabirakoak.

Elkarturiko guztiak joan ziren euren etxeetara eta gau hartan adar edo
eta bozina mendietan ez eze beste askotan ere entzuten ziren dei-adarrotsak,
sugarrak, zantzoak eta irrintziak.

Lekobide, han zegoen Altamirako etxaguntzako sutondoan bere burua
belaun bien erdian sartuta, Izar bere ondoan alimuak ematen, Maria eta
Lekobidesea ere arduraz beterik. Ez zen gutxiagorako!

Laurak zeuden isilik. Izarrek ulertzen zuen Lekobideren buruhaustea,
errege-odolekoarena hain zuzen. Eta gauerdiko izarrak argituta edo esan
zion Lekobideri:

–Aditu, Lekobide, 22 urte ditut, aita santimamiñetarra zela esan didazue
beti, erregeak baino garrantzitsuagoa, bizkaitarrentzat behintzat, eta hori
gutxi balitz, Maria neure amagandik errege odolekoa nauzu, beraz, neuk
betetzen dut Ordoño arerio horren baldintza!

Lekobide zutundu egin zen, hobeto esanda, gora-goratan egin zuen
salto eta besarkadaka hartu zuen Izar esanez:

–Eskerrak zeru eta lurrari, Izar izango da Bizkaiko errege-gidari!

Maria Eskoziako erregearen alabak argi baino argiago ikusi zuen Izar
bere semearen eginbehar eta betebeharra eta Lekobideren besarkada ostean
esan zion:

–Izar, neure seme maitea, gizon egin zara eta hogeita bigarren urtean
zeure aita Peruk neuri emandako esbastika hau zeuri ematen dizut beti
aldean eraman dezazun!

Lekobidek, negar eta guztiak egin zituen, pozagaz, noski, eta hurrengo egunean, inoiz baino goizago plantatu ziren Izar eta biak Gernikako Arbola-pean.

Bizkai guztiko etxagunok elkartu ziren Gernikan baina bekokiastun zeuden denak Lekobide izan ezik. Lekobidek denborarik galdu gabe, hartu sorbaldatik Izar gaztea eta honela egin zien berba bihozberatuta zeuden beste etxagun guztiei:

–Bizkaiko etxagunok, zorionean gaude. Ordoño arerioak errege odoleko bat eskatu zigun eta hementxe daukagu: Izar, neure semeordea. Bere aitaren santimamiñetartasuna onartzen ez badigu, ama parteko errege-odola ukazina da eta berau izendatuko dugu gure gidari Ordoñoren aurka, zer diozue?

–Bai, bai, bai... –erantzun zuten denak aho batez–. Gora gure Izar gidaria!

Indarberrituta eta denborarik galdu gabe, Padura zelaikadako norgehiagokarako plantatu ziren bizkaitar guztiak. Harrizko zein burdinazko armaz bete zituzten mando-otzara eta zalpurdi guztiak eta Izar, Lekobide eta Tabirako Santxo Estigiz hirukotea aurretik zela, berehala plantatu ziren Padurako hegillamuan.

Ordurako Paduran zegoen Ordoño. Ez zuen itxaron ere egiten bizkaitarrek hurreratzen atomatuko zirenik, baina han zeuden, borrokarako prest.

Ezertan hasi baino lehen, Ordoñok kontuak eskatu zizkion Lekobideri aurretik esandako baldintzaz kanpo ete datorren eta honela ziotson bere erromantze berbaikunean:

–Nor duzue ba errege odoleko hori? Ja-Ja-Ja! Sekula ere ez dugu entzun bizkaitarrok erregerik daukazuenik; zer? mirariren bat gertatu da ala?

Lekobidek gudarien artean eraman zuen abade baten ahotik Izar errege-odolekoaren berri eman zion Ordoño harroputzari.

Ordoñori buruko ileak ere arteztu egin zitzaizkion baina hala eta guztiz ere, dena beharrekoa zenez, gerra eskatu zuen.

Hasi ziren hasi ere, gogor alderdi bietatik. Hainbat bateko eta besteko jausi zen odola dariola Padurako zelaikada horretan.

Halako baten Ordoñok erdi ustekabean harrapatu zuen Santxo Estigiz Tabirakoa, alderik alde sartu bere ezpata zorrotza eta hil egin zuen Lekobidek bizirik irauteko ahalegin guztiak egin arren.

Izar gazte eta indartsuak fetxoria hori ikusi zuenean, bota zantzo estentoreo bat eta artez-arteaz joan zen Ordoñogana. Honek beldurtu beharrean desafio keinuak egin zizkion Izarri. Orduan Izarrek Tartalok berak baino

indar gehiago atereaz bere besoetatik, jo eta ia-ia erdibitu egin zuen Ordoñoren gorputza eta odolustuta gorpu bihurtu.

Ordoñoren heriotza ikusirik, alde egin behar zuten bizirik geratu ziren Ordoñoren kideek. Dena den, eta ohiturari jarraituz, Malato arbolara ezkeroraino ez ziren geratu bizkaitarrak.

Behin Malato arbolatik harantz uxatuz gero, berriro bueltatu ziren Padurara, lehenengo eta behin hildakoei lurra emateko. Ordoño harrizko hilobian sartu zuten, ordura ezker, eroritako odol ugariagatik edo, Padura gabe Arrigorriaga deitu zioten herriko elizportalean.

Padura edo harrezkero Arrigorriagakoa bukatu eta gero, Lekobidek gudariak euren etxeetara bialdu zituen baina etxagunei esan zien:

–Gaurkoa ikusi duzue, irabazi dugu baina gutariko asko galdu ere bai. Beraz, hurrengorako prest egon behar dugu eta horretarako gure orain arteko defentsa-antolamendua sendotu. Horregatik, orain goazen indarberritzen baina hurrengo ilargi betean Gernikan elkartuko gara.

Halaxe egin zuten. Elkartu ziren etxagun guztiok Gernikako arbolapean eta Lekobide hasi zitzaien esaten:

–Ez duzue behar nik esaterik, baina ni neu zaharra nauzue Bizkaiko gidari izateko. Horregatik, Padurakoa ikusita gero nik neuk behintzat badaukat ordezko bat, Izar, zuok ondo baderitzazue.

–Bai! –erantzun zuten aho batez etxagun guztiek.

–Izar onartu duzue gero, nobedade bat esan behar dizuet, zein? eta haxe: Gaur bezalako izendapenik ez dugu sekula egin eta bataioko izena Izar bada ere, aurrerantzean gure Iaun Zuria izango zaio izena. Zergatik? Ba, ez azal-zuria delako bakarrik, ezpabere, bere aitagandiko esbastikan “I Z” ageri delako ere bai. Hizki bi horiek izan genituen kontuan Izar bataio-izena ipintzerakoan eta orain ere, bizkaitarron Jaureriko buru izendatu dugunean, hizki biok eramango ditu santimamiñetarren tradizioak jarraipena izan dezan!

–Gora gure Iaun Zuria, zaindu Bizkaiko Jaurerria! –oihukatzen zuten denek.

Aro berri bat sortu zen Bizkaian. Iaun Zuria herririk herri hasi zen dena antolatzen eta Malato arbolatik itsasora artekoa zintzo-zintzo jagoten.

Bizilekua ere aldatu zuen. Bilbo aldean egin zuen Jauregia Bizkaiko etxagunak errazago ibiltzeko euren gestio edo kudeaketarako joan-etorrietan. Gernikakoak berdin jarraitzen zuten in sekula sekulorun.

Iaun Zuria gatzeari eginen handia eman zion Bizkaiko Jaurerria antolatzek baina lortu zuen askok uste baino lehen.

Urteak joan urteak etorri, adinak barkatzen ez duenez, Lekobide eta Lekobidesea hil egin zitzaizkion beste etxagun ezagun askoren artean.

Ama Maria ere ustekabeen eroan zuen mundu honetatik koliko miserere batek, baina hala eta guztiz ere, berrindartu eta aurrera egin zuen bizkaitarren Iaun Zuriak.

Bizkaia nasai bizi zen Iaun Zuriaren agindupean eta haziz eta heziz zihuan nekazaritza, burdingintza, arrantza eta beste arlo guztietan. Egoera horretan zenbat gura eta harexenbeste asti zeukan Iaun Zuriak harona ibiltzeko. Horregatik mendietara irteten hasi zen berriro ere gozatzeko Lekobidek aldi baten erakutsitako lekuak.

Egun baten, hartu bere zaldia eta Gorbeia bideari eragoion Iaun Zuriak. Bidean, Atxuriko arrantzaleak, Boluetako olagizonak eta beste hainbat herrikide ikusi zituen denen aurrean esker onekoa izanez.

Zeberiora ere ailegatu zen eta Olabarrietako elizatik Gezala auzunerako bideko harizduian basabehi elia aurkitu zuen abaroan. Geratu egin zen eta eliaren zain zegoen mandazainari esan zion:

-Norako ditean hago ba?

-Ba, Aibelabe ondora. Lehen Gorbeia ondoko Arraba landara eramaten genuen ganadu elia baina orain ez dugu Zeberiorena.

-Zer dela eta ez ba?

-Ba, aditu: "Gorbeia eta Lekanda bitartean Arrabako Landea dago. Landa ederra, zelai-zelaia eta ganaduentzat belar gozokoa.

Gaur, Zeanuri parte da baina lehenago, Arrabako Landea Zeberioko Olabarrietako Santo Tomasena zen.

Ni mutikoa nintzela, Zeberioko abadea, ohiturari jarraituz, urtero-urtero joaten zen Arrabara urteko bedeinkazioa botatzen.

Zeberioko herriak, elia eroaten zuen Gorbeia ondoko landa horretara. Arrabako Landea taket eta alanbradura ederrez hesituta egoten zen zein ganaduak mundurik aramaio joan.

Zeberioko herriak, bere elia batzantzen zuenean, Santo Tomas eliza nagusiko elizportalera eroaten zuen lehenengo. Han bedeinkatu, gero, hementxe, elizondoko harizpetan abaroan eduki eta hurrengo egunean, freskuran Arrabako bidea hartu.

Era horretara, urteetan ibili ziren, baina halakoren baten, Zeanuriko herriak demandea sartu zion Zeberioko herriari Arrabako landea erreklamatu.

Egia esateko, Arrabako Landea hurbilago dago Zeanuritik Zeberiotik baino, baina usadioak usadio Zeberioke ere ez zuen bere ohitura galdu gura.

Abokatuekin hasi barik, izan ere abokatuek ezbaiari ematen diote eman ere indarra eta, beste apostu hau hartu zuten ontzat: San Juan egunean jaiotako zekor bana aukeratu, urtebetean hazi eta gero biak borrokan ipintzea Arrabako landan eta irabazten duena huraxe izateko landa horren jabe.

Esan eta egin. Baina zeberioztarrok larri geunden, gure zekorra irdarga eta hezur hutsa zelako eta zeanuriztarrena ostera mardo-mardo eta indartsua.

Baina, barbari eutsi behar zitzaion lez, heldu ziren San Juanak, eta eroan zituzten urteko zekorrok.

Hasi zen zekor-enbitea herri bietako testiguen aurrean eta Zeanurikoak aurretik zeraman Zeberioke zekor mekoa.

Hain zen handia Zeanuriko zekorraren indarra, halako baten taket eta alanbradurazko hesia ere apurtu egin zuen eta Zeberioke zekor borroa amildegira noiz botako zeukanean, zer? eta laprast ez du egiten ba Zeanuriko zekorrak eta bera jausi amildegira!

Ikusle guztiak harrিতa zeuden, batez ere zeanuriztarrek, baina berba, berba denez, berriro ere Zeberioentzat izan zen Arrabako Landea.

Urteak joan urteak etorri, Zeberioke abadea zahartu egin zen eta utzi egin zion Arrabako Landea bedeinkatzen joateari.

Apurka-apurka elia eroateari ere utzi egin zion Zeberioke herriak eta jabetu ezaren jabetu ezaz, azkenean Arrabako Landea Zeanuriko herriko propietatera joan zen eta hantxe dago. Bake santu bat! Horregatik orain Gezala gaintetik Aibelabe ondora eramaten ditugu”.

Iaun Zuriak, entzunak entzunda, aurrera egin zuen. Gezalako iturri gazian aurpegia garbitu ere egin zuen kutiserako ona zuen eta.

Joanean-joanean, Arrabako landara ere heldu zen eta berehala konturatu zen Zeberioke mandazainak kontatutakoaren zergatiaz. Artzain asko ere asko ikusi zituen landa horretan.

Aurreratxoago, Egiriñao deritzon pagalandako gerizpetan hartu zuen atsedena. Pagape baten eli-pastore bat aurkitu zuen eta:

–Eup! Zer egingo ete digu ba egun honek?

–Ez dakitsut ba! –erantzun zion pastoreak–, hodei-lainoak ageri dira eta ez dakit ba parte txarrekoak ez ote zaizkigun gaintuko laster, aldi bateko argi-deabrua lez!

–Argi-deabrua esan didazu? Zer zaizu ba hori?

–Jarri hemen eta aditu: “Ni neu orozkoarra nauzu. Behinola, Orozkoko Gallartuko Txomingorri, burrukaria zen izan ere, indartsua, konpromisorik ez eman behar berari, osterantzean lepora zetorren atoa!

Eta egun baten, Txomingorri hori Zeanurira joan zen, ganadu-feriara. Lehenago Orozkotik jende asko joaten zen hortixik, Sintatxetik Arratiako ferietara. Neu ere sarritan joanda nago.

Sintatxetik, Aibelabe ondotik zegoen senda bat eta handik, San Martingo sendatik, Aibelabetik, argi aparteko bat zetorrela ikustean badio bere kautan:

–Koño!, hortxe zetorrek argi madarikatu hori eta oraintxe nagok ni ona! Horrax Pagalandara irten behar zioat sikan argi hori hobeto ikusteko! Pagalanda hauxe dugu, oraintxe biok gauden tokia.

Eta argi hori bazetorkion atzerik hara. Txomingorrik orduan Pagalandara irten zion, leku ezaguna zuelako.

Argi hori Pagalandara iritsi zenean, hango pagaduiko pago baten puntan geratu zen katigatuta lez.

Orduan, Txomingorrik, hartu pago-makila luze bat eta jo-jo egin zuen argi berezi hura berba hauek esaten zizkiola:

–Bidean nentorrela ez didak bakean utzi, ba orain, eutso!

Txomingorrik, makilotsa atera zuen argi hori jotzen baina joago eta larriago plantatu zen, argi horretatik deabrua irteten ikusi zuenean.

Handik argitik irtendako deabruak hil egin gura zuen Txomingorri baina honek, orpoetan ar barik, ospa egin zion ondo baino hobeto ezagutzen zituen bideetatik.

Han zihoazen galapan bata aurretik eta bestea atzerik hara nor arinagoka Adaroko auzunerantz.

Txomingorri, Adaroko auzunera heldu zenean, Adaroko Mantxuaren etxean sartu zen, baina ez beti lez, zekarren abiadaz atea jo eta botata baino.

Mantxuarenean orduantxe zeuden goizeko mezarako domeka-soinekoak janzten eta etxeke andreak badiotso:

–Ene!, zer Jaungoiko! zer jazo zaizu ba, bakez zatozkigu?

–Ai ene!, ai ene! –suteak ere hartu ezinik seguru, Txomingorrik.

–Zer pasatzen zaizun baino ez da!

–Zer gertatzen zaidan? Ba, honantxe eta honantxe deabruak berberak irten dit bidera eta alde egin diot baina eskerrak etxe bedeinkatu honetan sartu naitzena, osterantzean, banaroa hortik zehar berarekin, batek badaki nora!

-Tira ba, erantzun zion etxeko andre hark-, egunsentiko angelus erre-zatu dezagun, kandela bedeinkatua izitu eta ereinotz bedeinkatua erre, ea deabru hori uxatzen dugun eta bakez joan zu zeure etxera eta gu domekako goizeko meza entzutera!

Halaxe egin zuten eta ez zitzaien deabrurik agertu han paraje hartan baina Txomingorrik denborak eta denborakarenean ere ahaztu ezinik zeukan Pagalandako susto-sartu hura."

Iaun Zuria ikaratuta zegoen ikusi eta entzuten zituen guztiekin eta pastore harekin berbaldia egin ondoren, Supelegorreko kobarako bidea hartu zuen Itxinako hazdua zeharkatuz.

Lekobidegandik zekien Mari Anbotokoak zazpi urte egiten zituela Supelegorren baina inoiz ez zitzaion gogora etorri holako kontuetan sinisterik.

Supelegor koba barruraino sartu zen baina han ez zuen Mari Anbotokorik ikusi. Koba ederra zen, sakona, azken partean erreka bat eta guzti baina ez zuen sai batzuk baino besterik ikusi sartu-irtenean.

Handik gerora, Itxinako hazduiaren barruan, Atxuloko begia begiztatu zuenean, zer? eta ene! neska eder bat ez zuen aurkitu ba!

Hurreratu zen eta begiak ere lausotu egin zitzaizkion Iaun Zuriari neska hain eder hura ikustean.

Begietako argi-lauso hori kendu zitzaionean, harriduraz beterik, honela berba egin zion Iaun Zuriak:

-Nor zaitudan baino ez da!

-Ni Mari Anbotokoa nauzu, eta zu?

-Ni Iaun Zuria, Bizkaiko Jaurreriko lehen nagusia.

-Orduan biok gara errango edo linaje handikoak, ni jainkosa eta zu herriko nagusi!

-Ba bikote lagunabarra egiten dugu. Ezkonduta al zaude Mari?

-Ez, orain arte ez dudalako izan horretarako neure mailako lagunabarrik.

-Eta biok ezkontzen bagara, zer?

-Bai gura baduzu! baina arazo bat daukagu, ni kristau aurrekoa nauzu eta zu osteria kristaua zaitut, hortxe daukagu muga! Ikusten dudanez, zu gizon eskolatua zara baina ba al dakizu herriak nola jakin zuen Jesukristoren berri?

-Ba, nik dakidanez, abadeengandik. Nik honantxe eta honantxe, Altamiran ikasi eta jakin nuen berri pozgarri hori ume-umetarik.


–Bai, hala izango da –erantzun zion Mari Anbotokoak–, baina abadeak hona etorri aurretik, beste era honetara ezagutzen zen, aditu iezadazu:

“Behinola, basajaunak edo jentilak Eguberri ospatzeko elkartu omen ziren Aralar mendiko landa zelai baten.

Neguaren hasiera-hasiera zen, udaren hasierarik hona laburtzen-laburtzen zetorren egun-argia luzatzen hasteko eguna, Eguberri hain zuzen.

Denak zeuden pozik. Basajaun gazteek saltoka eta harri-bolan ziharduten, helduagoak indar gutxiko eguzkipean dantzan eta zaharrenak jesarrita ingurumarietan denera adi.

Basajaunik zaharrena ez zegoen besteekin, atzeragoan baino. Zaharren zaharrez, begiak ere itxita zeuzkan, gorputza sor, burua arin, eskuak indarga eta hankak loka. Ez zen gauza jesarrita egoteko ere eta horrexegatik zeukaten haitz bati deusala, erdi etzanda basajaun zahar gizaixoa.



Eguberri osoa eman zuten ospakizunetan eta ilunabarra noiz helduko zegoela, argi berezi bat ikusi zuten ekialdetik.

Pentsakor geratu ziren denak ere eta inor ez zen ausartzen ahorik askatzen argi hura zer izan zitekeen azaltzeko, inoiz ikusi bakoa baitzen.

Iluntzea aurrera joan ahala, argi berezi hori geroago eta hurbilago zeukaten eta basajaun horietako ausartienak hasi ziren esaten batak besteari:

–Hi, eguzkia zetorrek berriro! –batek.

–Hago isilik! –beste batek–, eguzkia sartu duk sartzamendian; hori ilargi bizia izango diagu.

–Zaudete biok isilik! –hirugarren batek–, ilargia ilberrian zegok, beraz, argi hori izar handiren bat izango delakotan nagok.

Eztabaidok entzun orduan, basajaun guztien buruzagiak hitza hartu eta era honetara hasi zitzairen berbetan:

–Nik neuk ere ez zekiat hori argiori zer den, ez baitut inoiz ikusi hola-korik, baina beharbada, han baztertuta daukagun basajaun zaharrenak zer-bait jakingo dik!

Nagusiaren hitzok entzun eta gero, joan egin ziren basajaun zahar-zahar haregana eta esan:

–Hi, argi berezi eta handi bat ikusten diagu ekialdetik eta hor gaudek zer den ulertu ezinik, hik heuk ba al dakik zer den?

–Nola arraio jakingo diat ba ezin ditiat begiak zabaldu ere egin eta!

Zahar horren berbak entzun orduan, hartu besartean eta beste basajaun guztien erdira eroan zuten.

Behin erdira ezkerre, argiari adi jarri zuten eta buruzagiak begiak zabaldu zizkion argi berezi hori ikus zezan.

Adi-adi geratu zen basajaun zaharra eta halako baten bere beso indarga biak gora-goraka jaso badio:

–Kixmi jaio duk! Kixmi jaio duk! Kixmi jaio duk! Gureak egin dik! Gureak egin dik! Gureak egin dik! Bota nazazue Aralarreko haitzetik behera! Bota-bota-bota!

Beste basajaun guztiak harrিতuta gelditu ziren eta irtenbiderik ez zeukata ikustean, basajaun zahar horrekin batera, bata bestearen atzean, denak galdu ziren betiko, denak bat izan ezik: Olentzero.

Olentzero, basajauna izanik, herritarren laguna zen. Beste basajaunak haserre ibiltzen ziren sarritan herritarrekin. Herritarrek bazekiten basajaunak eurak baino aurreratuago zebiltzala labrantza eta burdingintzan baina baten baino gehiagotan, zuhurtasunaren bidez, lortu egiten zituzten aurrerapideok basajaunengandik: esate baterako, garia, artoa, errota-harriaren haltzezko ardatza, burdina soldatzearen teknika edo gaztaina orriaren itxuran egindako zerra.

Horregatik Olentzero pentsakor geratu zen beste basajaun guztiak galtzen ikustean eta bere buruari esaten zion:

–Ni neu ez, ni neu ez noak beste basajaun guztiak lez amildegian galtzen, nik neuk maite ditiat herritarrak eta gaur jakin dugun berria jakin behar

ditek, gureak egin arren, eurenak aurrera egiteko kristautasunaren aro berrian. Horretarako, herrira joan eta berri ona zabaltzen hasiko nauk baserri-rik baserri.

Esan eta egin. Olentzero mendia behera hasi zen herrirako bidean. Atzerik hara argi bereziak jarraitzen zion eta lehenengo baserrietara heldu zenean zantzoka eta berba indartsuz hasi zen esaten:

–Herritarrok, kixmi jaio zaizue! Begira goiko argi berezi horri, ekialde-
tik datorren argi pozgarri horri! Gureak egin du baina orain zeuona duzue
aro berri hau, poztu zaitezte, poztu!

Baserritarrak asko poztu ziren Olentzeroren berbak entzutean eta esa-
ten zuena egia zela ikustean badio batek:

–Hi, Olentzero, zergatik ez goazak hi aurretik eta gu guztiok atzetik
garela herriko baserri guztietara eta gero herriaren erdiko harizpera!

–Ba, joatea baino ez zegok! –erantzun zion Olentzerok.

Han zihoazen baserri-rik baserri berri ona zabaltzen eta bat esanda bera
ere ez zen etxean geratzen, denak Olentzeroren atzean.

Herri guztiko atea jo zituztenean eta denak harizpean elkartu, Olen-
tzero hasi zitzaizen esaten:

–Banan-banan ere esan dizuet baina kixmi jaio zaizue! Beste basajaun
guztiek kontrakotzat hartu dute berri on hau eta “kixmi” izena ere horrexe-
gatik jarri dio gure basajaun zaharrenak. Esan dizuet baina berriz diotsuet:
beste basajaun guztiak amildegian galdu dira eurenak egin duela eta. Ni,
ostera, hemen nauzue lagun lez, lehengo aroko azken basajauna izan arren.
Etorkizunean zintzo jarraitu gaur jaio berri duzuen salbatzaileari!

Herria asko poztu zen eta jai handi bat antolatu zuten Olentzeroren
inguruan. Zenbat gura eta harexenbeste jaki eta edaki eman zioten Olentze-
rori eta euren benetako poza adierazteko bertso hauek egin eta kantatu ere
egin zizkioten ohitura zaharrari eutsiz:

“Olentzero joan zaigu

mendira lanera

intentzioarekin

ikatz egitera.

Aditu duenean

Jesus jaio dela

lasterka etorri da

berri ematera.

*Horra-horra gure Olentzero
pipa hortzean duela
eserita dago
kapoiak ere baditu
arraultzatxoekin
bihar meriendatzeko
botila ardoarekin.*

*Olentzero, buru handia
entendimentu gabia
bart arratsean edan omen du
bost arroako zahagia.
Ai urde tripa handia!*

Olentzerok, jan-jan eta edan-edanak eginda, berba hauexek esan zizkion pozez beterik zegoen herriari:

–Banoatzue, lagun izan nauzue orain arte eta orain joan noa hortik zehar Mari Anbotokoarekin nonbaiten estaltzera baina ohiturak ohitura izaten direnez, urtero-urteroko Eguberrietan hemendik izango nauzue opariz beterik, zahar, heldu eta batez ere ume guztien pozerako. Agur eta datorren Eguberrietara arte!”

Iaun Zuriak adi-adi entzun zion ipuin hau Mari Anbotokoari eta benetan maitemindu eta guztiraino egin zitzaion bere edertasuna ikusi eta berba gozook entzutean. Burua ezinak jotzen zion eta bihotza ahalak. Iaun Zuriak bere barruko borroka horretan ia-ia bere senetik irtenda, zera esan zion Mari Anbotokoari:

–Gauza bat egingo dugu, zatoz neurekin Bilboko jauregira, ezkondu gaitezen sekretuan eta bakoitzak bere ohiturak jarraituz biziko gara.

–Horrela baldin bada, konforme, eroan nazazu zeugaz!

Iaun Zuriak, hartu Mari Anbotokoa bere zaldi gainean eta tipi-tapa Bilboko jauregira eraman zuen.

Bizkai osoan zabaldu zen Iaun Zuriaren ezkontzaren berri baina inori ez zitzaion txokatu horretarako sasoian edo tertzioan aspalditik sartuta zegoen eta.

Pozik bizi ziren bakoitzak bere ohiturei jarraituz. Urtegarrenerako seme bat ere izan zuten, seme polit bat.

Iaun Zuriak, Mari Anbotoko bere andrearen isilean, bataiatu egin zuen semea eta kristautu badaezpada ere.

Egun batek bestea dakarren neurrian, Gabonak ere heldu zitzaizkien. Gabonkariak eskuratu eta afaria ere prestatu zuten batak besteari lagunduz.

Gabon afaria egiteko tertzioa heldu zenean, Iaun Zuriak, Gabon-enborra izitu surtan, labesurik harako ogi biribila eskuetan hartu eta txakur amorratuarentzako lehen kuzkurra ebaki baino lehen, ohiturari jarraituz, gurutze bat egin zion aiztoaz ogiari eta:

–Ene! Zer egin didazu? Baldintza apurtu duzu eta ni banoa hemendik neure semea hartuta! –esan zion Mari Anbotokoak oso haserre.

–Nire semerik ez! –erantzun zion Iaun Zuriak–, nire semea bataiora ezkerro kristaua da eta neu ere bai, aditu ezpabere nire esbastikaren barrualdeko gurutzeari!

Berbok entzun zituenean, Mari Anbotokoak hanka egin behar izan zuen Bilboko Iaun Zuriaren jauregitik, baina ez edozein modutara, garretan joan zelazkoa kontatzen zuten bizkaitar guztiek eta harrezkerro, garretan eragoiola, mendirik mendi eta kobarik koba, noiz arte? ba, anega bat garik garautan daukan beste urte. Egia edo gezurra, kontatu horixe kontatzen zuten herritarrek.

Kontuak kontu, pasadizuak pasadizu, horrelakoxea izan omen zen Iaun Zuria eta Bizkaiko Jaurreriaren sorrera. Sustraz, santimamiñetarren eta Eskoziako errege-odolekoa izan bazen Iaun Zuria, semea, horrezaz gainera, euskal jainkosa batena, Mari Anbotokoarena. I.Z.+CMIX” .

Hortxe eta horrelaxe bukatzen zen eskuizkribu misteriotsu hura. Eginak eginda, nire partetik gauza bat baino ez neukan argitzeko, zein? eta hauxe: non geratu zen azkenean eskuizkribu misteriotsu hura!

Ba hara, irakurle, sinestezina izan arren, hauxe gertatu zitzaidan, eta egia esateko, nik neuk baino ez dakit zenbat sentitu nuen.

Aditu, latinezko eskuizkribu haren azken zatia itzuli nuenean, Mundakako Santa Katalinako iparraldeko hormari neutsala nengoen, gerizpe gozoan, egun eguzkitsu zoragarri baten. Azkenean, ordenagailuari gordezko agindua eman nionean, bihotzeko askatasunaren eraginez edo, loak hartu ninduen esku batean ordenagailua eta bestean eskuizkribudun koardernoa nituelarik.

Halako baten, Leireko Birila abadea bezala lo gozotik iratzarri nintze-
nean, ordenagailua bakarrik neukan esku batean. Zutundu nintzen, inizitua
bestean egin ere, eta hara han non zihoan itsas txori bat Izarorantz bere
pikuan nire eskuizkribudun koadernoan zeramala.



Gogor egin nion, zantzo, irrintzi eta alaurietarainoko guztiak askatuz
nire eztarri mindutik.

Nire garrasietara itsas txori hura gehiago uxatu nuen eta beldurrez edo,
gora baino ere gorago zihoan bere hegoen pliplapleotan.

Handik lasterrera neure begien aurrean, nire ezinaren ezinean, eskuiz-
kribua pikutik soltatu egin zitzaion kaio mantzin hari eta Dedaloren begien
bistan Ikaro itsasora erori zen bezala, nire eskuizkrubudun koadernoan ere,
orri guztiak dariola, jausi eta hondoratu zitzaidan Izaro eta Mundaka arteko
itsaspean.

Juan Manuel Etxebarria Ayesta
(1997ko martia)

HIZTEGIA

abantean: arin, zuzian.

abemariak: kristau aroko iluntzetako eliz-ermitetako kanpaiotsa.

adinon: ezer egin barik egotea.

ahoa askatu: hitz egiten hasi, berbaz hasi.

ahotza: gari-lasto trillatua.

aiko: hona hemen.

akordatzako: ustekabeko.

akordatzakoan: akordu barik, uste ez dela, ustekabeen.

alauria: ahots-zarata, garrasi, oihu handi eta luzea.

alimua: adorea.

aloso: dezente, ugari.

amea: ama baina animaliena.

ametxorria: urdailera bidea.

andafuerazko jantzia: esaera: kanpora bota edo kasurik egin ez egitea.

angelus: goiz, eguerdi eta iluntzeko otoitz bat, kanpaiots eta guzti.

apurrin: beste baten bizkarrean, eskuak saman eta hankak gerrian direla.

arean: apur bat, pixka bat, zertxobait.

argi-kanpaiak: egunsentiko kanpai-hotsak

arrikanpaiak: argi-kanpaiak, egunsentian jotzen diren eliz-kanpaiak, alba-koak.

artaperik artape: arte-zuhaizpetatik.

arteak hartu: lasaitu, baretu.

artepe: arte arbolapean.

artza: zimetzezko otzara antzekoa garauak haizetuz garbitzeko.

ataka: ate-ahoa.

atoan: momentuan, arin, berehala.

atomatu: ausartu, atrebitu.

atxea-motxea: atzamarren jolasa, (atxea-motxea perolipan...).

atzerik hara: atzetik.

aurbehera: aldapa behera, aldats behera.

aurogora: aldats gora, aldapa gora, aldatsa, aldapa.

barausi: gosaldu.

barausia: gosari txikia, oherik harakoa.
barauskarriak: baraua apurtzeko edo gosaltzeko jakiak.
barruntatu: entzun, asmatu, sumatu.
beharlekua: lana, zeregina, ekintza; lantokia.
bekanekoa: siesta txikia.
beldurkilik: beldurrak hil eginik, beldur handiagaz.
beldursartua: lehenagotiko bildur kendu ezina.
belea beltzago ez egin: (esaera). gauzak txarrago ezin joan.
belu: berandu.
berbara etorri: berba egiten ikasi umetan edo konortea galdu ostean.
berbartua/berbaltua: tartamutua.
berekitan: berekautan.
berenberegri: espreski, propio, hartarakoxe, hartantxe.
beresia: baso berez-ernea, oihan txikia.
bihozturia: urdailaren ahoa, bihotzerre tokia, gaztelaniaz "cardias".
binke: gaztelerazko "ya lo creo", "bien que"tik dator.
burbuxa: zuhaitz mota bat, madroñoa.
demonintrua: deabrua esateko eufemismoa.
dendik ere: dena den, dena delakoa.
denodua: indarra, kemena, ugaritasuna.
deslai: abandonatuta, bertan behera utzita.
deutsala: erantsita, ondo-ondoan, segituan.
ditea: gogoia, asmoa, plana, joera.
durdidu: zorabiatu, mareatu, aturdidu.
ebatzi: erabaki.
egarriak tximeltan: egarri handia.
eginen: zeregin.
eginena: zeregina.
eginena langoa: nolako eginena.
egurdartea: eguerdi aurea, eguerdirarteko denbora.
elia: ganadu taldea (basabehiak, zaldiak, mandoak), jende asko, gauza ugari.
emendatu: bete, asetu.
endemoninoa: handia, oso handia.
eragon: ekin, jardun.

erantatu: mogitu, espabilatu, astindu, bizkortu.
ermakariak: umea jaio eta egun batzuetara egiten diren opari-ospakizunak.
ernaroa: ereindako hazia ernetzen den aroa.
erresuma: hormaren gain gaineko teilatu-hegalpea.
erreskan: asko, pausuko, ugari.
estaria: estalia, leku ezkutua.
estukina: zeozer estuteko bedar, gari, mimen edo kordel, erramal, soka.
fetura: ganora; itxura, patxada.
gabonkariak: Gabon jaietarako erosten diren jan-edari bereziak.
galautsa: gari buru bakoitzak duen gaineko azaltxoa.
galgaraua: gari garau.
galondoa: garia egoneko soloa.
galtzupoila: galtzu-lastoz egindako eskuta, garia joteko edo eta gainetikoe-
 tarako.
ganoso: gogo handiz, gustora, gana handiz.
garbikuzia: garbiketa: arropa, etxea zein beste zeozer.
gari-jotea: era batera zein bestera, galburuak garantzea.
gaulendia: iluntzea, ilunabarra.
gauzeztandu: balio ezean geratu.
gesu baten: lasterrera, denbora gutxi barru, halako batean.
goiti-beheiti: gorabehera.
gosunea: arin jan edo edatearen ondoriozko samako edo eztarriko mina.
grillistua: irrintza handia.
haronakoa: hara eta honako joan etorria.
hazdui: haitz askoko tokia.
hazeguna: ereitzak egiteko garai egokia.
hazkaia: haziera, zelan hazten doan, (gazt. crecimiento).
hedea: uhalezko zinta buztarriak, bridak eta abar lotzeko.
hegillamu: hegia, egi zelaia.
helbarren: herri barren, herriaren beheko partea.
idargiberria: ilargi berria.
idargibetea: ilargi betea.
igeska: zuhaitz enborreko perretxiko sikua, jo-jo egin eta gero, txispatik sua
 hartzeko onenatarikoa. Lehenago, harririk hara sua egiteko oso erabilia.
inizitua: oinaztargia, oinaztua, tximistargia.

inontza: ihintza.
intila: tragaza, soloa lantzeko tresna bat.
intzigua: gogo bizia, grina, desira.
iski: apurtxo bat
itaurren: idi edo behien aurretik ibili gidatzeko.
kakadario: beldurrez kaka dariola, beldurti.
kia: ez, ezetz.
kiputu: atzamarrak zurizkatu hozmindu, moteldu, beratu, bigun-zuritu urak edo hotzak.
kirikinusia: gaztainudietako gaztaina-kirikinoak pilatzeko hesia (egurrezko zein harrizkoa).
komertaziona: elkarrizketa.
kontaderia: kopurua.
kopau: janari bokadu.
kortika: zikinkeriazko azala, kostrea.
labrantza: laborantza, solo-beharra baserrian.
lasiertuna: ganaduen gaixo bat: errapeak gogortu, (gazt. mamitis).
Lekobidesea: Lekobideren Andrea.
lo arrazo: umeari lo egiten lagundu loak hartu arte.
lumorraztubakoa: 1.- lumaz jantzibakoa. 2.- heldu edo maleziabakoa.
lurbela: lur iluna edo beltza.
magalotsa: erropa-magalaren zarata.
maleta sikua: kozinatu gabeko jakiak, otartekoak etab.
mehatzunea: baso, solo edo antzerako zelai hutsa eta garbia.
meko: argal, makal.
mendia hartu: bizitoki berrian egokitu, ohiturak onartu, hartara egin.
merroa: eskasa, makala, argala.
morrala: sorbaldatik eskegita eramateko zakutoa.
nor zaren beist: zeu nor zaren.
oboan-oboan: inguratuz-inguratuz; bueltan-bueltan; ingurumarian.
okelua: bazterra.
orkolo-hatza: eskuko hatz lodia.
orpoetan ar barik: esaera: arin ere arin, apatxotsean, bizkor-bizkor, abantean, abiadan.
parte onekoak: mito-pertsonaia onak; pertsonak ere bai.

parte txarrekoak: mito-pertsonaia txarrak; pertsonak ere bai.

podazuz: poderioz.

putxa: gatzatua.

putxa-putxa: bigun-bigun.

sakonaria: sakontasuna.

sartzamendia: iluntzean eguzkia sartzen den zeru-lur tokia, mendebaldea.

seguru: antza, dirudienez.

sentzain: haurra zaintzen, umea jagoten.

sorots egin: bigilatu, zelatatu, sorotsi.

sugin: sua egiteko.

sumika: erretxineak, soloariak edo egosteak uzten duen mantxa berezia.

surtea: behesua sutan.

tenola: indarra, gogoa, alimua, adorea.

tertzio: garai, sasoi, goiz, ordu.

trabuko: antzinako harri-bolak botatzeko tresna.

tirauzu: erdu, zatoz.

txankerrea: hanka meheak edo argalak dituen.

txorigorriak: maldizioak, juramentuak.

uzama: ugazama, ugazamandrea

zautu: beresi, isasi, ibarbaso.

zedena: sitsa, zura zulatuz jaten duena.

zein... egin: eginean ere; egiten ba... ere; (gazt. por si...).

zein...+ aditza (part. zein subj.): ...ean ere; ba...ere. (gazt. por si...)

zeinakio: zer egin ez dakiela, ezer egin barik.


zezina: ganadu-haragi gazitu-sikatua.

ziha: koipe-ura, gantzagi urtua.

zoli: bizkor, arin.

zorribidea: zimurdura bitarteak batez ere aurpegian urteak bete ahala.

zuzian: abiadan; abantean, oso arin.



Zeberiokoa. Bilbon jaio zen 1948an. Filosofia eta Magisteritza ikasketez gain, ohorezko matrikuladun lizentziatua eta "Cum Laude" eta guztizko doktorea dugu Euskal Filologian Deustuko Unibertsitatetik.

Gaur egun, Euskaltzaindiakoa izateaz batera, doktorego tesietako zuzendari bezala, herri-euskara bizia jaso eta etorkizunera bideratzeko proiektu interesgarri eta behar-beharrezko baten daragoio Etno-Linguistika bidean.

Beste alde batetik, On Jose Migel Barandiaranek sortu eta zuzendutako Bizkaiko Etniker taldekidea dugu Labayruren babespean. Guzti horrekin batera, idazlea ere bada. Besteak beste, hiru arlo landu ditu: etnografia, hizkuntzalaritza eta ipuingintza, bizkaiera gaurkotuan zein batuan.

Gazteentzako eleberri honetan, Jaun Zuria, Bizkaiko Jaurerriko lehen Jaun mitikoaren bizitza historiko-fantastikoa oinarritzat harturik, garai hartako bizkaitarren izaera eta biziera azaltzen da egiazko datu eta asma-tuak bitarteko.

Mendeak joan, mendeak etorri, aldatuz dator bizitza bidea eta hainbat biziera bidean geratzen zaizkigu zaharkitu edo eta gauzeztandurik. Hizkuntza ere bizitza aldaketekin batera doa, baina, zorionez, belaunaldiz belaunaldiko egokitzearen bidez, bidera daiteke etorkizunera. Arbola onak sustrai onak behar baditu, euskara onak beste hainbeste. Eskuetan duzun herri-sustrai emankor hau, zahar on egin dadila etorkizuneko euskararen aberasbidean.

